

**+**



Iñaki Arrasate  
URAKO plangintza  
arduraduna

Lotailu gurutzatua  
eta emakumezko  
kirolariak

## PREZIPITAZIOA ETA TEMPERATURA AZTERGAI



Urkulu urtegia, eguaztenean. ANDONI GOITI

### Urkuluren betetze maila **-%52-** ez da ohikoa, baina beherago egon da

Beste aldi batzuetan baino ur gutxiago du sasoi honetan, baina minimoak ez dira historikoak / 2



Bergarako ikerlari gazteak eguaztenean Seminarixoan, ZTB jardunaldietan. I. A.

### Begarako ikerlari gazteek euren ikerketen azalpenak eman dituzte / 20



### ARGI GORRIZ DATOR THE CLAYTON TALDEAREN DISKO BERRIA






**DANBAKA ))))**

Danbaka Musika Lehiaketako irabazleak gertu dauka diskoa; Durangoko Azokan, eskura / 34

The Clayton taldea, Jokin Larrañaga abeslariak *Over the red light* diskoa eskuan duela. IMANOL SORIANO

**Euskaltzaleen Topagunearen kongresua Arrasaten bihar, erabileran jauzi bat ematea helburu / 4**

#### SINADURAK

	MAIALEN ARRIZABALAGA ARANA / <b>16</b>
	IGOR ARRIZMENDIARRIETA / <b>8</b>
	LOREA SUAREZ IBARGUREN / <b>29</b>
	RAMON UGALDE / <b>11</b>
	MIKEL BIANI / <b>40</b>

## BLACK FRIDAY

# 2mó 89€

lehen 99€

### erreflexuen aurkako betaurreko graduatuak

## MULTIÓPTICAS

943 79 29 95  
Otalora Lizentziaduna, 18  
ARRASATE

943 76 15 75  
Ibargarai, 16  
BERGARA

www.multiopticas.com



Koatsu (tutu) optikan konpainiaren erabazgarriak.

**Amaia Ramirez de Okariz**

**Kortabarria** DEBAGOIENA


Gipuzkoako Ur Kontsortzioak egunero eguneratzen du lurraldeko urtegi-tako betetze mailaren zenbatekoa, eta, atzoko datua gogoan izanda, %51,99koa da Urkulukoa; hain justu, iaz,aldi berean, %61,60koa zen eta, 2021ean, %65,85koa. "Lehorra izan zen aurreko negua, eta aurten euri gutxi egin du; beraz, maila baxuarekin jarraitzen du urtegiak. Egoera ez da normala", adierazi du Aitor Irizar Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Debagoieneko antolaketa buruak. Alabaina, ez da zenbateko hori erregistratu den lehen aldia, harago baitago minimo historikoa.

Irizarrek emandako datuen arabera, Urkuluko minimo historikoa 1995eko abenduan erregistratu zen. "%47 azpitik gelditu zen abenduan. Negu horretan ez zen bete, baina 1996ko abenduan, bai". Aurten ere zenbateko horretatik gertu izan da betetze maila minimoa, %49,3koa jaso baitzen urriaren 25ean. Horrez gain, erantsi du 1989, 1990 eta 1991. urteetan ere "lehorte luze bat" izan zela eta Urkulu urtegia "ia urte osoan baxu" egon zela. Beraz, aurten go martxotik urrira jaso diren minimoak historikoak ez direla azpimarratu du Debagoieneko antolaketa buruak, baizik eta egun zehaztutako absolutuak.

#### 2022 eta 2023

Gipuzkoako Ur Kontsortzioak "minutu oro" neurtzen du Urkuluko betetze maila, eta euren da egiten den neurketa bakarra, Irizarren hitzetan. Alabaina, MITECO Espainiako Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioak ere urtegiaren inguruko informazioa ematen du, datuak boro bilduta. Bada, horren zehatzak ez izan arren, balia garri dira ondorio batzuk ateratzeko.

2022 eta 2023ko astez asteko datuak ematen ditu, eta, jasotakoari erreparatu gero, esate baterako, ondorioztatu daitekeen puntuetako bat da iazko urtarrilaren 4an betetze maila maximoan –edo gertu, datua boro bilduta baitago– zegoela Urkulu, baina poliki-poliki beherantz egin duela. Iazko azaroan %60 inguruan zegoen betetze maila, baina neguko euri eta elurrekin batera, puntu bat gora egin zuen



# Urkulu urtegia, asetu ezinik

Kezka da herritarren artean Urkuluren egoera. Beste aldi batzuetan baino ur gutxiago du, baina minimoak ez dira historikoak; urtetan atzera eginda ikusi daiteke izan dela horrelakorik inguruotan. Horretarako, ordea, datuak aztertzea da bideetako bat

urtarrilaren hasieran; hala ere, ez dio egoerari eutsi, udaran sartzearekin bat beherantz egin baitu zenbatekoak, duen gaitasunaren erdira iritsi arte.

Bada, une honetan, larrialdi egoeran dago Urkulu, betetze mailaren arabera lau maila bereizten baitira: normala, aurre alerta, alerta eta larrialdia. "Oraindik urtegiaren %50 gelditzen da; bada ura". Baldintzek berdin jarraituz gero, datorren udara arte ura izango luke urtegiak, baina jakinarazi du neurriak hartuko dituztela, ez duen arren zehaztu zeintzuk

**LARRIALDI EGOERAN DAGO URKULU, BAINA URA BADAGO, %50 GELDITZEN BAITA ORAINDIK**

izango diren. "Mozketarik, behintzat, ez da aurreikusten. Aspal-di da horrelako neurririk ez dela hartzen".

#### Urte urte aldaketa

Irizarrek azaldu duenez, normalean, martxoa eta apirila dira urtegia betetzeko hilabeterik ohikoena; aldiz, azaroa eta abendua, eta batzuetan baita urria ere, gutxien. Hala ere, joerak ez dira urtero berdinak izaten. "Urte urte aldakorra da. Ez da matematikoa, baina, gehienetan, horrela izaten da". Are, beste urtegiaren ere egoera ez da berbera izaten urtero.

Gaur-gaurkoz, Gipuzkoako gainontzeko urtegi-ekin alderatuta, Urkulu da betetze maila baxuena duena. Hala ere, izan zitekeen beste bat, Irizarren hitzetan. "Hemen inguruan euri gutxi egin du aurten eta iaz.

Beste urte batzuetan, ordea, Ibiur (Baliarrain), adibidez, baxuago egon da, eta Urkuluk maila ona izan du. Baina aurten horrela gertatu da. Ez da joera orokortu bat".

#### Ur emarietako euriak

Betetze mailetan zerk eragiten duen ere gogoan hartzekoa da, eta Irizarrek nabarmendu du euriteak direla eragileetako bat. "Zuzenak, gainera. Zenbat eta euri gehiago egin, orduan eta ur gehiago sartzen da urtegiari; era horretan, maila altuagoa lortzen du". Hala ere, ez da aski

**EURIAK ERAGINA DU URTEGIAN, BAINA BATIK BAT UR EMARIETAN EGITEN DUEN ZENBATEKOAK**

euria egun batean egitea. "Prezzipitazioak urtean zehar nola banatzen diren ere garrantzitsua da. Egundean guztia botaz gero, urtegia, beharbada, ez da dena jasotzeko kapaz izango".

2001etik gaur egunera arteko datuei erreparatu gero, esaterako, azken urteak besteak baino lehorragoak izan daitezkeela antzeman daiteke. Hain justu, Urkulun dago Debagoieneko bost estazio meteorologikoetako bat, eta Euskalmetek hor biltzen ditu datuak. Bada, hor erregistratutakoa aintzat hartuta, gaur-gaurkoz, 2023a –urrira arte, behintzat– urte lehorra izaten ari dela ondorioztatu daiteke. Are gehiago, bi hilabeteren faltan, 2001etik inoizko lehorrena dabil izaten, 683 euri litro pilatu baitira metro karratuko; are nabarmenagoa da abuztuko datua, 7,3 litro jasota. Are gehiago, 2018tik beherantzkoa izaten ari da prezipitazioen kopurua.

Nolanahi ere, Irizarrek azpimarratu du urtegiaren bertan egiten duen prezipitazioez harago begiratu beharra dagoela. "Urkulura datozen errekek jasotzen dutena gogoan izan behar da. Mendian gora hainbat hektareatan jasotzen dute ura, euri gehiago egiten duen lekuetan". Alegia, arreta ur emarietan jarri behar dela dio.

Hain justu, Urbaltz iturbegia, Arbeko–Ugastegi ingurua– erreka eta Eskoriatzako Bolibar auzotik datorrena dira Urkulu urtegiaren ur emari-rik handienak. Hala ere, prezipitazio motaren arabera, ez dute jarri bera izaten. Adibidez, Kurtzebarri mendia- inguruan elurra egiten duenean, sarrera "indartsuagoa" da, Irizarren esanetan. "Elur kasuetan emaria ere poliki-poliki botatzen du".

#### Estazioekin alderaketa


Urkulun, ordea, ez du gainontzeko estazioetan egiten duen euri kopuru bera egiten, eta horren berri izateko, datuak azter daitezke.

Debagoienean bost estazio meteorologiko daude, eta Euskalmetek guztietan erregistratzen ditu prezipitazioak: Urkuluz gain, Arrasate, Aixola, Oñati eta Elorregi. Bada, horietan guztietan jasotako datuak alderatuz gero, ondorioetako bat da 2001-2022 epean euri gutxien Urkulun egin duela. Zehazki, 25.921,6 litro euri pilatu dira

metro karratuko aldi horretan, baina hurrenez hurren du Oñati ere. Hain justu, 26.703,9 litro jaso dira eremu berebean hogeita bat urteko epean. Urtez urte, ordea, tartekatuz joan da bateko eta besteko prezipitazio kopurua: alegia, 2001etik 2013ra bitartean, Urkulukoan bildu zen euri gutxien; 2014tik 2022ra, aldiz, batean zein bestean.

Bi estazio horiek gainontze-koekin konparatuz gero, berriz, esan daiteke Elorregi dela erdibidean dagoena. 28.898,4 litro euri erregistratu dira eremu horretan 2001etik 2022ra, baina gertu du Arrasate ere, 29.733,7 litroekin. Bostetatik eremurik euritsuena, beraz, Aixola da. Guztira, 32.303,5 litro euri jaso dira epealdi horretan, eta, oro har, urtero egon da gainontze-ko estazioetako zenbatekoen gaintetik.

Datuei erreparatuta, ordea, nabarmena da bat: 2013a. Urte-rik euritsuena izan zen Debagoienean estazio guztietako zenbatekoak batuz gero  $-9.672 \text{ l/m}^2$ , eta maximoak ere ordukoak dira denetan. Hala, datuetan adierazten denak bat egiten



du Euskalmeten 2013ko urteko memoriarekin. Haren arabera, "urte oso hezea" izan zen, batik bat neguan pilatutako euriarengatik. "Oso ugaria izan zen, eta ibaieran arazoak ere sortu ziren. Esate baterako, Arrasaten, otsai-

laren 12an, muga gainditzeaz ibili zen".

#### Temperaturei so

Estazio meteorologikoetan tenperaturak ere erregistratzen dira, eta hori ere baliagarri da irakurketarako. Kasu honetan, Urkuluko datuak gogoan izanda, eta arreta batez ere azken lau urteetan jarrira, antzeman daiteke 2001etik 2023ra bitartean batez bestekotik gora daudela hilabete asko. Halere, 2022a da nabarmena. Are gehiago, Urkulun, hogeita bat urteko epean, iaz erregistratu zen tenperatura altuena: uztailean,  $41,2$  gradu egin zituen egun batean.

Datuetan jasotakoa berresten du Euskalmetek ere. Agentziaren arabera, "urte erabat lehorra" izan zen 2022a, gehien bat maiaztetik aurrera "ezohiko beroa" egin zuelako. Kasu honetan, Urkulun erregistratutako tenperaturak aintzat hartuta, maiaztzean,  $16,2$  gradu egin zituen batez beste, 2001-2023 aldikoa baino  $2,31$  gehiago; ekainean,  $18,6 (+1,23)$ ; uztailean,  $20,6 (+1,65)$ ; abuztuan,  $21,4 (+2,11)$ ; eta, iraillean,  $17,7 (+0,53)$ . Hala ere, urria izan zen nabarmena:  $18,4$  gradu izan zen batez bestekoa, hogeita bat urteko aldikoarekin alderatuta,  $3,85$  puntu gehiago.

Datu horien arabera, badirudi uda luzatzen ari dela, eta dagoeneko ez dela irailaren 21ean amaitzen; baizik eta, urrian. Geroz eta beroagoak ari dira izaten, gainera.



June Ansoleaga eta Zuriñe Zulaika, Eguraldia saioko kideak. HIRUKA

## "Dagoeneko, uda hile bat luzatu da; urtaroak aldatzen dabilta"

### JUNE ANSOLEAGA ETA ZURIÑE ZULAIKA

Klimaren bilakaera eta eragina izan dute hizpide

#### A.R.K.

EITBko Eguraldia saioko kideak dira June Ansoleaga kazetaria eta Zuriñe Zulaika meteorologoa, eta klimaren aldaketaz eta fenomenoaz aritu dira hizketan. **Euri falta eta beroa dira 2022 eta 2023ren ezaugarriak. Egia al da?**

June Ansoleaga: Azken urteak oso gorabeheratsuak izan dira euri eskasiarengatik. Bestelakoak diren muturreko fenomenoak ditugu, batez ere Euskal Herriaren hegoaldean. Urtaroak aldatzen dabilta. Ez dugu negu gordin-gordinik edo udaberri euritsurik. Nahiko epelak izaten dira lehen hilabeteak, eta uda luzeagoak ditugu. Dagoeneko, hilabete luzatu da uda.

**Muturreko fenomeno bat da Ciaran. Uda ostean lehertu da.**

Zuriñe Zulaika: Depresiogune bat da, eta haize ufada oso gorrak, itsaso zakarra eta euria ekarri digu azarara. Ziklogene- si leherkorra izan zen, oso denbora gutxian sortua.

**Geroz eta ohikoagoak izango al dira horrelako fenomenoak?**

Z.Z.: Betidanik izan ditugu ekaitz handiak eta uholdeak, baina tenperaturaren igoerarekin eta hezetasunarekin, gehiago izango dira muturreko egoerak.

**Hor daude lehortek ere...**

J.A.: Bai, eta batez ere Arabako hegoaldean eta Nafarroako erdialde-hegoaldean nabari da, Arabako Errioxa inguruan eta Nafarroako Erriberan. Tenperaturari dagokionez, udan, adibidez, bero boladarik handienak

hor erregistratu dira,  $40$  gradura artekoak.

**Desertifikazioa heldu al da?**

Z.Z.: Oraindik urrun gaude Iberiar penintsulako barnealdeko lekuekin alderatuta, baina egoera larrituko da.

**Ondorioz, suteak ere gero eta ugariagoak dira...**

J.A.: Bai. Nafarroan, adibidez, 2022an, San Martin Unx eta Uxue inguruan sute ikaragarriak piztu ziren; egun berean bost baso sute, hain justu. Ez da ohikoa, baina badirudi geroz eta suntsigarriagoak izango direla. Denak du lotura: zenbat eta tenperatura altuagoak izan, orduan eta aukera gehiago baso suteak pizteko. Halere, ez du esan nahi urtero gertatuko denik.

**Egoera irauli al daiteke?**

Z.Z.: Tenperatura igoera, hiri-rieta kutsadura eta biodiversitatearen galera kezka da. Gizakien isuriaren murrizketa handia izan behar da.

J.A.: Atzera ezin dugu egin, baina neurriak hartu ditzakegu etorkizunera begira; esaterako, hiriak birpentsatu behar ditugu. Gobernuek hartu behar dituzten erabakiak dira, baina guk geuk ere aldaketa txiki-handiak egin ditzakegu.

### "TENPERATURAREN IGOERAREKIN ETA HEZETASUNAREKIN, MUTURREKO EGOERAK, GEHIAGO"

## Urkuluren triapak ezagutzen

1979an amaitu zituzten Urkulu eraikitze lanak, baina 1985ean bete zen guztiz. Hamar hektometro kubikoko gaitasuna du eta, gaur-gaurkoz, Antzuola, Bergara, Arrasate, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza, Sorluze eta Elgetak edaten dute Urkulutik. Urte batzuetan, baita Eibarrek ere.

#### Kontrola, araztegitik

Urtegioko uda edangarri bihurtzeko araztegia dute Urkulun, eta hortik kontrolatzen dira hainbat parametro; esaterako, betetze maila. "Sareko egoera ere hemendik behatzen da. Urtegitik plantara joaten da ura, eta bi dira irteerak: bata, Oñati aldera; bestea, Eskoriatza eta Aretxabaletara. Hemendik kontrolatzen dira udaletako biltegi- etako ur sarrerak, mailak eta alarmak ere", azaldu du Aitor Irizar Gipuzkoako Ur Kontsurtzioko Debagoieneko antolaketa buruak.

#### Presa barnea

Irizarren arabera, uraren azpian daude urtegioko balbula nagusiak, giltzen gelan. "Urtegiaren bihotza da. Hor hartzen da ura eta baita hustu ere". Hain justu, lau hoditatz bideratzen dute ura kanpora: bi hornikuntzakoak direla adierazi du, eta etengabe dabiltzala lanean, ura araztegi-eramateko eta herritarren beharrak asetzeko; beste biak, aldiz, urtegia betetzean erabiltzen dira, uholdeak saihesteko.



Irizar, kontrol makinan. OIHANE AGIRRE

# "Datorrena erabileraren aroa izatea nahi dugu"

**JASONE MENDIZABAL** EUSKALTZALEEN TOPAGUNEKO ZUZENDARI OROKORRA Erabileran jauzi bat ematea helburu, bihar, Arrasaten egingo duten III. Kongresuan, datozen hamar urteetarako lan-ildoak onartuko ditu Euskaltzaleen Topaguneak

**Miren Arregi Amasorrain** ARRASATE Euskaltzaleen Topaguneak III. Kongresua egingo du bihar, zapatua, Arrasateko Juan Arzamendi Musika Etxean. Bertan elkartuko dira Topaguneko bazkideak, euskalgintzako eta erakundeetako ordezkariekin batera. *Batera jauzi* izeneko txostenetik abiatuta prestatu du Topaguneak bihar aurkeztuko duen bazkideendako proposamena. Bost lan-ildo ditu, euskararen erabileran jauzi bat ematea xede. Bazkideek izango dute boto eskubidea.

**Bost lan-ildo proposatuko dituzue, erabilera xede. Funtsezko ideia zein litzateke?**

Batera jauzi egiteko elkarlana beharrezkoa izango dela. Harreman askoz ere gehiago behar dugula eta bakarrik ezin dugula. Euskalgintza oro har ahul dago. Gainera, gizarte aldaketa handia gertatu da: desaktibazio orokorra dago, kontzientzia transmisio eten handia ere bai, eta ez-ohiko harremanen bidez aldekatasuna indartzeko beharra dago.

**Estrategia berrikusteko momentua da? Zergatik?**

Lehen gogoetak 2011n eta 2012an egin ziren, eta, hamarkada baten ostean, estrategia berrikusteko beharra ikusi genuen. 100 elkarre bazkide gara Euskaltzaleen Topagunean, bakoitza bere gogoeta eta helburuekin, eta gura duguna da gure oinarri sozialarekin elkartuta, bisio mailako kohesio-ariketa bat egitea.

**Kongresurako proposamena aurre-lanketa baten emaitza da. Batera jauzi jendarte laborategiaren emaitza. Zer da?**

Aldaketaren Teorian oinarritutako jendarte laborategi batek egingo duen ikerketa-ekintza baten emaitza da proposamena, non erdigunean kokatu dugun Elkarrikerketa Talde bat. 2022ko abenduan hasi zen taldea lanean, eta uztailean bukatu zuen lanketa. Hor parte hartu dugu 14 lagunek:



Mendizabal, Euskaltzaleen Topaguneko zuzendari orokorra astean, Arrasaten. M.A

**"BIZIBERRITZEAN ITZELA EGIN DUGU, BAINA BOTILAK ZULOA DAUKA ETA ERRONKAK HANDIAK DIRA"**

5 topagunekok eta beste bederatziz gonbidatuk. Laborategiari galdera bat luzatu genion: "Zein baldintza beharko lirateke euskararen erabileran jauzi bat eman dadin?" Taldeak bost baldintza proposatu zituen, eta horiek dira gizarte osoari proposatzen zaizkionak. Guk, hortik abiatuta, bost baldintza horiek elikatzeko bost lan-ildo proposatu ditugu. **Bihar onartuko dituzte bazkideek lan-ildo horiek. Eta gero, zer?**

Bisio berria onartuko da bihar, eta noski, gero, poliki, egiten joan beharko dugu. Dena batera ezingo dugu egin, baliabideak mugatuak direlako. Kongresuaren esangura da han dauden elkarre guztiek bere egiten dutela han onartzen den bisio berria. Topagunetik proiektu komunak eta tresna berriak landuko ditugu bazkideentzat, eta tokian toki egokitu. Askotariko moduak egon

daitezke, eta tokiko hedabide baten edo tokiko euskara elkarte baten errealitatea oso desberdina da. Beraz, bakoitzaren egiteko modua ere desberdina izango da.

**Euskararen erabileran fokua jartzeak zer esan gura du?**

Euskararen erabileraren aroa izatea nahi dugu, baina, noski, gai hau sistemikoa da. Zer esan nahi dugu? Euskararen garapenak eskatzen dituela motibazioa, ezagutza eta erabilera. Hirurak. Gure irakurketa da ezagutzen asko inbertitu dugula eta beharrezko egiturak baditugula. Euskaltegi sareak eta hezkuntza sarea, bereziki. Halere, badago non lan egin, hori Erkidegoan bermatuta baitago, ez ordea, Iparraldean eta Nafarroako zenbait zonaldeetan. Gertatzen dena da euskalduntze prozesu hori osatuko dela erabilerak bere lekua badauka. Dentsitate bat baldin badago, ikasten ari den horrek euskara erabil dezan. Horregatik esaten diogu erabileraren aroa, ikasketa prozesu horrek eskatzen duelako hiztun horrek izatea komunitatean, auzoan, aisialdian edo tokian toki erabilera espazioak. Eta hori da gure tragedia-

rik handiena, eskolan ikasten dutenek lanean ezin euskaraz egin ahal izatea, adibidez.

**Oinarrietako bat elkarlana dela diozue. Tokian toki harreman sareak sortzen joatea?**

Bai. Euskaldunok argi daukagu jende gehiago euskalduntzea behar dela. Batzuk ez dira heltzen prozesua burutzera, eta soziolinguistikak dio jende gehiago behar dugula. Baina kokatu gaitezene beste aldean. Etorrinek, erdaldunek, zein tresna dute horretarako? Zein behar dituzte? Zein erraztasun eskaintzen ditugu? Zer behar du komunitateak? Ez da nahikoa txosten batean jartzea. Euskara bera bizitzeko tresnak behar dira. Beste lan-ardatz batak dio, esaterako, euskaldun eta euskaltzale izatearen iruditeria zabaldu behar dela. Zer da gaur egun euskaldun izatea? Euskaltzale izatea? Nola bizi dute etorkinek? Nola ikusten gaituzte erdaldunek? Nola egin datozen beste era bateko euskaltzaleek lekua izan dezaten? Komunitategintzan asko inbertitu beharra daukagu.

**Zein garrantzi du zapatukoak Topaguneari?**

Etapa berri baten behararen kontzientzia daukagu, eta hori guretzat oso garrantzitsua da. Esango nuke, bestetik, zenbait elkarterendako oso urrun dagoen zerbitu ere badela: kongresuak, txostenak... Oso era desberdinetako elkarrekin ditugu. Kongresu ondoren gu jaitsiko gara herrietara. Gizarte eraldaketa handi bat gertatzea da euskararen erabileran jauzi bat emateko premisa, eta gugandik hasi behar da aldaketa. Muinetik hurrengo geruzetara egingo dugu.

**Euskaldunok badugu ezkor izateko joera bat... Baina lorpenak ere izan dira, ezta?**

Galera prozesu ikaragarri bat izan zen Euskal Herrian, bortxaz gertatu zena. Bestalde, kontuan izan behar dugu hizkuntza gutxituen biziberritze eta berreskuratze esperientzien artean euskaldunona dela garatuenerikoa, askorentzat eredu. Eta, era berean, zein zaila den, ezta? Dena ikusi behar da. Itzela egin dugu, baina botilak zuloa dauka. Erdi bete da dagoen, erdi hutsik... berdin da. Zuloa dauka, eta zulo horiek tapatzeko, transmisio mailan, erabileraren mailan, lankidetzan mailan eta gobernantza mailan erronka handiak ditugu.

## Arizmendiarrietaren balioak, hainbat hitzalditarako bide

Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarrekin antolatuta, bi hitzaldi egingo dira azaroaren 22an, 18:30ean, Goi Eskola Politeknikoan. Batean, Gurutz Linazasoro neurologoa zahartzearen erronkarak arituko da. Bestean, Apurva San Juan ekintzaile eta LUP Kooperatibako *co-funder*-ak belaunaldien arteko lankidetzaren beharrez egingo du berba. Bestetik, Arizmendiarrietaren Kristau Fundazioak eta Arrasateko San Joan Parrokiak antolatuta, Arizmendiarrietaren ikuspegi etiko eta espiritualean oinarritutako gogoeta topaketak martxan dira Kulturaten. Astean, *Giza garapen integrala eta Agenda 2030* hitzaldia egin dute, eta datozen bi asteetan, hitzaldi bana egingo dute; azaroaren 21ean, *Lan duina* eta *Arizmendiarrietaren* mintzaldia egingo du Jesus Mari Herrastik; eta azaroaren 28an, *Arizmendiarrietaren aurkezpena* izenburupean, Saturnino Gamarra eta Jose Ignacio Garate arituko dira. Guztiak izango dira 19:00etan.

## Kanpanzar harrobian egingo den dokumentala, Arrasaten ikusgai

Debagoieneko Ezker Kultur Gu- neak eta La Fec Fundazioak antolatuta, *Cuelgamuros y la historia inexplicable* dokumentala aurkeztuko dute Arrasaten, azaroaren 23an, eguena, 18:30ean, Kulturaten. Ikus-entzunezkoak Cuelgamuroseko Haranean –2022ra arte Erorien Harana izan zen horretan– gertatutakoak kontatzen ditu, Monasterioko eskolanian bizi izan zen mutiko baten begietatik. Dokumentalaren zati bat Kanpanzarko harrobian grabatu zen, eta 30 bat debagoiendarrek hartu zuten parte. Hain justu arrazoi horregatik, dokumentalaren zati bat (40 minutu) Arrasaten estreinatuko dute.

Bestalde, proiektioaz gainera, hitzaldia ere egingo da egun horretan, hain zuzen ere, ikus-entzunezko lana zuzendu duen Pepe Galanen, Julieta Serrano produktorearen eta Arabako Ateneo Errepublikarrek presidente Jose Mari Palacioren eskutik.



Instituzio publikoetako ordezkariak kanpaina aurkezten. EUSKO JAURLARITZA

## Pornografiaren arriskueta jarri dute fokua euskal erakundeek

Azaroaren 25aren harira kanpaina bateratua egin dute euskal erakundeek; bailaran ere egingo dira ekintzak

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARRASATE Emakumeen Kontrako Indarkeria Matxistaren Nazioarteko Eguna da azaroaren 25a; bada, horren bueltan, askotariko ekintzak antolatu dituzte bailaran. Ekintzak askotarikoak izan arren, aurtan ere, kanpaina bakarra atera dute EAEko instituzio publikoek: gazteen sexu hezkuntza pornografiaren esku uzteaz ohartarazi dute, hain zuzen.

*Pornoa emakumeen aurkako indarkeria eskola bat da* leloa aukeratu dute kanpainarako, eta zenbait datu nabarmendu dituzte: eszena pornografikoen %88,2k emakumeen aurkako indarkeria fisikoa edo hitzezkoa adierazten du; pornoarekin lehen kontaktua 12 urterekin izaten dute; eta nerabeen %33,4k uste du pornoak eragin handia dela euren sexu-harremanetan.

### Kalitatezko sexu-hezkuntza

Emakundeko zuzendari Miren Elgarresta: "Ezin dugu onartu indarkeria, umiliazioa eta emakumeen menderatzea erotikoa eta natural bihurtzea; ezta sexua indarkeriarekin nahastea ere; ezta inor behartuta egotea ere bere sexu-praktiketan nahi ez dituen gauzak egitera".

Elgarrestaren hitzetan, gazteek "kalitatezko sexu-hezkuntza jasotzeko eskubidea dute". Gogorarazi duenez, Emakunde, besteak beste, hezkuntza afektibo-sexualean adituak diren pertsonekin lan egiten ari da Jakitun programaren barruan,

eta "gehien kontsumitzen den pornografia, indarkeriaz beteta egoteaz gain, estereotipo eta aurreiritzi arrazista eta sexistez ere beteta dagoela ohartarazten digute".

### Bailara mailako ekintzak

Azaroaren 25a zapatua izango da, eta hainbat ekitaldi egongo dira bailarako herrietan. Arrasaten, mugimendu feministak mobilizazioa egingo du 13:00etan. Bergaran, 12:00etan, Martxanterek antolatuta, manifestazioa egingo dute; Movember Gara manifestaziora batu da. Aretxabaletan, 18:30ean, manifestazioa egingo dute plazan; eta, egunean zehar, emakume sortzaileen azoka, bazkari feminista eta *Ez da kasualitatea* bertso-saioa izango dute. Eskoriatzan 19:00etan egingo dute elkarretaratzea. Antzuolan, 19:00etan, Herriko Plazan elkarretaratzea egingo dute, eta 20:00etan, Bilau taldearen kontzertua egongo da, Torresoroan. Aramaion 18:00etan egingo dute elkarretaratzea; horrez gain, azaroaren 23an, 18:00etan, *Nola kudeatu pornoa familian* hitzaldia egingo du Emaize Sexologia Zentroak. Elgetan, hilaren 24an, *Genero indarkeriaren biktimarioa eta biktima ezagutzen* hitzaldia.

**ESZENA  
PORNOGRAFIKOEN  
%88K EMAKUMEEN  
AURKAKO INDARKERIA  
ERAKUSTEN DUTE**

# Azaroaren 30eko greba antolatzekeko bilerak

Hego Euskal Herriko mugimendu feministak hainbat sindikaturekin batera greba feminista orokorra deitu du azaroaren 30erako. Zaintza lanetan jarri dute fokua, eta zaintza lan horiek "eraldaketa sakona" behar dutela aldarrikatu dute, besteak beste

### A.E.G. ARRASATE

Azaroaren 30erako deituta dagoen greba feminista orokorra antolatzekeko batzarrak egiten hasi dira dagoeneko bailarako mugimendu feministak. Gaur, barikua, Aretxabaletan, greba feminista orokorraren bueltako ekitaldiak zehazteko bilera ireki mistoa egingo dute. Udaletxe zaharrean izango da, 18:00etan. Bergaran, berriz, gazteei zuzendutako asanblada irekia egingo dute Irizar jauregian: zein izango den gazteen rola eta nola parte hartu dezaketen hausnartuko dute, besteak bestea. Azaroaren 21ean eta 28an, Oñatiko Antixena gaztetxean, grebari

buruzko bilera egingo dute, 18:30ean.

Aramaioko talde feministak zehaztuta dauka azaroaren 30eko egitaraua. Eguna auto karabanaekin hasiko dute; ondoren, hamaiketako ia izango dute, eta manifestazioa 12:00etan, frontoian hasita. Bazkaria Sastiñan egingo dute, eta arratsaldean Arrasaten -18:00etan- egingo den manifestaziora joango dira.

### Zaintza sistema

Hego Euskal Herriko mugimendu feministak, ELA, LAB, Steilas, ESK, EHNE, Etxalde eta CGT sindikatuen babesarekin deitu du azaroaren 30eko greba

orokorra. Zaintza lanak izango dira grebaren oinarria eta zaintza lan horiek "eraldaketa sakona" behar dutela diote. Zaintza duinen unibertsaltasuna eskubide gisa aitortzea eta bermatzea aldarrikatuko dute; eta zaintza zerbitzuetan pribatizazioarekin amaitzea exijituko dute; sistema publikoa garatu eta indartu behar dela nabarmendu dute, eta etxez etxeko zerbitzua indartu eta garatu beharra; zaintza lanak transbertsalki landu beharra ere aldarrikatu dute; hezkuntzan, osasungintzan eta lan eremuan. Jendarte osoa interpelatu nahi dute, zaintza guztion ardura dela aldarrikatuz.



DEBAGOIENEN  
**PROFESIONAL  
LIBERALAK**



**ABOKATUAK**

**BERNARDINO MAIZTEGI**  
BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

**BEGOÑA LASAGABASTER**  
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
Tel.: 943 79 98 86  
blasaga@icagi.net

**RAFAEL ARANBURU**  
BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

**ARKITEKTOAK**

**BIARK ARKITEKTOAK**  
ARRASATE  
Usaetxe plaza 1, behea  
Tel.: 943 79 80 33  
www.biark.net

**AHOLKULARITZAK**


**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**  
ARETXABALETA  
Araba ibilbidea 20, behea  
Tel./Faxa: 943 79 29 26  
andrama@arrakis.es

**ALBERDI ASESOREAK**  
BERGARA / Matxiategi 36  
Tel.: 943 76 90 83

**ETXE  
ADMINISTRAZIOAK**

**URIBESALGO  
ADMINISTRAZIOAK**  
ARRASATE  
Pablo Uranga 3, behea  
Tel.: 943 79 51 25  
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.



Patxi Olabarria, bere *Antzuolako armariaren alardea* liburuarekin. AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ KORTABARRIA

## Sinbologiak herrian duen garrantzia hizpide

Martxoan argitaratu zuen Patxi Olabarria antzuolarrak *Antzuolako armariaren alardea* liburua, eta hori oinarri hartuta sinbologiak Gipuzkoan duen garrantziaz arituko da Nabarralde Fundazioak Hernanin, azaroaren 25ean, antolatu duen jardunaldian

**Julen Murua Mesonero** DEBAGOIENA Nabarralde Fundazioak *Gipuzkoako armaria: Iraganean, orainean eta etorkizunean* jardunaldia antolatu du Hernaniko Biteri Kultur Etxean. Jardunaldi horietan ponentzia ezberdinak izango dira eta, hizlari horien artean, Patxi Olabarria antzuolarra izango da. Olabarria, baina, ez da debagoiendar bakarra izango jardunaldi horretan; izan ere, Iñaki Idigoras eta Iñaki Olalde oñatiarrak eta Bergara Dekolonizatu taldeko kideek ere parte hartuko dute ikurrak eta nortasuna berbagai izango dituen mahai-inguruan.

Idigoras Nabarralde Fundazioako kidea da, eta adierazi du, jardunaldiaren izenburuak dioen bezala, "sinbologiak iraganean izan zuen, orain duen eta etorkizunean izango duen garrantzia" plazaratzea dela jardunaldiaren helburua. Hau guztia antolatu da 1979an Gipuzkoako armariatik kendu ziren hamabi kanoiak –gero, lurraldeko herri ezberdi-

netako armarietatik ere kendu ziren– berriro ere agertu direlako Hernanin kokatu duten armari batean, eta horrek eztabaida berriro sorrarazi duelako. Hori aprobetxatuz, debagoiendarrek ere horrekin lotutako gaiak jorratuko dituzte.

**Debagoiendarren parte-hartzea** Antzuolako armariaren inguruko liburu bat argitaratu zuen Patxi Olabarria martxoan, eta, marko hori kontuan izanik, sinbologiak duen garrantziaz eta eman beharko litzaiokeen garrantziaz mintzatuko da hitzaldian. Hasiera batean Antzuolako armariaren aldaketa prozesuaren inguruan soilik mintzatu behar zen Olabarria (berak

**OLABARRIAK HITZALDIA ESKAINIKO DU; GERO, BAILARAKO ORDEZKARIAK IZANGO DIRA MAHAI-INGURUAN**

idatzitako liburua oinarri hartuta), baina ikertzen jarraitu ahala, Gipuzkoako armariaren inguruko informazioa batu eta horren inguruan ere mintzatu da; beraz, herriko sinbologiaz haratago doazen kontuez mintzatu da, beti ere, sinboloek duten garrantzian oinarrituz.

Olabarria eta gainontzeko hizlariak eskainiko dituzten hitzaldien ostean, mahai-inguru bat antolatuko da, non parte hartuko duten herriko ikurren inguruan izandako eztabaida-prozesuetako eragileek; horien artean, debagoiendar batzuk izango dira, hala nola Iñaki Idigoras eta Iñaki Olalde oñatiarrak eta Bergara Dekolonizatu taldeko kideak. Jardunaldi guztian zehar jorratuko diren gaietan oinarrituko da mahai-ingurua; zehazki, hizpide izango dute herriaren eta herrietako nortasuna eraikitzen duten hainbat ikur; esate baterako, toponimia, kale izendegia, patrioiak edota ereserkiak.

## Zapatuan Bilboko kaleak betetzeko deia egin du EH Bilduk

Euskal Herriak "arazo nazionalentzako irtenbide demokratikoa" eskatu behar duela adierazi du alderdiak

**Julen Murua Mesonero** DEBAGOIENA Azken urteetan egin bezala, aurreko EH Bilduk "kaleak bereak egiteko" gonbita luzatu, eta bihar, zapatua, egingo den manifestazio nazionalerako deia egin die euskal herritarrei Arnaldo Otegi, "arrakasta handia duen mobilizazioa" dela adieraziz. "Azaroaren 18rako gertaera politikoak" egongo direla badakitela adierazi du Otegi, eta, ondorioz, "manifestazio nazionalera" deitu ditu euskal herritarrek, "badagoelako datozen hilabeteetan estatu espainiarrean garatuko den eztabaida zentral bat: lurralde auziari dagokion eztabaida".

Manifestazioa deituz garrantzia handia du Otegiarentzat, lurralde auziaren eztabaida dela-eta, Euskal Herriak duen paper zentrala aldarrikatzeko. Horregatik, euskaldunak gonbidatu ditu "data hori gordetzera Bilbon euskal nazioak kaleak hartuko dituelako aldarrikatzeko arazo nazionalerako irtenbide demokratiko bat eman behar zaiela".

### Arrasateko EH Bilduren deia

Arrasateko EH Bilduk ere, Milder Morrasede sinatutako ohar bidez, "herritarrek kalera ateratzeko" eskaera egin du, "gure herri interesak defendatzera". Gainera, adierazi du "inoiz baino garrantzitsuagoa" dela "euskaldunok, gure naziotasunaren errespetua aldarrikatu eta herri gisa etorkizunera begira jarriko

gaituen ibilbide propioaren aldeko hautua egitea", eta, horrela, euskaldunei gonbita egin die "bizi-bizirik eta sendo gauden herria garelako ozen" aldarrikatzeko eta "Bilboko Autonomia kalea Nazio hiru osatzen dugun herrikidez betetzeko". Horrez gain, aitortu du "alderdi interes gaitetik" begiratu behar zaiola Euskal Herriak bizi duen une politikoari, eta "egoera honek eskatzen digun mailan aritzea" dagokiela euskal herritarrei.

Gaur egun, "garai zailtan argi izpiak non dauden ikusten asmatu" behar dela eta euskaldunok "etorkizunari begirako agertoki herriak zabaltzeko aukera ederra" dutela ere adierazi du, "Euskal Herriko bizikidetzan eta bakegintzan aurreratzeko, politika sozioekonomiko aurrerakoia artikulatzen jarraitzeko eta nazio auziaren inguruko eztabaidari behingoz heltzeko" asmoz.

### Bailaratik autobusak

Bailarako hainbat herritatik ere egin die EH Bilduk herritarrei zapatuko manifestaziora joateko deia. Eta horretarako, autobusak antolatu dituzte bailarako herri horietan guztietan. Arrasate eta Oñatitik, esaterako, goizeko 10:30ean eta, arratsaldean, 15:00etan irtengo dira autobus bana. Bergara, Antzuola, Aretxabaleta eta Eskoriatatik ere irtengo dira herritarrek zapatuan Bilboko kaleetara eramango dituzten autobusak.

## Ikasturte hasierako ekitaldia egingo du Bergarako UNEDek

Urtero bezala, Bergarako Udalteko Osoko Bilkuren aretoan ospatuko da gaur arratsaldeko 19:00etan hasita 2023-2024 ikasturte akademikoaren hasiera ekitaldia.

Ekitaldi akademikoa Gorka Artolak, Bergarako alkateak, hasiko du agurra emanez, eta jarraian Iñaki Esparza Bergarako UNEDeko zuzendariak

aurkeztuko du ekitaldia. Carlos Larrinagak *Algunas claves para entender el nuevo orden mundial* irekitze-hitzaldia eskaini ostean, diplomak banatuko dituzte, eta agintariak mintzaldiak eskainiko dituzte: Eider Mendozak, Gipuzkoako diputatu nagusiak, eta Ricardo Mairalek, UNEDeko errektore nagusiak, hain zuzen ere. Agintariak mintzaldia eskaini eta gero, Bergarako Musika Eskolako hari taldeak emanaldia eskainiko du ikasturte berriko ekitaldia amaitzeko.

# Goienakide 2024 paretako egutegia **Debagoiendarron egutegi osatuena**



Debagoieneko argazkilariek ateratako argazkiak.

+ Neurri egokia, tokia jantzi dezan traba egin barik: 245 x 368 mm.

+ Argazki-buelta zuria, edozein paretatan ondo eman dezan.

Debagoieneko egun seinالاتu guztiak jasotzen dituen egutegia egin dugu **lehenengoz**, eta azaroaren 24an jasoko duzue **Golenakideek** etxean.\*



**2** ale Golenakide bakoitzak

Bi ale jasoko dituzue bakoitzak. **Horrela, ale bat opari egin ahal izango diozue zuek nahi duzuenari.**

\*Aste horretan ez da "Puntua" aldizkariaren alerik banatuko.

## Maiatza Loraila

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31
Eremitak					Eremitak					Eremitak					Eremitak					Eremitak										

Hil-izena, euskalkian.

Efemerideak.

Debagoieneko herrietako eta auzoetako jaiak.

Egun bereziak.

Esaera zaharrak.

Euskal Herriko jalegunak.

Ilargiaren aldiak.

Tenporak.

Aurreko eta osteko hilen egutegia.



+ Barruan, Debagoieneko lanbideen gaineko 10 orrialdeko erreportajea.



**goiena kide**  
 Okm: batzen gaituen distantzia





ZABALIK

IGOR ARIZMENDIARRIETA

## Teletestuari betiko adio

Duela gutxi entzun nion Andoni Aizpuru ETBko eguraldi gizonari eguraldi txarra zer zen berak ez zeukala argi. Bizi garen garaietan eguraldi ona orain arte eguzkiarekin eta eguraldi atsegina izatearekin lotzen genuela aipatzen zuen. Baina zergatik ez deitu eguraldi ona egun euritsu bati edo jarraian egon daitezkeen hainbat euri eguni? Hausnarketa hau egiten zuen Andonik. Eta ez zitzaion arrazoirik falta; lurrak eskertuko luke eguraldi on hau, nekazariak ere bai, animaliek ere bai... Altxor bat bezala ikusi beharko dugu hemendik aurrera ura izatea. Eta hemen ur arazoak baditugu, zer esan Nafarroatik behera. Klima aldatzen ari da. Ez dut gauza berririk deskubritu. Txarrena da lehorte eta berotze efektuak areagotuz doazen bitartean gure agintari eta politikariak neurri

### ERABAKIAK HARTU BEHAR DIRA ETA EZ DAGO ITXAROTERIK. ETA BERANDU GABILTZA

zehatz eta berehalakorik ez dutela hartzen.

ETBra bueltatuz, ETBk bere kanaletako Teletestu zaharkituari baino kasu gutxiago egiten diote klima-aldaketari gure

agintariak. Eta hori kezkatzekoa da –klima-aldaketarena, ez Teletestu kasu gutxiago egiten diola ETBk-. Lehengo egunean, ETBk Teletestu aiaiera-data jarriko diola entzun nuen, eta ez dakit, ba, gu ere ez ote gauden lurreko bizi iraupenari ere aiaiera data jartzten, oharkabea. Erabakiak hartu behar dira eta ez dago itxaroterik. Berandu gabiltza. Ez nintzateke harrituko ikastetxeetan Hezkuntzako arduradunek besapetik ateratako Klima-aldaketa izeneko arlo bat ezarriko balute Matematikaren maila berean. Non irakasleek ikasleek klima-aldaketaren gainean hezi beharko lituzketen. Klima-aldaketaren inguruko ikas egoera eta arazo egoerak lantzen jardungo lukete ikasleek. Agintariak egiten ez dutena. Horrela bereganatuko dituzte ikasleek Hezkuntza Legeak aipatzen dituen eguneroko bizitzarako konpetentziak. Bitartean, gu, agintari inkompetente hauen agindupean.

## MARRAZKIZ

### UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Errezitatiboa (edo nor da nor)

**NEREA LOIOLA**  
**'BERRIA'-N ARGITARATUA**

[HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/](https://www.berria.eus/)  
PAPERKOA/1892/022/002/2023-11-16/  
ERREZITATIBOA-EDO-NOR-DA-NOR.HTM

Liburu bat esku artean, bi emakumeren aldizkako adiskidetasun baten istorioa. Twyla eta Roberta. Hasieratik dakizu bata beltza dela eta bestea zuria, baina ez da inongo momentutan zehazten nor den nor; interpretazioaren atea erabat zabalik dago. Berehala ohartzen zara zure estereotipo eta espektatibekin jolasten duela idazleak, trebezia aurpegiratzen dizu arraza testuinguruaren eta

begiradaren arabera eraikuntza soziala dela. Bataren amak gaua dantzan pasatzen duela irakurtzen duzu eta ondorioztatzen duzu seguruenik hura izango dela beltza; berehala, ordea, bestearen familia pobregoa dela jakiten duzu eta etiketak trukutzen dituzu.

Emakume idazle afro-amerikarren antologia batean argitaratu zen, 1983. urtean, Toni Morrison Nobel saridunaren ipuin bakarra: *Recitatif*. Errezitatiboa, opera eta antzerako musika-lanetan erabiltzen den konposizio forma bat da, musikarekin lagundutako hitzaldi melodiko moduko bat.

[...]

"Nor da beltza?", eta, ondoren: "Zer axola dit horrek?". Azken horri heldu eta irakurtzen jarraitzeko agintzen diozu zeure buruari, baina berehala itzultzen da saihestu nahian zabiltzan galdera: "Twyla edo Roberta?". Madarikatzen duzu Morrison, zuk europar feminista zuri horrek, arrazismoa gauditutako ikasgaitzat zeneukan horrek, ispilu aurrean jarri dizulako burua etiketaz eta markaz eta kolorez josia duzula oraindik ere; bere erruz sentitzen duzulako halako nahi kontrolaezin bat bi emakumeetatik zuria nor den jakitekoa. Baina, bereziki, beltza nor den jakitekoa.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Monika Belastegi.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantzabal.  
Eduki zuzendaria  
Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.  
Administrazio zuzendaria  
Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa

arduraduna  
Igone Osinaga.

#### Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
Maketazioa  
Imanol Soriano,  
Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
Publizitatea  
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

#### Administrazioa

Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

#### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X  
Tirada: 18.500 ale  
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

#### LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagakako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



## GUTUNAK

**Nortasunaz,  
euskalduntasunaz****JON AZKOAGA UGALDE**

ARRASATE

Gizakiok izaki sozialak gara eta taldearen beharra dugu bizirik irauteko. Gizabanakoa garrantzitsua bada ere, ez da ezer gainerakorik gabe. Gizabanakoz gizabanako osatzen da komunitatea. Gutako bakoitzak komunitate horiek sortzen laguntzen dugu. Beraz, identitate kolektiboaren sorreran parte hartzen dugu norbanakook. Komunitatean izaten diren hartu-emanek Gutasunaren eraikuntzan garrantzi handia dute.

Beraz, identitatea sozialki eraikitzen den zerbait da. Gutasuna ematen diguna. Nor garen zehaztuko duena. Eta gizakiok eraikitzen dugunez, ordezkatu ere egin dezakegu. Beraz, kolektiboaren identitatea sortu eta landu beharreko kontua da. Sinboloek, ezaugarriek, hizkuntzek, moduek edo tradizioek komunitateak beharrezkoa duen nortasuna garatzen laguntzen dute. Horiek landu ezean, ordezkatu egingo dira. Ordezkapen kulturala gertatuko da: asimilazioa.

Futbolaren adibidea aipatzeko modukoa iruditzen zait. Gero eta gaztetxo gehiago ikusten ditut Paris Saint Germainen edo Real Madrilen kamisetekin.

Realeko edo Athleticen kamisetak jada ez dira hain ohikoak Hego Euskal Herriko plaza eta eskoletan. Pertinentzia sentimendua aldatu egin da. Gaztetxo horiek ez dute haien burua bertako taldeekin identifikatzen eta atzerrira jo dute identifikazio bila, nortasun bila.

Euskalduntasunarekin ere antzeko fenomenoak gertatzen ari dela uste dut. Esango nuke gero eta jende gutxiago identifikatzen dela euskalduntasunarekin, eta gero eta gehiago atzerriko ezaugarriekin. Gure markoa ere, mundua nondik eta noraino ikusten dugun, aldatzen ari dela iruditzen zait.

Gainera, gizakiok berezkoa dugu zerbaiten/norbaiten parte sentitzea. Komunitatetik at gizakiok ez dugu izaterik eta etengabe bilatuko dugu kolektiboaren onarpena: nor izan. Bestela, gureak egingo du. Horrexegatik, ordezkapen kulturala gerta daiteke, bata ez bada bestea izango delako. Euskalduntasunik ez bada, beste batzuk izango direlako.

Nortasun kolektiboa, gainera, bada gizakion ongizaterako gakoetako bat. Kolektiboaren parte ez izateak pertsonoi zuzenean eragin diezaguke. Gizakiok animalia sozialak gara eta kolektiboa behar dugu bizirauteko. Eta euskalduntasunak, nortasun

kolektibo gisa, berebiziko garrantzia izan lezake pertsonen ongizate emozionalean. Identitatea Gutasuna da, zerbaiten parte izaten laguntzen diguna.

Euskalduntasuna sustatzea interesgarria litzateke ordezkapen kulturalik gertatu ez dadin eta pertinentzia sentimendua indartu dadin, guztiok barnebiduko gaituen euskalduntasuna. Gure etxea.

**Nazioa gara,  
Debagoienetik Bilbora!****MAIDER MORRAS AZPIAZU**

ARRASATE

Une erabakigarriak bizitzea egokitu zaigu, aldaketan aroan murgilduta gaude, bizi hobe baten esperantzak inboluzioarekin talka egiten duen garaian. Hori dela eta, inoiz baino garrantzitsuagoa da orain eta hemen, euskaldunok, gure naziotasunaren errespetua aldarrikatu eta herri gisa etorkizunera begira jarriko gaituen ibilbide propioaren aldeko hautua egitea. "Pirinioen bi aldeetara abesten eta dantzaten den herria" ginela zioen Victor Hugo idazleak, eta larunbatean, kantatu eta dantzatzeaz gain, bizi-bizirik eta sendo gauden herria garela ozen aldarrikatuko dugu, dantzatu eta kantatzeaz gain, pentsatu, ikertu, eraiki, berritu, lan egin eta sortzen

dugun herria garela lau haizeetara esateko, eta Bilboko Autonomia kalea Nazio hau osatzen dugun herrikidez betetzeko.

Garai zailetan, ordea, argi izpiak non dauden ikusten asmatu behar dugu, etorkizunari begirako agertoki berriak zabaltzeko aukera ederra daukagulako gure aurrean: Euskal Herriko bizikidetzan eta bakegintzan aurreratzeko, politika sozioekonomiko aurrerakoiak artikulatzen jarraitzeko eta nazio auziaren inguruko eztabaidari behingoz heltzeko.

Horiek baitira herri gisa gaur eta hemen ditugun premiazko erronka nagusiak eta lehenbailehen erantzun bat behar dutenak. Alderdi interesen gainetik begiratu behar diogu Euskal Herriak bizi duen une politikoari, eta egoera honek eskatzen digun mailan aritzea dagokigu guztioki.

Aurrera egingo badugu, ezinbestekoa da gure pulsu soziala indartzea, herritarrak kalera atera eta gure herri interesak defendatzea. Aurrean daukagun erronka itzela da eta gogoeta hitz hauek baliatu nahi nituzke debagoiendarrak larunbaterako, azaroak 18, EH Bilduk Bilbon deitu duen manifestazio nazionalen parte hartzera gonbidatzeko. Bilbon dugu hurrengo geltokia, nazioa garela aldarrikatzeko eta espainiar

zein frantziar estatuetan nazio auziaren inguruko eztabaida sosegatu bezain anbiziotsuari lehenbailehen ekin behar diogula aldarrikatzeko.

**Zalaparta gutxi****JOSU GARITAONANDIA**

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA BERGARA

Udan zalaparta handia atera duten albisteak izan dira; ez diet haiei oihartzun handiagorik emango.

Espainiako Gobernuan Nadia Calviñok zuzentzen duen arloak 2030ean enkantera irten behar zuena 2040ra atzeratzea erabaki du; onuradunak, Telefonica, Orange, Vodafone eta Masmovil. Hau da, telekomunikazio negozioan dauden handiak.

Alde batetik, telekomunikaziotan erabiltzen diren erradiazioek gizakiei eta naturari kalteak eragiten dizkiete; ondorioz, gaixo gehiago daude eta diru gutxiago haien beharrak atenditzeko; eta, bestetik, demokrazia kaltetua irten da, telekomunikazioko enpresa txikiak baztertuak izan dira.

Hauteskundeak pasa berri eta behin-behineko Gobernuak horrelako erabakiak hartzeak, oposizioaren eta hedabide nagusien isiltasunean, ustel usaina banatzen du ustezko Espainiako demokrazian.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## HAUXE BAI JENEROA!

**GARBINE UBEDA**



Arrasateko Euskal Herrian Euskaraz taldekoak, Jai-zale tabernan, haiek gestionatu zutenean. EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

## Euskal Herrian Euskaraz desagertu da Arrasaten

Arrasateko EHE taldeak bere desagerpenaren berri eman du; "horren arrazoi nagusia da azkenaldian lauzpabost taldekide bakarrik ginela; gehienok, gainera, bestelako konpromiso eta betebeharrak ditugu; taldeari ezin diogu behar duen denbora eskaini"

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Arrasateko Euskal Herrian Euskaraz taldeko kide izan den Aitor Juaristik dio azken urtean ezin izan dutela aurrera eraman proiekturik eta ez direla gai izan "kalitatezko lan dinamika egoki bat" edukitzeko. "Elkartzeko arazoak genituen. Ez dugu uste gauzak erdizka egiten ibiltzeak zentzurik duenik eta, beraz, taldea uztea erabaki dugu. Fase hau ixteko momentua iritsi dela uste dugu, baina badakigu Arrasateko euskalgintzak indartsu jarraitzen duela, zorionez, askotariko taldeak baititugu: AED, Txatxilipurdi Elkarte, Ekin Emakumeak Elkarte, ikastetxeak, AEK, Emun eta abar. Horrek lasaitasuna ere ematen du, herria ez baita geratuko euskalgintzaren aldeko talderik barik", nabarmendu du.

Modu horretan, 2000. urtean abiatutako ibilbideak eten bat izango du. Edozelan ere, eten hori behin-behinekoa izango dela uste du Juaristik. "Ez da-

kigu urtebete barru izango den, edo bost urte barru, baina ziur gaude taldea itzuliko dela, gurekin edo beste lantalde batekin. Mila esker emandako babes eta laguntzagatik", gaineratu du.

### Eguneroko lan txikia

Hogei urtetik gorako ibilbidean, "lan handia" egin du taldeak eta "jende asko" aritu izan da lanean urte horietan guztietan. "Eguneroko lan txikia egin dugu", nabarmendu du Juaristik. "Kartelak, pankartak, euskararen aldeko mezuak, *Euskaraz bizitzera goiaz* abestia, eta bestelako ekintza txikiak ere bai. Gure helburua zirikatzeko izan da, eta aldarrikatu beharreko mezuak aldarrikatu izan ditugu. Adibi-

**JUARISTI: "AZKEN URTEAN EZ GARA GAI IZAN KALITATEZKO LAN DINAMIKA EGOKI BAT EDUKITZEKO"**

dez, udaltzainek euskararekiko zuten jarrera kritikatzeko beharra ikusi genuenean, kritikatu egin genuen, eta horrela jokatu izan dugu osasungintzarekin edo beste arlo batzuekin ere". Halaber, Arrasateko euskalgintzaren eragile den Geiken ere egon da orain arte Euskal Herrian Euskaraz, baita *Euskaldunon hizkuntza eskubideen aldeko Arrasateko protokoloa*-n ere.

### Euskalgintzaren taberna

Jai-zale taberna izan zuten garaia ere aipatzekoa da. "Euskalgintzaren taberna izan zen, guk gestionatua. Horrez gain, herriko eragile guztientzako espazioa ere izan zen, ekintzak egitekoa", adierazi du Juaristik.

### Ondo gordetako artxiboa

Artxibo bat ere badute gordeta, askotariko materialarekin: argazkiak, aktak, plangintzak, proposamenak eta abar. "Pentsatzen ari gara zer egin material horrekin guztiarekin".

## Baserritar gona eta amantala egiteko ikastaroa abenduan

Ekin Emakumeak Elkarteak antolatuta, bi saio egingo dituzte, abenduaren 1ean eta 15ean, Ane Albisurenkin

### E.A.B. ARRASATE

Ikerfolk elkarteko Ane Albisuren eskutik, santamasetarako jantziak egiten ikasteko aukera egongo da abenduaren 1ean eta 15ean, 16:00etatik 20:00etara, Ekin Emakumeak Elkartearen lokalean. "Gona eta amantala egiten irakasteaz gain, jantziaren beste elementuei buruzko jarraibideak emango ditu. Era berean, gai honi buruzko hainbat testu idatzi dituen irakasle honek bere ikerketetan jasotako informazioa igorriko du", azaldu dute antolatzaileek.

Izena emateko, hiru bide daude: elkartearen lokalean bertan (Pablo Uranga kalea 4, behe), 651 70 79 36 telefono zenbakira deituta, edo [emakumeak@ekine-makumeak.eus](mailto:emakumeak@ekine-makumeak.eus) helbidera idatzita. Bazkide ez direnek 80 euro ordainduko dute izen-ematea, eta bazkideek, aldiz, 75 euro.

### Migratutako familien estresaz

Bestalde, migratutako familien estresari aurre egiteko tresnak sortu ditu elkarteak, eta hilaren 22an aurkeztuko ditu, 18:30ean, Kulturategi areto nagusian.



LARRAITZ ZEBERIO LEKUONA

## "Ohore handia" izan da aitortza

Intxorta 1937 Kultur Elkartearen omendua izan den egubakoitzean Arrasateko Udalak. "Ohore handia izan da hau guztia zuekin partekatzea. Hemen zaudeten asko gure proiektuaren parte izan zarete une batean edo bestean, modu batera edo bestera", adierazi zuen elkarteko kide Juan Ramon Garaik, hunkituta. Informazio guztia, [Goiena.eus](http://Goiena.eus)-en.

## Abenduaren 16an egingo dute Jostailu Truke Merkatua

Hogegarren urteurrena du Txatxilipurdi Elkarteak Gabon atarian egiten duen azokak eta, urteroko moduan, jostailuak batzen hasiko dira aurrez. "Osorik eta egoera onean egon behar dira, parte hartuko duen edonori jasotzea gustatuko litzaiokeen bezala", azaldu dute elkartetik. Azaroaren 18an eta 23an, Arimazubi plazan jasoko dituzte

jostailuak; 24an, Usaetxe plazan; 25ean eta 29an, Biteri plazan; abenduaren 1ean, Euskal Herria plazan, eta abenduaren 11n eta 12an, Santa Marinako ludotekan.

Orduetegiari dagokionez, aste barruan 17:00etatik 18:30era jasoko dituzte; zapatuetan, berriz, 12:00etatik 13:30era. Orduetegi horietan ezin dutenek 12:00etatik 13:30era Txatxilipurdiko bulegora eramateko aukera izango dute aipatutako egunetan.

Azoka abenduaren 16an egingo dute, Biterin, 11:30etik 13:30era.

# "Gizakiok betidanik ibili izan gara mendian"

ALVARO ARREGI MENDIZALEA

Isea kooperatibak gonbidatuta, Euskal Mendizale Federazioaren mendeurren azaratu zen atzo arrasatearra, Etxaluzen; GOIENAREN galderei erantzuteko tartea ere hartu du

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE  
*Euskal mendigoizaletasunaren ibilbidea azken 100 urteotan hitzaldia egin zuen atzo Alvaro Arregik (Arrasate, 1945).*

**100 urteko ibilbidea ordubeteen kontatzea ez da erraza izango...**

Eta aurrekoa ere kontatu behar da, testuinguru bat emate aldera. Gizakiok betidanik ibili izan gara mendian. Halere, Antton Iturrizaren *Historia testimonial del montañismo vasco* idazlanak jasotzen duenez, euskal mendizaletasunari buruz dauden lehenengo datuak 1850ekoak dira. Liburua hiru zatitan banatuta dago: 1850etik Espainiako Gerra Zibilera arte; gerra ostetik 1980ra arte, Martin Zabaletak Everest igo zuenera arte; eta azkena, ordutik aurrerakoak.

**2024an beteko dira ehun urte federazioa sortu zutenetik.**

XIX. mende bukaeraz geroztik, hainbat federazio sortzen ari ziren Europa mailan: Erresuma Batuan, Italian edota Frantzia. Era berean, Euskal Herrian ere ari ziren elkarteak sortzen. Arrasateren kasuan, Club Deportivo Mondragon 1913an sortu zuten, tartean mendi sailarekin. Espainiako Mendi Federazioa 1922an sortu zuten, eta 1924an, 57 mendizale elkarte batu ziren Federacion Vasco Navarra de



Alvaro Arregi, Arrasateko Otolara Lizentziaduna kalean. E.A.B.

## "BESAIDKO MONUMENTUA MONT BLANCEN HILDAKO MENDIZALEEN OMENEZ JARRI ZUTEN"

Alpinismo sortzeko. Bilbotarrek egin zuten indar handiena elkartea sortzeko, Antxon Bandres Azkue buru zutela. **Elgetan sortu zuten, gainera.** Probintzia guztietatik gertu egongo zen herri batean egin

gura izan zuten, guztien erdian zegoen batean, nolabait.

**Bi urtera, 1926an, 'Pyrenaica' aldizkaria jaio zen.**

Antxon Bandres Azkue izan zen federazioko lehen presidentea, baita aldizkariaren lehen zuzendaria ere. Federazioaren aldizkaria izan da hasieratik.

**Espainiako Gerra Zibilak erabaten zuten jarduna.**

Bai. Horrek ez du esan gura jendea mendian ibiliko ez zenik, baina ekintza guztiak gelditu ziren, baita *Pyrenaica* aldizkaria ere. Gerra ostean, 1949an hasi

zituzten berriro bilerak, baina lehen urteak Espainiako Mendi Federazioaren barruan egin zituzten, delegazio moduan.

**1955ean, berriz, Besaideko monumentua inauguratu zuten.**

Hala da. 1953an, Everest gailurrera igo ziren ingelesak eta, urte berean, lehen espedizio euskalduna joan zen Mont Blanc mendira. Elur-jausi batek azpian harrapatuta, lau mendizale hil ziren, eta horien omenez, monumentua jarri zuten Besaiden, Angel Sopena delegatu zela.

**Zer gertatu zen 1967an?**

Euskal mendizaleek, Juan Ignacio Llorente buru zutela, ordu arte inork egin bako bi tontor egin zituzten: Uchurraju eta Ayucurraju. Mundu mailako lorpena izan zen, eta Espainiako Mendi Federazioak erabaki zuen mendizaleak domina batekin aitortzea. Hala ere, gailurreko argazkian ikurrinarekin azaldu ziren eta, beraz, aitortza deuseztatu zuten. Ez hori bakarrik; kartzelatik ere pasatu behar izan ziren. Ondorioz, Pedro Otegi presidentea eta haren talde guztiak dimititu egin zuten.

**Urte hauetako guztietako nabarmentzeko lorpenen bat?**

Andres Espinosa zornotzarrak, esaterako, asko ditu, 1920ko hamarkadan egindakoak: Kilimanjaroa bakarrik joan zen; Mont Blanc eta Cervino jarraian egin zituen, gidari barik, hiru egunetan; Naranjo de Bulnes bidea ezagutu barik igo zuen, beste leku batetik jaisteko. Gero, ezin ahaztu 1974ko Tximist Espedizioa eta 1980ko Everesteko lorpena. **Noiz hartu zuen Euskal Mendizale Federazioa izena?**

1977an. Halere, nafarrak hortik kanpo geratu ziren eta ordutik bakoitzak bere bidea egin du, nahiz eta harreman zuzena izan.



## Langileen herria

Iritzi nahiko zabaldua da Arrasate langileen herri bat dela eta mondragoetarrek, batez ere langileak izan direnez, estetikari eta edertasunari ez diotela aparteko tarterik eskaini. Lana egitea, dirua egitea, konponbide utilitaristak lortzea... izan ei dira mondragoetarren helburuak. Eta horrek mondragoetarrei halako izaera zakarra emango lieke eta, beraz, zatarkeriarako joera bat. Pertsona zakarrek zakarkeriak egiten dituzte: gauza itsusiak eraiki, eraikin politak bota. Baliteke horrela izatea.

Bestalde, helburu ez hain prosaikoekin gure herrian jardun duen erakundea Eliza Katolikoa izan da. Erliario honetan inspiraturiko arkitekturak asko landu du estetika. Garai bakoitzeko estilora moldatuz edertasuna lortzen saiatu dira. Arte katolikoaren azken alea Arrasateko mojen kapera zen, 1974koa. Bere hormigoizko beirateekin, barruko apaindura soilarekin, eta akustika lortuarekin kristau arkitekturaren harribitxia zen. Ba, guztiz desitxuratuta dago, Hirutasunaren beiratea ere suntsitu dute. Niri sekulako amorrua eman zidan. 1974tik ezer politik egin dute?



## VITALDENT ARRASATE

Otolara lizentziaduna kalea 1  
943 06 03 22

(1) 200 €-ko deskontua TRATAMENDU HONETAN: INPLANTEA + KOROA. Eskaintza 2023ko urriaren 9tik azaroaren 30era bitartean (biak barne) kontratatutako diren tratamenduetan aplikatuko da. Ez da metagarria beste deskontu eta sustapenekin. RS: C510715 (2) Finantzaketa adibidea 3.000,00 €-ko zenbatekoa 36 hilabetetarako. Lehenengo kuota: 233,33 €, 83,33 €-ko 34 kuota eta azken kuota: 83,45 €. Formalizazio komisioa % 5 (150,00 € lehen kuotan ordaintzeko), ITN % 0,00, UTB % 3,40. Guztizko interesak: 0,00 €. Kredituaren kostu osoa: 150,00 €. Zordundutako guztizko zenbatekoa eta epokako guztizko prezioa: 3.150,00 €. Eskurako erosketa-prezioa: 3.000,00 €. Amortizazio-sistema frantsesa. Banco Cetelem S.A.U. banketeak eskaintutako finantzaketa. Sustapenaren irautaldia: 2023/12/31ra arte. RPS 43/21

# 200€-KO

DESKONTUA  
INPLANTEA  
+ KOROA<sup>(1)</sup>

**3 URTETAKO  
FINANTZAKETA**  
INTERESIK GABE

ITN % 0,00 UTB % 3,40<sup>(2)</sup>

# 'Ángeles de la guarda' erakusketa ikusgai

Ekitaldiz bete du azaroa Arrasateko Emakume Txokoak; besteak beste, martitzenean ireki zen Peruko bederatzi familiaren errealitatea islatzen duen Rosa Villafuerteren bilduma, eta hilaren 24a arte egongo da ikusgai

**Miren Arana Pagaldai** ARRASATE  
Martitzenean ireki zituen atearak Arrasateko Emakume Txokoan jarri duten *Ángeles de la guarda* argazki erakusketak. Bidez Bide Gizarte Sustapenerako Kultur Arteko Elkarteak sortutako erakusketa 2010ean Rosa Villafuerte argazkilari peruarrak ateratako argazkiek osatzen dute. Azaroaren 24ra arte egongo da ikusgai: asteleheneratik eguenera, 10:30ak eta 18:00ak bitartean.

Latinoamerika hegoaldeko herrialdeetatik emigratzen duten emakumeen nazioz gaindiko migrazio errealitateak eta jatorrizko herrialdean geratzen diren seme-alabekin ezartzen



*Ángeles de la guarda* erakusketaren irekiera. IDOIA ARANBARRI

dituzten harremanak erakusketaren oinarri hartuta, Peruko 9 familiaren errealitatea erakusten du erakusketak.

#### Ideia jatorria

Soraya Ronquillo Bidez Bideko presidentek ideia nondik datorren azaldu du: "Esperientzia pertsonaletik bai, baina elkartean emakume askoren testigantzak jasotzen direla ikusita, erakusketaren ideia sortu zen: testigantza horiek entzunda emakume horien sorterriko errealitateak ere islatu beharko liritekeela ikusi genuen".

#### Ekitaldi gehiago

Azarorako ekintza gehiago antolatu ditu Emakume Txokoak; atzo, *Umore feminista zure kontsumorako* bakarrizketa umoretsuaz gozatzeko aukera izan zuten herritarrek; eta hilaren 24rako -azaroak 25a Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna izanik-, bertso saioa antolatu dute: Ane Labaka, Ane Zuazubiskar, Maialen Akizu eta Uxue Alberdiren eskutik. Informazio gehiago *Puntua* aldizkari-ko 388 zenbakian.

## OHARRAK

### Zapatuko azoka

Bertako produktuen azokan babarruna izango da izarra. Oinarrizko Lanbide Heziketako sukaldaritzako ikasleek prestatuko dituzte.

### Uribarriko jubilatuen

Uribarriko Jubilatuen Etxean prestatzen diren tailerretan izena emateko, deitu astearte eta ostegunetan, 17:00etatik 19:00etara.

### Nagusien Kontseilua

*Digitalizazioa eta iruzurren prebentzioa* hitzaldia egongo da martitzenean, Kulturaten.

### 1973ko kintada

25ean ospatuko da, 12:00etan Herriko Plazan. Euskal dantzen eta luntxaren ostean, Los Andaluces elkartean bazkaria. Prezioa: 80 euro.

### Korrika 2023

Zapatuan, Korrikako arropak saltzeko postua jarriko da Seberon (11:00-14:00).

# BIARK STUDIO arkitektoak

- Ziurtagiri energetikoak
- I.T.E. (eraikinen ikuskapen teknikoak)
- Teilatuak eta fatxadak
- Igogailuak eta irisgarritasuna
- Etxebizitza eta lokalen erreformak
- Baserriak eta txaletak
- Etab...



[www.biark.net](http://www.biark.net)

# Munduko Txapelketan daude, Herbehereetan

Aitor Madinabeitia, Danel Izurrategi, Aratz Ezpeleta eta Irati Izurrategi Arnhem-en daude (Herbehereak). Saioako karatekek gaur jokatu dituzte KWFko Munduko Txapelketako kanporaketak. Aurrera eginez gero, bihar izango dituzte finalak



Iaz Poloniako Mundialean izan ziren Madinabeitia, Valor eta Izurrategi. SAIOA

## Xabier Urzelai ARRASATE

Saioa taldeko karatekak urteko hitzordu nagusienetakoan murgilduta daude, asteburuan jokatuko dituzte-eta Kyokushinkai modalitateko KWF txapelketak. Iaz Krakovian (Polonia) bizi izandako esperientziatik ikasi, eta gaurtik -egubakoitza- hasita onena ematen saiatuko dira Arnhem-en (Herbehereak) egingo dituzten txapelketetan.

Hain zuzen, gaur kanporaketa borrokak izango dituzte Aitor Madinabeitiak (+18 urte, -70kg), Danel Izurrategik (-17 urte, -60 kilo), Aratz Ezpeletak (-17 urte, +80 kilo) eta Irati Izurrategik (-15 urte, -50 kilo), eta kanpora-

keta horiek gainditzen dituztenek bihar, zapatua, izango dituzte txapelketako borrokaldi erabakigarriak, alegia, finalerdiak eta finalak.

## Esperientzia dute

Lau borrokalarietatik bik badaukite munduko txapelketa batean lehiatzea zer den; Danel Izurrategi eta Aitor Madinabeitia Polonian izan ziren iaz, eta esperientzia horrek balio handia izaten du halako nazioarteko txapelketetan. Eta Irati Izurrategi Europako Txapelketan egondakoa da. "Espainiako Txapelketan onenak izan direlako sailkatu dira Mundialera. Irati, berriz, gonbidapen bidez doa. Denek prestatu dute hitzordua ondo", dio Saioako prestatzaile Carlos Sanchezek. "Abuztu erdialdean hasi ziren txapelketa honetara begira lanean. Gero, borroken uean zorte apur bat ere izan behar da; zein kontrario egokitzen zaizun hasierako borrokaldietan... Eta urduritasunei eustea ere garrantzitsua da. Baina hori ere lantzen ibili dira; horrenbestez, lanak eginda daude", adierazi du Sanchezek.



Madinabeitia, errioxarren kontra. I.S.

## Gipuzkoarren arteko derbia jokatuko dute domekan (18:30)

EBako sailkapenaren erdian dauden Mondragon Unibertsitateak eta Gipuzkoa Basket Easok elkarren kontra jokatuko dute domekan Iturripen (18:15). Arrasatearrak Baskoniaren kantuan galtzetik datoz, eta Gipuzkoa Basketekoek puntu bateko aldearekin irabazi zieten Santurtzikoei (60-59). Bada, moreek garaipen bat gehiago eskuratu dute orain arte (4).

**ALMACENES  
ARRASATE**

**BLACK FRIDAY**


Azaroaren 20tik 30era



**AEG**

**425€**

**LABE  
PIROLITIKOA  
BPS331120M**



**AEG**

**425€**

**INDUKZIO  
PLAKA  
IAE63421CB**



**SAMSUNG  
GARBIGAILUA  
WW80CGC04DTH  
8KG / 1400 RPM**

**425€**



**HOZKAILUA  
RB390N4CCD  
186 x 60 x 60**

**599€**

**Hisense**

**Eskaintza paregabeak!** (Stocka amaitu arte)

Eskaintza baliagarriak akats tipografikorik ez dagoen neurian.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13

Ordutegia: 09:15-13:00 / 15:30-19:30 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK



laz Ozenki elkarteak Amaia antzokian eginiko gala lirikoa. OZENKI ELKARTEA

# Ozenkiren gala lirikoa, "sorpresaz" beterikoa

Umerez beteriko ekoizpen berria estreinatuko du azaroaren 26an, Amaia antzokian, 19:00etan, Ozenki elkarteak: 'Una noche en el teatro de la comedia'. "Parodia" txikia ikusteko, eskuragarri daude sarrerak jada, 20 euroren truke

**Miren Arana Pagaldai** ARRASATE  
Azaroaren 26an, datorren domekan, Ozenki elkarteak *Una noche en el teatro de la comedia* opera lirikoa estreinatuko du, eta Mozart, Puccini eta Solozabal konpositoreen ariak errespetatuko dituen obra izango da. Josean Garcia izango da zuzendari artistikoa, Arkaitz Mendoza musika zuzendaria, eta Valen Monux izango da eszenografiar arduratuko dena. Joan den urteko obrak izan zuen ongiatorri "bikaina" oinarri hartuta, aurtengoan ikusleek "aldaketak" nabaritu dituztela azaldu du musika zuzendariak: "Parodia txiki bat da, sorpresaz beterik dagoena. Hala, geroz eta barregarriagoa izatea da gure xedea".

2011n batu ziren operazaleek osatzen dute Ozenki elkarteak; ordutik, urtean bizpahiru obra interpretatzen saiatzen dira. Nazioartean aritzen diren artistak biltzen ditu elkarteak, eta aurten ere hala izan da: "Abeslari mota desberdinak ekartzen

saiatzen gara: soprano bat, baritono bat eta tenore bat. Kasu honetan, David Baños izango da tenorea, Gema Scadal sopranoa, eta Andres del Pino baritonoa".

## Musikaren trama

"Telebistan horren ezaguna den programa baten bueltako parodia bat da; *La voz* izango balitz bezala, epaimahai bat eta abeslariak egongo dira", aurreratu du Arkaitz Mendozak.

Jon Imanol Etxabe izango da oholtzara igoko den baritonotako bat; ez da lehenengo aldia Ozenki elkartearekin aritzen dela, eta oso "pozik" agertu da izango duen pertsonaia "celebrearekin": "Baritonoa naizen arren, zarzuelan tenore komi-

**"MADRILGOAK IA BEZPERAN ETORTZEN DIRA; BAKOITZAK, BERAZ, BERE ETXEAN IKASTEN DU"**

koaren papera egiteko joera daukat; nire pertsonaiak, beraz, lasaiagoak izaten dira. Nire ardurara ondo pasatzea eta jendea ondo pasaraztea da".

## Azken entsegua

Prestaketa lanetan ari diren arren, bakarka entseatzeko dute oraingoz. Aurreikusitako entseguak izango dira lantaldean egingo dituztenak. Izan ere, protagonista izango diren soprano, baritono eta tenorea Madrildik etorriko dira, eta ezin izan dute batera entseatu: "Madrilgoak ia-ia bezperan etortzen dira, eta bakoitzak bere etxean ikasten du. Elkartzea, beraz, ez da oso erreza izaten".

Musika zuzendariak gonbita egin die operazale diren herriarrei, eta opera lirikoa ikustera animatu ditu. 20 euroren trukean salgai daude jada sarrerak, eta Ibai-arteren eskutik sarrerak eskuratzeko aukera ere izango da azaroaren 20ra bitartean.

## Arrasateko Margo Taldeak 2023ko lanak aurkeztuko ditu

Arrasateko Margo Taldeak gaur inauguratuko du 104 obrak osatutako margo erakusketa, Kulturaten; abenduaren 9ra arte ikusgai izango dira margoak, astelehenetik larunbatera, 17:30 eta 20:30 bitartean. Aurkeztuko den erakusketak 18 margolarik 2023an egindako lanak batuko ditu erakusketan, eta bertan izango dira obra guztien egileak.

Obra gauzatzeko erabiltzen diren teknikak askotarikoak dira; akrilikokoak, olioak, akuarelak, teknika mistoak eta collageak ikus daitezke, besteak beste. AMTko Jose Angel Iturbek erakusketa kolektibo hau "denboran zeharreko bidaia batekin" alderatu du: "Hainbat mugimendu artistikotan zehar egindako bidaia izan liteke –kostunbrismoan, fauvismoan, impresionismoan, surrealismoan, kubismoan, abstrakzioan eta errealismoan zehar, besteak beste–".

## Kontzertuz beteko du azaroa Arrasateko Gaztetxeak

Azaroaren 18rako Aggressive Combat taldeak hainbat kontzertuz osaturiko egitaraua antolatu du. Gaztetxeako kontzertuak 22:00etan hasiko dira, eta orduan egongo da sarrerak erosteko aukera; zazpi euro balioko dituzte –zazpi euro bakoitzetik, bi Gaztetxearentzat izango dira–. Attürri, Aggressive Combat eta Knockout taldeen kontzertuak

gozatzeko aukera izango dute bertaratzen diren guztiek. Gaztetxeako kontzertuak ez ezik, Dat tabernan Bilboko bi DJ ere egongo dira –DJ Ttiki Boom eta DJ Rock y Violencia–; 18:00etan izango dira emanaldi horiek.

Bestetik, azaroaren 23an, ostegunero bezala, Kooltur Osteguna egingo da Arrasateko Gaztetxean; eta Ibil Bedi taldea izango da eguneko protagonista. Beti bezala, kontzertuko sarrerak zazpi euro balioko ditu, eta 22:00etan hasiko da.

## Bandaren kontzertua Santa Zeziliaren omenez

Azaroaren 19an, domekan, Arrasate Musikaleko Bandak ohikoa den Santa Zezilia eguneko kontzertua eskainiko du San Franzizko elizan (12:30). Doako kontzertua izango da, eta Mikel Markiegik zuzenduta hainbat obra interpretatuko dituzte, besteak beste, *Jaialdia*, *Concierto de Aranjuez* edo *The Mask of Zorro* obra ezagunak.

## 'Begiak zabalduko zaizkizue' liburua aurkezpena

*Arotz letrak* zikloaren baitan, 2022an Euskadi Literatura Saria jaso zuen egilea, Irati Jimenez, izango da bere liburua aurkezten: *Begiak zabalduko zaizkizue*. Azaroaren 22an Irati tabernan izango da aurkezpena, arratsaldeko zazpitan. Liburuan, euskal literaturari eta sistema literarioari ikusten dizkion gabeziak eta makurrak salatzen ditu.

## Aba Taano taldearen ongintzako kontzertua gaur

Aba Taano gospel taldeak ongintzako kontzertua eskainiko du gaur San Juan Bataiatzailearen parrokiaren parrokian (20:00). Sarrera doakoa izango den arren, kontzertu amaieran Ugandako Kireka herriko kaleko haurrak laguntzeko dirua bilduko da; eskuratutakoa hango haurrei heziketa integrala emateko erabiliko da; adibidez, musikakoa.

## Kiribil konpainiaren eskutik, 'Maiteder' antzezlanak

Azaroaren 24an, 18:00etan, Kiribil konpainiaren *Maiteder* haurrentzako antzezlanak egongo da Kulturaten, 5 urtetik gorako haurrentzat. Xabier Lizardi eta Irène Colomb-Jacob poeten obratan oinarrituta, bi pertsonaien bidaiak kontatuko ditu antzezlanak. Joan nahi duenak aldeztatik eman beharko du izena, Arrasateko udalaren web orrian.

# Arrizabalaga ahizpak, txapel nagusiaren bila

Kanaldude telebista kateak antolatutako Mintza Mus emankizunean parte hartu dute Ana eta Elena Arrizabalaga ahizpek. Mus txapelketan zortzi bikotek parte hartu dute: Euskal Herriko zazpi eta diasporako batek. Finalera iritsi dira ahizpa aramaioarrak

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO Nafarroa Behereko Kanaldude telebista kateak antolatutako mus txapelketa batean hartu dute parte Ana eta Elena Arrizabalaga ahizpek. Telebista kateak casting deialdia egin zuen Euskal Herrian edo diasporan bizi eta musean jokatzeko maite dutenak bilatzeko. Mus-bikotek telebista emankizun batean parte hartu behar zuen, eta herriko elkarte bat sustengatu.

"2018an Arabako Mus txapel-dunak izan ginen; bada, Arabako antolatzaileek esan ziguten Biarritzeko txapelketara joateko, eta pentsatu genuen esperientzia polita izan zitekeela", dio Ana Arrizabalagak. Hala, herriko Alaiak erretiratuen elkartean izenean eman zuten izena, eta azaroaren 4an eta 5ean jokatu zuten txapelketa, Biarritzen.

## Finalera iritsi dira

*Reality* formatuan grabatu zuten txapelketa: "Mahaiak telebista kamerak ditu azpian; kartak banatzerakoan, behera begira jarri behar genituen epaileak jasotzeko baimena eman arte. Kamerek kartak grabatzen zizuten eta kanpoan zegoen jendeak jokoa jarraitzen zuen". Lehenengo partida Gipuzkoako bikotearen aurka jokatu zuten, eta irabazi; bigarrena, Nafarroaren aurka: "2-0 galtzen joan ginen, baina 2-3 irabazi genuen". Hala, finalera iritsi ziren aramaioarrak: "Ezin dugu esan noren kontra jokatu genuen, ezta emaitza ere. Oraindik ez dute txapelketa telebistan eman; asmoa da Gabonen inguruan botatzea". Txapel-dunak 3.000 euro irabaziko ditu eta txapeldunordeak 1.500 euro, bakoitzak aukeratutako elkar-teari emateko.

Arrizabalaga ahizpek diote ez zutela asko entrenatu elkarrekin, eta, gainera, txapelketa lau erregetara izan zela, eta eurek zortzi erregetara jokatzeko dutela:



Elena eta Ana Arrizabalaga. ARRIZABALAGA AHIZPAK



Ahizpak, musean, Gipuzkoarren aurka. ARRIZABALAGA AHIZPAK

"Gainera, hitz batzuk ere ezberdin erabiltzen genituen. Guk *ba* esaten dugu eta *pasa* esan behar genuen, adibidez".

## Musean jokatzeko zaletasuna

2018an ikasi zuten musean, Roman Lopez *Alemana*-k erakutsita. "Musean ikasi eta hiru bat hilabetera atera genuen Arabako txapelketa. *Alemana*-ri deitu nion notizia emateko, eta negarez hasi zen, pozez". Nabarmen-

du du bi ahizpen artean Elena askoz ere ausartagoa dela eta hordagoak samurrago botatzen dituela.

Bi emakume musean jokatzeko ikustera ohituta ez gaudela azaldu du, eta jendeak uste duela ez direla gizonak besteko indartsuak. Hala ere, Biarritzeko txapelketan, nafarren aurka jokatu ostean, gizon bat hurbildu zitzaion esatera ez zuela inoiz horrelako "joko politik" ikusi.

## Arratsaldeak adinaren arabera banatuko dituzte ludotekan

16:15etik 17:45era adinaren arabera sartu ahal izango dira, eta 17:45etik itxi arte denak batera ibiliko dira

### A.E.G. ARAMAIO

Ludotekan ordutegi berriarekin hasi dira lanean. Erabiltzaileek eta gurasoek horrela eskatuta, arratsaldeak adinaren arabera banatzea erabaki dute, ordutegi zehatzekin. 16:15etik 17:45era bitartean, 2 urtetik 5 urtera bitarteko umeak egongo dira astelenean, eguaztenean eta barikutan; aldiz, martitzenetan eta eguenetan LH1etik LH6ra bitarteko gaztetxoak. 17:45etik 19:30era bitartean, adin guztietakoek elkarrekin egoteko aukera izango dute.

Orain arte, erabiltzaileak adin eta egunaren arabera banatuta egon izan dira; baina, erabiltzaileek eta gurasoek eskatuta eta Udalak kultura-etxeke langileekin hitz egin ostean, aldaketa egitea erabaki dute, erabiltzaileei ahalik eta zerbitzu onena emateko. Aurrerago, Udalak kontrastea egingo du jakiteko ea ordutegi berriarekin gustura dauden edo ez.

Bestalde, Udalak antzokia itxi egingo du arratsaldetan, ezin duelako bermatu espazioaren erabilera egokia.

## Eoliko proiektuaz egindakoak azaltzeko batzar irekia

Aramaio Udalak deituta, batzar irekia egingo dute azaroaren 22an, eguaztana, udaletxean. *Aramaion energia iturrien proiektuez herritarrekin hausnartzen: egindakoak eta egitekoak* izeneko bilera egingo du Udalak herritarrekin. Batzarrek bi helburu nagusi izango ditu: batetik, Udalak parke eolikoaren proiektuaren aurrean egindako urratsen berri ematea; eta, bestetik, orain arte hartutako erabakiak partekatuta eta aurreratzean egingo diren ekintzak aurkeztea.

Aramaio Udalak bizilagunak animatu nahi ditu batzarrean parte hartzera. 18:30ean izango da hitzordua, eguaztenean, udaletxean.

## Porno familian kudeatzeko gakoak azalduko dituzte

Azaroaren 25aren bueltan, Aramaio Udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu. Horietako bat izango da Emaize Sexologia Zentroko sexologo Miren Arregik egingo duen hitzaldia: *Nola kudeatu porno familian? Porno belaunaldira hurbiltzen, familien heziketa sexualaren erronka*. 1994az geroztik, Emaize Sexologia Zentroak arreta egiten die sexualitatei eta sexuei eta horien arteko erlazioei. Zentroaren helburua neska-mutikoei eta emakume-gizonei elkar ulertzeko eta euren arteko elkarbizitza hobetzeko laguntza ematea da.

Hitzaldia kultura etxean izango da, hilaren 23an, eguenean, 18:30ean.

## OHARRAK

### Argindarra moztuko dute Uribarrin

Gaur, azaroaren 17an, Uribarriko transformadorea aldatu behar dute, eta lan horiek egiteko, Uribarri eta Zubieta auzoetako hornidura elektrikoa moztuko da, 09:30etik 13:30era bitartean.

### Trokolo Teatro: 'Dígame'

Itur Zuri emakume elkarteak antolatuta, *Dígame* ikuskizuna egingo dute, gaztelaraz, 18:00etan, kultura etxean.

### 'Kutzak askatu' tailerra

*Haziaraba in the mapping* jaialdiaren barruan izango da ekimena, 2 eta 5 urte bitartekoendako, asteazkenean, 18:00etan. Izena eman behar da, udaletxean.



Julene Rosado, zaintza lanetan diharduen emakume baten testigantza jasotzen. ERDU TALDE FEMINISTA

## Zaintza langileen ahotsa zabaltea helburu

'Bazterretik, Atxabaltan zaintza lanetik bizi direnen ahotsak' ikus-entzunezkoa estreinatuko da azaroaren 23an; Erdu talde feministaren ekimena izan da eta Julene Rosadok batu ditu lanbide horretan diharduten hainbat emakume\*ren bizipenak

**Mirari Altube** ARETXABALETA

*Denon bizitzak erdigunean!* le-  
loarekin zaintza sistema publi-  
ko-komunitario feminista alda-  
rrikatzea izango du helburu  
azaroaren 30erako deitutako  
greba orokorrak. Ogibide hori  
ezagutarazte aldera, Erdu talde  
feminista aretxabaletarrek her-  
rrian zaintza lanetan dihardu-  
tenen ahotsak jaso gura izan  
ditu. *Bazterretik, Atxabaltan  
zaintza lanetik bizi direnen aho-  
tsak* izeneko ikus-entzunezkoan  
batu ditu horiek, eta azaroaren  
23an estreinatuko dute, Arkupen,  
18:30ean.

**Hamalau lagunen testigantzak**

Zaintzari buruzko lanketa bat  
egiteko asmoa azaroaren 30aren  
aurretikoa zela adierazi du Er-  
duko kide Larraitx Arandok:  
"Konturatu ginen ez genuela  
ezagutzen jende askoren errea-  
litatea, eta ezagututa ere, euren  
ahotik ez genuela entzunda zein  
behar dituzten, zein aldarrikapen  
eta zein nahi, ezta zaintza zer

den egunero horretan dihardu-  
ten horientzat ere. Haiengana  
gerturatzea eta haiei entzutea  
izan da helburua. Eta, gero, ja-  
sotako hori herrira zabaltea".

Hala, zaintza lana ogibide du-  
ten hamalau lagunekin egon  
dira: "Etxez etxeokan dabilzanak,  
zaharren egoitzan lan egiten  
dutenak, eskoletan dihardutenak  
eta norbanakoek kontratatutak  
daude, baita Aita Mennin lan  
egiten duenen bat ere. Eta as-  
kotariko profilekoak: gazteak,  
helduak... Emakumeak\* guztiak".

**"Mezu indartsuak"**

Julene Rosado gazte aretxaba-  
learrak egin ditu grabatze eta  
editatze lanak. Eta Erdukoak  
oso gustura daude emaitzarekin:

**ASKOTARIKO  
PROFILEKO HAMALAU  
EMAKUME\*REN  
TESTIGANTZAK JASO  
DITUZTE**

"Guretzat lanketa potentea izan  
da. Mezu indartsuak eta hunki-  
garriak jaso ditugu; begiak za-  
baltzeko baliagarriak eta kontu  
askoren gainean kontzientzia  
hartzea eragin digutenak". Ba-  
tzuek euskaraz dihardute eta  
beste batzuek gaztelaraz, eta  
azpitu-luekin emango dute do-  
kumentala.

Azaroaren 23ko estreinaldia  
herritar orori irekia izango da,  
eta emanaldia borobilduko da  
mokatutxo eskainita bukaeran.

**Asanblada irekia, gaur**

Bestetik, azaroaren 30eko anto-  
laketa lanetan murgilduta ja-  
rraitzen du horretarako elkartzen  
den taldeak. Gaur, egubakoitza,  
asanblada misto irekia egingo  
dute, 18:00etan, udaletxe zaha-  
rrean; datozen egunetako eki-  
taldiak zehaztea eta prestatzea  
da asmoa. Era berean, herritarrei  
aldarrikapenen berri ematen  
jarraituko dute kalean, enpre-  
satan eta hainbat eratako zer-  
bitzuetan.

## Helduendako eta umeendako antzezlanak Arkupen, gaurtik

Aitziber Garmendiak zuzendutako 'Kanpora sartzen', eta 'Euskelelea' eta 'Anbotoko Mari' eskainiko dituzte

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Txalo Produkzioak konpainiaren  
eskutik iritsiko da Aitziber Gar-  
mendiak zuzendutako *Kanpora  
sartzen* helduendako antzezlan  
gaur, egubakoitza (20:00), eta  
Xabin Fernandez eta Intza Alkain  
dira protagonista. 2013ko mar-  
txoan jakin zuen Fernandezek  
seropositibo zela, eta hamar  
urteren ostean, birusarekin duen  
harremanaz hitz egiteko garaia  
iritsi dela sentitu du. Sentimen-  
du gordinak eta umorea uzta-  
tuko ditu, eta lehen pertsonan  
kontakutako ditu horiek oholtzan  
–sarrera da 5 euro–.

Aurten lehenengoz, gainera,  
Debagoienerako Antzerki Plata-  
formak ikusle kluba antolatuko  
du Karoi zikloaren barruan.  
Antzezlan bako ordu bete lehe-  
nago (19:00) bilduko dira Arku-  
pen bertan, eta lanaren gainean  
hitz egingo dute; ondoren, denak  
batera joango dira ikustera.  
Ikusle kluba irekia da gertura-  
tu nahi duten guztientzat.

**Umeek, bihar eta etzi**

Enrike Solinis musikariaren  
ideian eta Juan Kruz Igerabide  
poetaren hitzetan oinarritutako  
*Euskelelea* ikuskizuna izango

dute umeek bihar, zapatua (18:00).  
Kantu tradizionalak entzungo  
dituzte, Euskal Barrokensemble  
taldeak interpretatuak, Maika  
Etxekopar aktore eta kantaria-  
ren ahotsarekin; Irrimarra ilus-  
trazaleak proiektatutako iru-  
diek osatuko dute emanaldia.  
Domekan, ostera, *Anbotoko Mari*  
eskainiko die (17:00) Logela Mul-  
timediak; antzerkia, bideo-ani-  
mazioa, interakzioa eta musika  
biltzen dituen antzezlan multi-  
media da hain zuzen ere. Bi  
lanak 3 urtetik aurrerako umei  
gomentatutakoak dira –sarrera  
da 3 euro–.

**Ipuin saioak hurrengoan**

Datorren astean, ipuinek har-  
tuko diete lekukoa antzezlanei.  
Dorleta Kortazar eskoriatzarrak  
*80 amandre* kontaketa eskainiko  
die helduei astelehenean, Arku-  
pen (18:00). Indarkeria Matxi-  
staren Kontrako Nazioarteko  
Egunaren baitan antolatuko dute.

Maite Franko ipuin kontala-  
riak, ostera, *Bizar Urdin eta  
beste zenbait gaiztoen hamaika  
ipuin* izenaren bueltan hainbat  
kontu kontakutako dizkie 5 eta 8  
urte arteko neska-mutikoei li-  
burutegian, eguaztenean (18:00).



NIRE USTEZ

MAIALEN ARRIZABALAGA ARANA

## Nola hezi haurrak ingurune digitalean?

Mundu digitala hain barneratuta dagoen garaiotan, bistan da  
egungo haurrak inguru oso teknologizatu batean jaiotzen direla  
eta pantailak eguneroko jardueren erdigunean aurkitzen  
dituztela. Ondorioz, haurren heziketan eragiten dugunon artean,  
pantailen erabilerearen kezka gailentzen ari da.

Ohikoa da entzutea belaunaldi berriak natibo digitalak direla,  
baita gailu digitalekin helduak baino hobeto maneiatzen direla  
ere. Horrek ez du esan nahi derrigor trebetasun digitalak  
dituztenik; izan ere, gaur egun, sortzeko baino gehiago,  
kontsumitzeko erabiltzen dituzte halakoak. Gainera, sarritan,  
kontsumitzen dituzten edukiak ez dira haien adinerako  
aproposak izaten. Ba al dakigu zein espaziotan aritzen diren  
nabigatzen? Gune horiek seguruak al dira?

Teknologietan trebea izatea horien erabilera egokia egitea da,  
hain zuzen ere, erabilera kritikoa eta segurua egitea, bai lanean,  
bai aisialdian, bai beste edozein komunikazio esparrutan ere.  
Hortaz, belaunaldi berriak umezurtz digital eta kontsumista  
hutsak izan ez daitezten, har ditzagun neurriak denboraz.



**Mirari Altube** ARETXABAETA

Sasoi batean baserrietan egiten zen arto-zuriketa jarduna aitazkia hartu, eta istorioak, ipuinak eta garai batean bizi izandakoak izan zituzten berbetarako gai 48 bat lagunek joan den azaroaren 10ean. Areantza auzoko Areantza-Etxebarri baserriko Julen Abasolok egindako deia-ri erantzun zioten horiek, eta "ezin gusturago" jardun zuten lanean.

**Istorioak eta ipuinak**

"Neure *harrikada* bat izan da. Transmisioa galtzen doala eta istorioak arto-zuriketaren kontakizun zirela komentatu izan dugu geure artean, eta artoa garantzzea ez denez lan konplikatu, horretarako batzea erabaki nuen", azaldu du Abasolok. Aozaratza, Larrino, Goroeta eta Areantzako auzotarren artean zabaldu zuen deia: "Etxe guztietan egiten zen lehen lan hori, baina nik neuk ez dut bizi izan. Horregatik, banan-banan egin nituen fitxaketak, arto-zuriketa lanetan jardundakoak gura nituelako; 80 urtetik gorakoak, esaterako, sei bat zeuden".

Arto-zuriketa eguneroko lana izaten zen, udazkenean: "Zemendian, azaroan, garia ereiten zen; horretarako, soroa libre utzi beharra zegoen, eta artoa jaso". Iluntze partean elkartzen ziren artaburuaren bueltan: "Ez zen sukaldetan egiten; eskapean, hau da, etxearen sarreran, edo ukuluan, abereen atzeko partean, adibidez. Lehenengo arrosarioa otoitz egiten zuten, eta otoitz egin bitartean artoa garantzen zen etxekoan artean, emakume zein gizon. Aitajaunaren eta iloben arteko lan bat izaten zen sarritan, gurasoek behi-lanak egin bitartean. Arrosarioa bu-

# Arto-zuriketa lanetan, istorioak gogora ekarriz

Larrino, Aozaratza, Goroeta eta Areantzako ia 50 auzotar elkartu ziren joan den egubakoitzean Areantza-Etxebarri baserriko lasto-ganbaran artoa garantzeko sasoi batean legez, eta, bide batez, istorioak eta kontakizunak gogora ekartzeko

katutakoan, aitajaunak txistek, kontakizunak eta istorioak kontatzen zituen, eta, horrela, transmisioa bermatzen zen".

Hori gogoan, Areantza-Etxebarri baserriko lasto-ganbaran elkartu zituen Abasolok auzotarrak. "Istorioak jasotzea zen asmoa batetik, eta kontu-kontari jardun zuten". Hala, han entzundako ipuintxo bat kontatu

du: "Larrinoko Intusia baserrikoen bati entzundako kontakizuna ei da. Garia oso tentea eta harroa zen, eta zera esaten ei zuen: *Jainkoak mundu honetan ez du egin ni bezalako belarrik*. Eta artoak, aldamenetik entzun, eta bota ei zuen: *ni nagoen lekuan ere ez dago bada goserik*".

Bestetik, elkartutako guztiek egin zezaten arto-zuriketaren gura

zuen Abasolok, ez bakarrik nagusienek: "Eta hori lortu zen".

**Artoa osorik aprobetxatu**

Arto-soroak "oso ohikoak" ziren sasoi batean; gaur egun, oster, "apenas" dagoela dio Abasolok: "Guk urtero jartzen dugu apur bat, eta aurten, apropos, gehiago landatu nuen. Goroetako Aranen ere beste apur bat izan dute, eta

gure ekimenerako nahikoa izan da. Baina hori ere desagertzen ari da".

Artoa, "txerria legez", osorik aprobetxatzen dela jakinarazi du: "Lastoa eta kirtena, behientzako. Baita azpiak egiteko ere, artegietan, adibidez; arto-kirten zakarrak lehenengo jarri, eta horien gainean irak. Alea, behin errotatik pasatuta, pertsonen jateko izaten zen; horrekin egiten zen: morokila, orotza, arto-opila eta arto-ogia. Ohikoena azken hori zen. Abereei ere ematen zitzaien, birrinduta; oi-loei, esaterako. Arto-bizarrak ere batu egiten ziren; haren ura diuretikoak zen, eta tabakorik ez zegoenean, erre ere erretzen zuten batzuek. Artaburuaren moskola -orri fin horiek- ere erabiltzen zen tabakoarendako, paperik ez zegoenean; hori nik neuk ere ikusita daukat, aita-januari. Koltxoiak egiteko ere erabiltzen zen moskol hori, artilearen aurretik. Alea kenduta geratzen den kaskara, oster, arratoi zuloak estaltzeko erabiltzen zela aipatu zuten batzuek".

**Ikus-entzunezkoan jaso**

Pozik agertu da azaroaren 10ean bizi izandakoarekin: "Oso gustura bukatu genuen. Helburua hori jasotzea ere bazen, baina grabaketa ez da gura besteko txukun geratu, zalaparta handia sortu zelako une batzuetan. Hala ere, ikus-entzunezko bat gertatuko dugu, eta, horri laguntzeko, idatziren bat argitaratu ere bai".

## UDAZKENEKO LANA IZATEN ZEN, ARROSARIOA OTOITZ EGIN ETA KONTUAK KONTATU BITARTEAN



Artoak zuritzeko elkartutako hainbat auzotako bizilagunak, Areantza-Etxebarri baserriko lasto-ganbaran. BEÑAT ABASOLO

### Gabonetako iragarkia grabatzen laguntzeko deia herritarrei

Aretxarte merkatarien elkarteak, AZ Gaubelak-ek eta Kepa Errasti aktoreak bat egingo dute beste urte batez, Gabonetako iragarkia grabatzeko. Horretan laguntzeko eskatu diete herritarrei, eta domekarako deitu dituzte; 11:00etan, parrokiaren aurrealdean elkartuko dira Urkulura igotzeko. *Braveheart* filma hartuko dute oinarri.

### Santa Zeziliaren omenezko ekitaldia dago martitzenean

Leizarra musika eskolak *Musikalean* izeneko ekitaldia eskainiko du Santa Zeziliaren omenez, martitzenean, zaindariaren egunaren bezperan. Trikitilariak, banda, dantzariak eta solfeoak umeen abesbatza elkartuko dira besteak beste, Herriko Plazan (18:00). Ondoren, txokolate-beroa hartuko dute parte-hartzaile guztiek.

### Sarek batzarra deitu du Gabonetako ekitaldiak prestatzeko

Abenduaren 30ean eta 31n, *Gari Atxabaltara!* leloarekin, kalean hainbat mobilizazio egiteko asmoa agertu du Aretxabaleako Sarek. Hori herritarrekin batera prestatu gurako luke, eta, horretarako, bilera irekia deitu du datorren egunerako, azaroaren 23rako; 18:30ean izango da, Murruxok Durana kalean duen egoitzan.

### Gazte Koordinadora Sozialistak hainbat ekitaldi egingo ditu

Gazte Koordinadora Sozialista Deba Bailarak hainbat ekintza antolatu ditu biharko. Eguerdian, *Errepresioaren aurpegiak* izeneko hitzaldia egingo dute Herriko Plazan (12:00), eta arratsaldean (17:00), bola-txapelketa bolatokian. Iluntzean (19:30), Berandu Baina Lehen eta K-Tarsia taldeen kontzertuak izango dira, plazan.





Haurrak Eskola Kiroleko topaketan maiatzean, Eskoriatzan. GOIENA

## Jazarpenei aurre egiteko lanketa aurkeztuko dute

Datorren astelehenean Hurren eta Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuta, hezkuntza ez formaleko hainbat eragilek adin txikikoen jazarpenean aurka landu duten protokoloa aurkeztuko dute Luis Ezeizan, hitzaldi batekin

### Hasier Larrea ESKORIATZA

Adin txikikoekin jarduten duten Eskoriatzako elkarte ugariak kideak, tartean musika eskola, ingeles akademia, kiroldegi, gazteleku, ludoteka, kenpo elkarte eta liburutegikoak, jazarpene egoerak atzemateko formazioa jasotzen aritu dira asteotan, Udalaren ekimenez. Lehen urrats hori emanda, protokolo bateratu bat adosu dute, horrelako egoeren aurrean erantzuteko. Gainera, irudi bat ere diseinatu dute, pertsona helduek osatutako etxe baten itxurakoa, jazarpenearen kontrako babeslekuak identifikatzeko.

Bada, egindako lanketa eta aipatutako irudia jendaurrean

aurkeztuko dituzte azaroaren 20an, Hurren eta Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuta. Luis Ezeizan egin dute hitzordua, 17:00etan. Jazarpenearen kontrako argazkia aterako dute lehenengo, prozesua azalduko dute gero, eta, azkenik, 18:00etan, Kultur Etxean, bullying egoerak minimizatzeko ingurune seguruak nola sortu izango du hizpide Ortzadar elkartearen Itsaso Zuberogoiak.

### Bullying-a aztergai

Gurasoengan hausnarketa bultzatzeko hitzaldia izango da, eta, hezitzaileak GOIENARI azaldu dionez, hainbat ildo jorratuko ditu: "Gatazka eta bullying-a

desberdindu, bullying-ean sakondu, ziberbullying-arekin lotutako *grooming* eta *sexting* kontzeptuei aipamena egin, lehen jazarpene kasuak ze adin tartetan gertatzen diren zehaztu, erasotzaile eta biktimaz gain ikuslearen profila ere badagoela adierazi, eta adimen emozionalean oinarrituta prebentzioa nola egin azaltzen saiatuko naiz".

### Etzi, pelikula

Gaiarekin jarraituz, aurreko egunean, hau da, domekan, *Un pequeño mundo* filma proiektatuko dute Zaldibar antzokian, 19:00etan. Eskola jazarpene kasu bat kontatzen du, eta ez da gomendagarria haurrentzat.

### Hirugarren aldiz egingo dute hazten doan Telmo jaia

Pandemiaren testuinguruan sortu zuen lagun talde batek Telmo jaia. Azaroan egiten dute duela bi urtetatik, eta jada prest dute hirugarren aldia, bihar bertan, zapatuan, ospatuko baitute. Bitxia da ospakizunaren jatorria: "Eskoriatzarrok parrandan Aretxabaletan edota Arrasaten batzen ginen, eta amorru pixka bat ematen zigun; *zerga-*

*tik ez gara ba herrian elkartuko?* Horren aitzakian ospakizun egun bat asmatu genuen, Telmo jaia. Telmo koadrilakook kalera ateratzen dugun panpina da, pixkanaka gero eta ezagunago egin dena. Haren omenezko ospakizuna da, beraz, Telmo eguna", azaldu du Arane Zubiak.

Kontzejupe inguruan garatuko dute egitaraua. 19:00etan trikipoteoarekin hasiko dira, 23:00etan DJ Motok musika jarriko du, eta 02:00etan urdaiazpiko-hanka bat zozkatuko dute.

### Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizun berria

Eskoriatzan hain maitatuak diren pailazoen *Ez gara jaitsiko* emanaldiaren estreinaldia egingo dute Manuel Muñoz kiroldegian. Saioan zehar zuhaitzetara igo eta espero gabeko tokietara helduko dira. Hitzordua hilaren 24an izango da, ostirala, 18:00etan, eta sarrerak salgai daude kiroldegian bertan eta *Bibe.me* webgunean, 6 euroan.

## Gatzagako 2024ko egutegiari aurpegia jarri diote bizilagunek

Leintz Gatzagako Udalak urtero etxetz etxe banatzen duen egutegirako argazkiak atera zituzten hilaren 11n

### H.L. LEINTZ GATZAGA

Pilotalekua argazki estudio bihurtu zuten joan den zapatuan gatzagarrek. Deialdiak "herri-giroan egiten diren ekintzek izan ohi duten erantzuna; alegia, bikaina" izan zuelako eskertuta azaldu zen Dorleta Elkorobarrutia alkatea. 2024ko udal egutegirako talde-argazkiak ateratzeko elkarte ziren, eta sokatiran egiteko agindu zien Juan Luis Zabala argazkilariak, "euskaldunon izaeraren nolabaiteko erakusle". Figuranteak esaneko agertu ziren, baita "hunkituta" ere, "herria batuta" ikusita.



Sokatiran, argazkiak ateratzen. GOIENA

### Sanmilixanetan ere, fin

Asteburu gogoangarria hasteko modua izan zen hura. Izan ere, arratsaldean kantu-poteoan, eta, biharamunean, San Milixan azokan aritu ziren, besteak beste, poltsak, arropak, jakiak,

bitxiak eta bestelako produktuak erosten eta Sorginak Emakume Taldekoen taloak jaten. Eta, beste urte batez, gatzagarrek bakarrik ez, bailaratik oinez bertaratutakoak ere izan ziren, Gatz Bidea Takarraran taldeko korrikalariak barne.

## OHARRAK

### Santa Zezilia kontzertuak

Beheko Errota musika eskolako bandak Santa Zezilia eguneko bina emanaldi eskainiko ditu. Bata gaur, ostirala, Zaldibar antzokian, eta bestea azaroaren 22an, Herriko Plazan.

### Rantxerekin dantzatzera

Bihar, zapatua, Duo Imperial musikariek dantzarako plan ederra eramango dute Zaldibar antzokira, 19:00etan.

### Odola emateko aukera

Martitzenean, hilak 21, Gipuzkoako Odol Emailek elkarteak baliabideak jarriko dituzte Herriko Plazan 16:30etik 20:15era, 18 eta 70 urte arteko herritarrek odola eman dezaten.



## KONTU KONTARI

**Miren Arana Pagaldai** ESKORIATZA

Irailaren 28an 91 urte bete zituen Joxe Mari Romaratezabala Badiolak (Eskoriatza, 1932). Marin elizateko Bidebeitiabeheko baserrian jaio baina herrigunean bizi izan den eskoriatzarrak, urteak joan urteak etorri, gogoan ditu oraindik ere gazte zeneko pasarte eta bizipenak: gerrak, lanak, soldadutzak, baserrian eta kalean bizitako pasarteek badute tokia bere oroitzapenen artean. Hala, ondo gordetako kontuak eta bizi izandako gora-beherak kontatu ditu.

**Gerra garaia**

"Gerraz ere gogoratzen naiz; Gernika bombardatu zutenean, Marinen nengoen eta guztia aeroplanoz beteta zegoen. Gasteiz aldean eskuindarrak zeuden eta beste aldean *miliziano* izenez ezagutzen genituenak". Bost urte baino ez zituen arren, gogoan ditu bizi izandako istorioak: "Gure etxean sei hilabete geldi egon ziren, Franco prestatu artean, edo hori esaten zuten; *Te voy a traer una pistola!* esaten zidaten, baina aurkakoak gerturatzean alde egin zuten".

**"Lan asko eginda"**

19 urte zituela sartu zen lan munduan, eta 1992ra arte buru-belarri aritu zen hainbat tokitan; 60 urte lanean ibili ostean hartu zuen erretiroa: "Lan asko egindakoa naiz; 19 urterekin sartu nintzen obretan, TE-SAn, eta udaberri arte izan nintzen Arrasaten. Gero, Mendikurtzaren zerran egon nintzen, soldadutzara joan arte".

Burgosko zalditerian ibili zen Joxe Mari Romaratezabala soldadutza garaian; ganadu artean ibiltzea ohikoa zuenez, "ondo" aritu zen: "*Caracol* zirenek asko sufritu zuten; ni ganadu artean, aldiz, ondo ibili nintzen. Desfileetan zaldi gainean ibiltzen ginen; oraindik gogoratzen dut horietako batean emakumeek zigarroak bota zizkigutela; nik ez nuen erretzen baina lagunentzako hartzen nituen".

Soldadutza amaitzean, gelditu gabe ibili zen eskoriatzarra, Leintz Gatzagako urak ipintzen, bertako basoetan lanean eta baita ikazkin ere. 1958an, ALZAn hasi zen lanean, eta 63. urtera arte bertan aritu zen; ALZAn lana utzi eta urte berean sartu



Joxe Mari Romaratezabala Badiola, 'Kontu kontari' saioan. MARKEL ARRAYAGO

# "Gure gazte-denboratik hona, asko aldatu da mundua"

**JOXE MARI ROMARATEZABALA BADIOLA**

Bizi izandako pasarte eta oroitzapenak gogoratu, Egokiena elkartearen otordu baten bueltan bilduta aritu dira, Goiena telebistako *Kontu kontari* saioan

zen Ederlanen, eta bertan egin zituen 1992an erretiroa hartu arteko urteak.

**Marinetik Dimara**

Urte horietan maitemindu ere egin zen Romaratezabala; Urkiolan dantzan ezagutu zuen etorkizunean emazte izango zuen emakumea, Lena Lekue: "Urkiolako erromerian dantzan ezagutu genuen elkar, eta urtebetera ikusi genuen elkar berriz ere. Lenak argazki batzuk atera zizkidan eta postaz bidaliko zizkidala esan zidan. Argazkiak iri-

**"GASTEIZ ALDEAN ESKUINDARRAK ZEUDEN ETA BESTE ALDEAN 'MILIZIANO' IZENEZ EZAGUNAK"**

**"92AN ERRETIRATU NINTZEN; EMAZTEA HIL ETA NI JUBILATU ARTE URTE LATZAK PASA NITUEN"**

tsi eta berehala erantzun nion, baina ez nuen erantzunik jasotzen, eta San Inazio egunean berriz idaztea erabaki nuen". Bi kartak batera iritsi, eta orduan jaso zuen erantzuna Joxe Marik.

Dimakoa zen Lena, eta Marinetik joan-etorrian aritu zen eskoriatzarra; lehenengo bizikletan, eta autobusean ostean: "Beraiek aurkitu zidaten lo egiteko lekua, Bilaren; han autobus geltokia zegoen". Bi urte eta erdi handik hona ibili ostean ezkondu ziren Lamindaon, Lenaren auzoan; gero, baina, Mariner

bizitzera joan ziren eta bi seme-alaba izan zituzten.

Emaztearekin "oso pozik" bizi izan zen Joxe Mari. 1987an hura minbiziz hil zen arte, urte gogorak oroitzen ditu senarrak: "92an jubilatzen nintzen, eta hura hil eta ni erretiratu arte urte latzak pasa nituen".

**Egokiena elkarte**

Egokiena elkarte 1974an inaurratu zen, San Pedro bezperan; Edorta Alegria, Javier Armendariz, Eustakio Badiola eta Joxe Mari Romaratezabala dira elkartearen fundatzaileak: "Hasieran, 80 sozio ginen; obra hasi genuenean, eta zabaldu aurretik". Gero hogeitahi batu ziren, eta beste hogeitahi geroago; 150 izatera ere iritsi ziren. Orain 134 dira, baina Romaratezabalak aitortu du ez dela lehenengo "gauza bera": "Pandemia pasatu zenetik, ez da gauza bera; ez dago giro berdina".

"Beti lehenengo ezin daiteke" adierazi du aurtengo mus txapelketan galdu eta gero. Hamar txapel irabaziak ditu Romaratezabalak elkartearen, baina ez daude guztiak armairuan gordeta; ozeanoaz bestalde dago bat, bilobarekin: "Ameriketara, lehen, txaleko bat ipintzen zieten irabazleei, baina bilobak txapel bat Seattle-ra eraman zezakeen galdetu eta eraman zuenetik, jokatzen duten bakoitzean txapela janzten dute garaileek".

**Gaurko bizimodua**

Erretiratu eta gero Marinen dituen lurretan baratzea jarri eta han aritu da ordutik lanean; kotxean joan-etorriak egiten ditu etxetik baratzerara; izan ere, gidabaimena berritu berri du: "Duela gutxi berritu dut kotxe-karneta, eta hiru urterako baimena eman didate". Gazte zenetik bidea "gutxi" aldatu dela aitortu du Joxe Marik.

Bizimodu ona izan duela azpimarratuz, aholku bat eman die gaur egungo gazteei: "Gure gazte-denboratik hona, asko aldatu da mundua. Gazteek ikasi egin behar dute. Lana nahi izanez gero, aurkituko dute ostean; lehenengo, ikasi".



Elkarrizketa bideoan ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA

ZTB jardunaldietan, Bergarako Amaia Iturrospe, Gorka Kortabarria, Jokin Labaien, Maider San Torcuato eta Itxaso Calbano ikerlariak hitzaldia eman dute asteon Seminarixoan, eta euren ikerketa arloak azaldu dituzte Goienagusiko kideen nahiz Aranzadi ikastolako ikasleen aurrean.

#### Polimeroak aztertzen

Materialen Fisika Zentroko X izpietako laborategiko teknikaria da Amaia Iturrospe, eta polimeroekin egiten du lan, monomeroz osatutako kateekin: "Monomeroa molekula txiki bat da, normalean karbono hidrogeno eta beste konposatu batzuek osatutakoak. Bata bestearekin elkartuz polimeroa osatzen dute". Egunerokotasunean, plastikoe-tan daude, esaterako.

Bere lana honela definitu zuen: "Egiturak nanoeskala batekoak dira, eta X izpiak modu berezian erabili behar dira. X izpien iturri bat daukagu, laser bat bezala laginera gerturatzen da, eta lagin horrek sakabanatu eta bi dimentsioko irudi bat sortzen du. Bi dimentsiotako lagina pasatzen dugu dimentsio bateko kurbara. Horrekin ikusten dugu polimeroak ze egitura duen".

#### Informazioa garraiatzen

Gorka Kortabarria Achucarro Basque Center of Neuroscience-n dabil. Garuneko zelulen funtzionamendua ikusita, horien geneak manipulatzeko dituzte gaixotasunak ikertzeko. Bere tesiak epilepsian du fokua, eta sipnasia aztertzen du: "Neuronen seinalearen intentsitatea altuegia da. Seinale asko dator, eta hurrengo neuronak seinale asko garraiatuko du. Gure hel-

# Seminarixoa Bergarako bost ikerlari gazteren ispilu, ZTB jardunaldietan

Azken urteetan bezala, Bergarako ikerlari gazteek euren ikerketen azalpenak eman dituzte Seminarixoan, ZTB jardunaldien barruan, eta polimeroez, neurozientziaz, adimen artifizialaz eta biomedikuntzaz gehiago ikasi ahal izan zuten bertaratutakoek

burua da terapia genetikoaren erabilera seinaleen intentsitatea jaistea".

DNA diseinatuta, birus ez patogenikoekin infektatzen dituzte zelulak: "Besikula presinaptikoak mozten dira eta neurotransmisoreak ezin dira as-

katu. Hortaz, hurrengo neuronak informazio gutxiago jasoko du. Horrela, lehen neuronak seinale asko izan arren, hurrengo normaltasunera itzultzea espero da". Animalia epileptikoetan aplikatuko du, eta azaldu zenez, lankide batek tresna

bera erabili du parkinson modeloetan.

#### Adimen artifiziala makinetan

Jokin Labaien matematikaria ikerlaria da Ikerlanen. Tesia aurkeztu berri du, eta makinaren anomalia detekzioa, adimen

artifizial esplikagarria (AAE) eta anomalia diagnosis jorratu ditu: "Makinak digitalizatuta daude; datuak denbora errealean jasotzen dituzten sentsore ezberdinak dituzte, eta datu horiekin entrenatzen dira modelo matematikoak. Ondo eta gaizki funtzionatzea zer den esaten zaie; denbora errealean datuak jasotzean, makina kapaza izateko akatsik egon den ala ez ikusteko. AAE saiatzen da kuxta beltza zabaldu eta makinak hartutako erabakien azalpena ematen. Makinari sentsoretatik jasotako datuak sartzen dizkiogu. Esaten du akatsa eman duela, baina zergatik egon da akatsa? Erantzuna ematen du".

#### Bitartekari lanetan

Maider San Torcuato eta Itxaso Calbanok Biomedikuntza gradua ikasi zuten eta Biogipuzkoan dabilta lanean. San Torcuato Osasun Berrikuntzako teknikaria da, eta bere lana da berrikuntzako osasun proiektuetan inguruko enpresen eta Osakidetza lan-gileen arteko harremana bultzatzea: "Batuetan enpresek dituzte beharrak Osakidetzan proiektuak egin eta garapenak probatzeko; edo alderantziz. Adibide bat da Radar proiektu europarra".

Calbanoren kasuan, metodologia eta estatistika zerbitzua ematen die Osakidetzako klinikoei eta eurengana hurbiltzen diren enpresa bioteknologikoei. Profil klinikoko langileekin ikerketa planak definitzen dituzte: "Enpresen kasuan, gehien bat, negozio eredu nahiz osasun proiektuak ezagutzen ditugu". Horren arabera, jarraipen eta aholkularitza zerbitzua ematen diete haien produktuak osasungintzan probatzeko entsegu kliniko baten testuinguruan.



Gorka Kortabarria, Jokin Labaien, Maider San Torcuato, Itxaso Calbano eta Amaia Iturrospe, eguaztenean Seminarixoan. I.A.A.



**AMAIA ITURROSPE** CFM-KO X IZPIEN LABORATEGIETAKO TEKNIKARIA

"Plastiko guztiak polimeroak dira, baina polimero guztiak ez dira plastikoak. Naturan, adibidez, DNA. Base nitrogenatuarekin eratutako kate luzea da".



**GORKA KORTABARRIA** NEUROZIENTZIAKO DOKTORETZA-IKERLARIA

"Epilepsian, sinapsian gertatzen dena interesatzen zait. Lankide batek tresna bera erabiltzen du parkinson modeloan, eta emaitza interesgarriak ari da lortzen".



**JOKIN LABAIEN** IKERLARIA IKERLAN ZENTRO TEKNOLOGIKOAN

"Makinaren anomalia detekzioa, adimen artifizial esplikagarria eta anomalia diagnosis jorratu ditugu tesian. Adimen artifiziala erabili dugu horretarako".



**MAIDER SAN TORCUATO** BIOGIPUZKOAKO BERRIKUNTZA UNITATEKO TEKNIKARIA

"Gure kasuan ez dugu horren lan tekniko egiten; orokorragoa da. Gipuzkoako pazienteetara eta Osakidetzako ikerketara dago bideratuta gure lana".



**ITXASO CALBANO** BIOGIPUZKOAKO IKERLARIA

"Saiatzen naiz metodologia eta estatistika zerbitzua ematen Osakidetzako klinikoei nahiz gugana hurbiltzen diren enpresa bioteknologikoei".



Eibarko erretiratuen dantza taldea martitzenean, Mizpirualdeko emanaldia amaitu osteko talde argazkian. MIZPIRUALDE

# Mizpirualdeko egoiliarren errutina alaitzeko astea

Mizpirualdeko egoitzan Kultura Astea ari dira ospatzen hilaren 13tik 18ra; orain arteko ekintzetan musika eskolako umeak izan dira protagonista, Eibarko erretiratuen dantza taldearekin batera. Bihar bazkari berezia eta mariatxiak izango dituzte, besteak beste

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA  
Aste berezia ari dira bizitzen Mizpirualden, aurten azaroaren 13tik 18ra ari dira-eta ospatzen Mizpirualdeko Kultura Astea. Aste osoan zehar 17:15ean eta 18:15ean ekintza berezi bana antolatu dute egoiliarrei begira.

Aste barruko ekintzak ondo joan direla diote antolatzaileek, egoiliarren egunerokoa alaitzeko ekimen oso interesgarria dela.

**Umeak egoiliarren aurrean**  
Astelehenean, magia ikuskizun batekin abiatu zuten ospakizuna,

eta, ondoren, Bergarako Musika Eskolako soka taldeak emanaldi txiki bat eskaini zuen; biolin eta biola-jole gaztetxoek jo zuten. Martitzenean, berriz, Eibarko erretiratuen dantza taldearen erakustaldiaz gozatu ahal izan zuten Mizpirualdeko

egoiliarrek –argazkian, dantzariak, emanaldia bukatu ostean–. Ondoren, musika eskolako hasiberrien abesbatzaren emanaldia izan zuten. Eguaztenean, egoiliarren artean arrakasta handia izan ohi duen bingoa egin zuten, opari berezien zozketarekin, eta ondoren musika eskolako trikitilarien eta gitarr-joleen kontzertua izan zuten. Atzo, eguena, Eva akademiaren eskutik fitness flamenko saio bat izan zuten, eta ondoren musika eskolako dantzarien txanda heldu zen.

## Bazkari berezia bihar

Gaur eta bihar borobilduko dute Kultura Astea. Gaur, 17:15ean hasita, *Oroitzapenerako kantuen* izena jarri dioten emanaldia izango dute.

Bihar, hilak 18, goiz eta arratsaldean izango dute egitaraua. Hasteko eta behin, bazkari berezia izango dute 12:30ean hasita eta, ondoren, 13:45ean, Dominguez mariatxiaren kontzertua egongo da. Egunarekin amaitzeko, Araba Musikal elkartearen soinu-jolearen kontzertua izango dute, 15:00etan.



Udaltzain bi ikastaroan. B.U.

## Larrialdiei aurre egiteko ikastaroan ari dira parte hartzen

Udal langileendako eta auzo alkateendako "ikastaro berri-tzaile bat" antolatu du Udalak. Bihotz-biriketako bizkortzerako funtsezko trebetasunak eta desfibriladoreak –gaur egun bederatzi daude herriko eraikin publikoetan– eraginkortasunez erabiltzen ikasteko saioak egiten ari dira. Guztira lau orduko hiru saio egingo dituzte, eta 40 bat lagunek hartuko dute parte.

AZAROAK 20-26

 Manso Optika

**BLACK FRIDAY  
LUZEEEEEEEEEEEE  
EEEEEEEEEEENA  
OPTIKA HONETAN**

Zure armazoia erostean, zure lente progresiboak MaxVita VS %70eko deskontuarekin.

# Eskolan hasita, elikadura eskubidean sakontzera

Elikadura Mahaia 'Elikadura burujabetzan kataiari helduz' jardunaldiak antolatu ditu, elikadura eskubidea, ekoizle eta kontsumitzaileendako bidezko prezioak, eta tokiko garapena oinarri; herriko ikastetxe guztietan hasiko da kanpaina, lanketa bereziekin

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Elikadura Mahaia *Elikadura burujabetzan kataiari helduz* izeneko jardunaldiak aurkeztu ditu asteon. "Herritar guztientzako elikadura osasuntsu eta agroekologikorako eskubidea bermatzeko herri mailako erantzuntan sakontzea nahi dugu", diote. Bost ekimen antolatu dituzte: hiru, ikastetxeetara bideratuta; eta bi, herritar guztiei zabalik. Ikastetxeekin azaroan, abenduan eta urtarrilean egingo dituzte lanketa bereziak; saio irekiararako oraingo ez dago datarik.

Elikadura Mahaia osatzen dute Bergarako Udalak, Deba Garaia Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartek, Ereindajanak, Ehunduk eta Eskubaratz elkartek, eta elikadura burujabetzan urratsak eman eta elkarlanean arlo ezberdinei erantzuteko proiektuak garatzen ari dira.

**Hiru ekimen ikastetxe guztietan** Azaroan, *Ekoizpen duina, kontsumo herrikoia* material didaktikoa baliatuz, Bergarako ekoizleekin elikadura osasuntsuaren eta baratzezaintza ekologikoaren

inguruko lanketa egingo da LHko hirugarren mailako ikasleekin. Ikasgelan zein baserri-bisitetan, sasoiko plater bakoitzaren atzean dagoen lana ezagutuko dute. Abenduan, *Zure platerean hasten da mundua* ekimena gauzatuko dute DBHko 3. eta 4. mailako ikasleekin. Gabonen atarian ohikoak diren ikasbidairako otarren inguruko ekimena da, eta aurtengo berritasuna bailarako produktuekin osatutako otarreak izango dira. Urtarrilean, Mireia Alberdi nutrizionistak *Mila kolore, mila zapora* proiektua aurkeztuko die LHko 4. mailako ikasleei; fruta eta barazkien onurez jabetuko dira ikasleak.

Saio irekietan, oinarriko sukaldaritza ikastaroa eta elikadura eskubidearen gaineko mahai-ingurua egingo dituzte.

## "Erpin askoko gai konplexua"

Antolatzaileek diote "erpin asko" dituen "gai konplexua" dela: "Pandemia ondoren eta egungo testuinguruan, erosketa-erabakien parte diren alderdiak berrantolatu egin dira, eta prezioak paper oso nabarmena du kontsumo-erabakietan. Elikagai freskoak eskuratzeko desberdinkeria areagotu, eta ekoizpen zein komertzio txikiaren sektorerako doazen sarrerak geroz eta baxuagoak dira".



Elikadura Mahaia antolatutako jardunaldien berri emateko agerraldia, azokan. J.B.L.

## Azoka barruko lanak, "martxa onean"

Oxirondo azoka biziberritzeko "ezinbesteko" ikusi zen obra "martxa onean" doa, Udalaren arabera. Hala, lehen solairuko eskumako aldea berritzeko lanak Gabonetarako bukatuko dira, eta, ondoren, beste lizitazio bat aterako da, besteak beste, sukaldearen erabilera arautzeko. Udalaren aurreikuspena da 2024ko udaberrirako azoka berritua martxan egotea.



Azokako lehen solairuko eskumaldea itxita, obren ondorioz. J.B.L.

## GORA ETA BEHERA



## "Noiz arte bidea halako egoera kaskarrean?"



Zirkulazio handiko errepide zati baten egoera kaskarra salatu du gidari batek asteon: "Noiz arte egongo da errepidea halako egoera kaskarrean Ola auzo inguruko zuzengune horretan?"

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo [688 69 00 07](tel:688690007).

## Bi hitzaldi antolatu dituzte Lacomberen erakusketaren harira

Joan den astean ireki zuten Georges Lacombe (Ortheze, 1879 - Paris, 1947) hizkuntzalari eta euskaltzain osoaren artxiboari eta bibliotekari buruzko erakusketa, Olaso dorrean. Euskaltzaindiak, Bergarako Udalak eta Olaso Dorrea Fundazioak antolatu dute, eta abenduaren 1era arte egongo da ikusgai. Bi hitzaldi antolatu dira, Lacomberen

funtsaren garrantzia azaltzeko baliagarri izango direnak. Lehen hitzaldia azaroaren 23an izango da, 19:00etan: Jabier Kaltzakorta ikertzaile eta euskaltzain osoak Georges Lacomberen artxibo eta bibliotekaren nondik norakoak agertuko ditu.

Bigarren berbaldia azaroaren 29an izango da, 19:00etan, eta Pako Sodupe hizkuntzalari eta idazleak Telesforo Monzonen kulturgintza izango du mintzagai. Hitzaldi biak Olaso dorrean izango dira.

## OHARRAK

### Txapa irrtiaren zuzeneko San Joxepen

Azaroaren 30eko greba feministaren bueltan zuzeneko saioa egingo du Txapak gaur San Joxepe elkartean, 17:00etatik 18:30era.

### Movember Gara: egitarauko azken ekintzak

Gaur spinning rock saioa izango dute, Agorrosinen (19:00). Azaroaren 23rako bertso saioa antolatu dute Pol-Pol tabernan (19:00), eta hilaren 24an txistepotea egingo dute kaleetan zehar (19:00). Egitarauarekin amaitzeko, azaroaren 25ean, indarkeria matxista salatzen manifestazioarekin bat egingo dute (12:00), eta, ondoren, biboteen enkantea izango dute, Irala kalean.

### Rote Zora taldearen liburua eta dokumentala

1974an Alemanian sortutako talde feminista armatuaren gaineko aurkezpena antolatu du Angiolillo liburutegiak. Bihar izango da, azaroak 18, kartzela zaharrean (17:30).

### 1957an jaiotako irteeran izena ematea

Hilaren 25ean Santa Marinaran elkartuko dira (09:45) Zarautzera joateko; Talai Berri upeltegia bisitatuko dute, eta Kirkilla jatetxean bazkaldu. Izena emateko, 100 euro ordaindu behar dira: ES88 3035 0189 3118 9103 8659 (Laboral Kutxa).

# "Presio gabe noa, baina gauzak ondo egitera"

FERNANDO COBOS MUSHERRA

Datorren astean Sorian egingo duten Munduko Mushing Txapelketan lehiatuko da 'Luko' txakurrarekin; lehiakide gazteagoekin neurtu beharko ditu indarrak

Xabier Urzelai BERGARA

Iazko maiatzean Britainia Handian bigarren postuan sailkatu ondoren aurtengo Munduko Txapelketan lehenengo koskatik borrokatzeko gogoz zegoen Fernando Cobos (Bergara, 1959). Eta hain justu, inoiz baino gertuago izango dute hitzordua, datorren astean antolatuko dute eta Olvegan (Soria) nazioarteko hitzordua. Baina, 59 urtetik gorako kategoria kendu egin dute, eta, eguaztenean lehiakide dezente gazteagoekin neurtu beharko ditu indarrak.

**Etixerako lanak eginda daude?**

Bai. Udan mendi lasterketa batzuk egin nituen sasoiaren mantentzen laguntzen didatelako, gehienez 20 kilometrotako lasterketak egiten ditut, eta abuztutik aurrera hasi nintzen Munduko Txapelketara begirako entrenamendu espezifikoko egiten. *Luko* ere oso sasoi onean dago, Munduko Txapelketarako gertu gaude.

**'Luko'-rendako ere ez esperientzia berria...**

Ez, aurreko Munduko Txapelketa ere harekin egin nuen. Lau urte dituen txakurra da *Luko*. *Oker* gazteagoa da eta ordeko txakurra da. Entrenamenduak biekin egiten ditut batera, baina lasterketetan *Luko* etortzen da nirekin.

**Lastima, zure kategoriaz kanpo ibiliko zara...**

Pena da, bai. Iaz bigarren sailkatu nintzen eta banuen lehenengo postuagatik lehiatzeko gogo. Espainiako Kopako probatan lehiatzen naizenean, esaterako, ohituta nago 39 urtez gorakoekin lehiatzera, baina nire kategoria 59 urtetik gorakoena da, eta Sorian ez da egongo halakorik. Munduko Txapelketa Espainiako federazioarekin jokatuko dugu, eta nagusiagoa banaiz ere taldean sartu naute; noski, adin tartea igarri egiten da, alde handia dago.



Fernando Cobos eta *Luko*, iaz lortutako zilarrezko dominarekin. GOIENA

## "NORMALEAN PATIN GAI NEAN ENTRENATZEN NAIZ EUREKIN; GEHIAGO GOZATZEN DUTE"

**Podiuma garestiago dago orain.**

Zalantza barik. Bestalde, lasterketara askoz presio gutxiagorekin joango naiz. Baina saio ona egin nahi dut, ea aurrealdean ibil naitekeen.

**Entrenamenduetan, txakurrei lotuta egiten duzu korrika?**

Ez, oso noizean behin ibiltzen gara txakurrei lotuta korrika; ez da gomendagarriena. Hau da, txakurrekin lanketa konkretu bat egiten dugu, eta ondoren, nire entrenamendu saioak aparte egiten ditut. Txakurrekin entrenatzera Gorlara edo Landara joaten naiz eta normalean patin gainean joaten naiz eurekin, edo bizikletatik egiten dute tira, bestela. Gorlan, esaterako, zirkuitu txiki bat daukat entrenatzeko.

**Bada, lasterketak txakurrari lotuta egin behar badituzu, badu logika horrela entrenatzeak, ala?**

Bi astean behin entrenatzen naiz eurekin korrika, baina ez da gomendagarriena, norberak leher eginda amaitzen duelako eta txakurrendako oso frustrantea delako. Eurek topera joan nahi izaten dute, eta, noski, guk ezin dugu horren azkar joan. Nire kabuz korrika egiten dudanean serieak 3,30era egiten ditut, eta lasterketetan, txakurrekin kilometroa 3,10era egiten dugu. Imagina dezakezun moduan, erritmo horietara tira egiten dizutenean... gorputzak gero igarri egiten du.

**Ze ezaugarri ditu lasterketak?**

Moncayoko magalean ibiliko gara, Olvegan. Zirkuituak sei kilometro ditu eta hango lur gorriko pistetan ibiliko gara. Duela bi aste izan ginen zirkuitua ikuskatzen. Mundu osotik etorriko da jendea, hitzordu handia da.

**Mushingean, denboraldiko ze puntutan zaudete?**

Denboraldi hasieran gaude. Bi aste barru, esaterako, Galizian izango dugu Espainiako Kopako lasterketa bat, eta ondoren etorriko dira Kataluniakoa, Sevillakoa... Mushing denboraldia martxora arte luzatzen da.



Bergarako pilotari gazteak, arxibo irudian. GOIENA

## Gaurtik hasita agenda betea dator Udal Pilotalekuan

Gipuzkoako banakako partiduak jokatu zituzten atzo; gaurko eta biharko jaialdiek osatuko dute asteburua

X.U. BERGARA

BKEko Pilota Sailak antolatuta, gaurtik hasita bi jaialdi egingo dituzte Udal Pilotalekuan. Gaur, egubakoitza, 18:45ean errendimenduko Gipuzkoako Txapelketako partiduekin hasiko dute jaialdia. Alebinen partidua izango da lehenengoa, eta Agirre bergararrak Azpeitiko Aranburu izango du aurrean. Jarraian, Montalvok Ataungo Labakaren kontra jokatuko du, eta, azkenik, infantil mailan, Zugastik Aloña Mendiko Cristobal izango du aurrean.

**Jarraian, nagusiak**

Gaztetxoan partiduen ondoren etorriko dira binakako partiduak, nagusienak. Eta hor, bigarren gazte mailan Otazuk eta Alberdik osatutako bikoteak Errenteriako pilotariak izango ditu aurrean. Eta, seniorren hirugarren mailan, Zugastik eta Oter-

minek Alegiako pilotarien kontra izango dute norgehiagoka.

**Zapatu arratsaldean, gehiago**

Bihar, zapatua, ere pilota jaialdia egongo da pilotalekuan. Hasteko, eskolarako benjaminen partiduak izango dira, eta hor norgehiagoka mordoxka jokatuko dituzte. Hala, Bergarako pilotariekin batera izango dira Eskoriatzakoak, Soraluzeakoak, Eibarkoak eta Lagunakekoak, eta frontoia bi zatitan banatuko dute norgehiagoka guztiak ondo jokatu ahal izateko.

Bukatzeko, 18:00etan hasita jokatuko dituzte jaialdiko azken bi partiduak, Gipuzkoako errendimenduko banakako partiduak, hain zuzen. Infantilen bigarren mailan, Bergarako Zamakolak Lazkaoko Ormazabal izango du aurrean, eta kadetetan Ilarduak Zestoako Alberdiren kontra jokatuko du.

## Goizper Bergarako neskek Astigarraga hartuko dute bihar

Junior mailan lider dauden Goizper Bergarako neskek Astigarragako kontra jokatuko dute bihar (16:30) Labegaraietan. Gizonezko seniorrak, berriz, Aritzbataldiren kontra etxean 35-22 irabazi eta gero, laugarren postuan daude, eta domekan (11:15) postu bat atzerago dagoen Urolaren kantxara joango dira jokatuzera.

## Saskibaloit talde nagusiak bilbotarren bisita izango dute

Ordiziaren kantxan zazpi puntugatik (77-70) galdu zuten joan den astean Euskadiko Txapelketan diharduten Soraluze BKEkoek, eta domekan kontrario gogorra izango dute Labegaraietan (18:00), laugarren postuan dagoen Hotel Gran Bilbao Santutxu. Bilbotarrek bergararrek baino bi partidu gehiago irabazi dituzte.

# Santa Zezilia omentzeko, kaleak hartuko dituzte

Musikarien zaindariaren eguna da azaroaren 22a, eta egun horren bueltan, orkestra sinfonikoak, txistulari bandak, Bergarako Musika Eskolak eta musika bandak emanaldi bereziak emango dituzte; lehen zita bihar da, orkestrarekin, Santa Marina elizan (19:00)

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Azaroaren 22an ospatuko da nazioartean Santa Zezilia eguna, musikarien zaindariaren eguna. Bergarako musikarekin eta oro har kulturarekin duen harreman berezia ikusita, egutegian markatutako egunetako bat da, eta horren adibide da gutxienez herriko lau taldek ospatuko dutela eguna; izan ere, orkestra sinfonikoak, txistulari bandak, Bergarako Musika Eskolak eta musika bandak ekintza bereziak emenduko dute zaindaria.

## Orkestra sinfonikoa, bihar

Orkestra sinfonikoa bihar, azaroak 18, emango du Santa Zeziliaren omenezko zuzeneko; Mariaren Lagundiko elizan izango da, 19:00etan, eta sarre- ra doakoa izango da. Bost pieza joko dituzte, orkestrako zuzendari Enrike Txurrukak aurreratu duenez; lehena *Overture in C Major* izango da: "Fanny Hensel-Mendelssohn-en pieza da.

XIX. mendeko obertura, erromantizismo goiztiarraren estiloan. Bereziatasuna, musikan baino gehiago, konposatzailean dago, sasoi horretan ez ziren-eta batere ohikoak emakume konposatzaileak".

Bigarren pieza izango da Jean Sibelius finlandiarraren *Valse triste*: "Oso pieza ezaguna da, *Kuolema* (Heriotza) izeneko antzerki obra laguntzeko sortu zena". Ondoren, *Amaya* operako *Ezpata-dantza* ezaguna joko dute, Jesus Guridi gasteiztarrarena: "Euskal doinuetan oinarrituriko pieza sinfonikoa izango da". Laugarren pieza Edward Elgar ingelesaren *Nimrod* adagioa izango da: "Oso emeki hasi bai-

## MUSIKA ESKOLATIK SAN JOXEPE ETA MIZPIRUALDE BISITATUKO DITUZTE AZAROAREN 23AN

na estasi-etzanda batera eroango gaituen sentimenduz betetako adagioa da". Eta kontzertua ixteko, Ramin Djawadi alemaniarraren *Game of Thrones* telesailako soinu banda joko dute.

## Txistularien kalejira domekan

Santa Zeziliaren omenez urtero kalera irteten den herriko beste kultura eragile bat txistulari banda da. Domekan, azaroak 19, herriko kaleak alaituko dituzte 11:00etan hasita. Txistulari bandako zuzendari Jose Miguel Laskurainek zortzi kontzertu antolatu ditu 2023rako, kalejirak aintzat hartu barik.

Gaur egun bederatzi kidek osatzen dute txistulari banda -bi txistu nagusi, hiru bigarren mailako, bi silbote eta bi atabal-, eta horrek malgutasuna ematen die askotariko errepertorioak probatzeko; domekan, baina, kalejiretan jo ohi dituzten piezak joko dituzte Santa Zeziliaren omenez.



Txurruka orkestra sinfonikoa zuzentzen, iazko Santa Zeziliaren omenezkoan. GOIENA

## Musika eskolak, hilaren 23an

Bergara Musika Eskolak hilaren 23an ospatuko dute Santa Zezilia eguna. Eguerdian, musika eskolan diharduten irakasleek bazkaria egingo dute, urteroko ohiturari eutsiz. Ondoren, 17:00etan hasita, zenbait kalejira egingo dituzte. Trikitilariak San Joxepera joango dira; bertan saio bat eskainiko dute, eta ondoren San Martin plazara joango dira kalejiran.

Eta kalejira nagusian, 17:15ean, musika eskolatik irtengo dira gazte banda, dantzariak, abesbatzako ikasleak eta gainerako ikasleak. Kalejira hori Mizpirualde egoitza pasatuko da, bertan geldialdi bat egin eta pieza bat jotzeko.

Horren ostean, kalejira plazan amaituko dute. Eta ohitura dutenez, Santa Zeziliaren omenezko ospakizuna plazan amaituko dute ekitaldi txiki batekin; gero, San Joxepe elkarteok prestatutako txokolate beroa hartuko dute ikasleek.

## Musika bandak, hilaren 26an

Musika bandak ere Santa Zezilia egunaren ostean emango du urteroko kontzertua; azaroaren 26an izango, udal pilotalekuan (12:30). Kontzertuaren egitaraua guztiz zehaztuta ez badago ere, bandako zuzendari Enrike Txurrukak aurreratu du "berezia" izango dela aurtengoa ere; pieza bereziak jotzen saiatuko dira euren zaindariaren omenez.

## Udazken Musikalaren barruan bi kontzertu antolatu dituzte aurten

Pavel Gomziakov eta Josu Okiñena protagonista bihar, eta Maddi Oihenart eta Juantxo Zeberio hilaren 24an

### J.B.L. BERGARA

Udazken Musikala ekimenaren barruan bi kontzertu antolatu ditu Udalak aurten. Lehen emanaldia bihar, hilak 18, izango da Seminarixoan (20:00). Pavel Gomziakov biolentxelo-jolea eta Josu Okiñena piano-jolea igoko dira oholtzara, *Euskal musika mundura begira* izena jarri dioten kontzertuan. Mosku, Madril eta Parisen ikasketak egin ondoren, ibilbide oparoa duen musikaria da Gomziakov; 2010ean Estatu Batuetan debuta egin zuen Chicagoko orkestra sinfonikoa.

### Oihenart-en ahots "liluragarria"

Bigarren kontzertua azaroaren 24an izango da, Seminarixoan (20:00). Maddi Oihenart eta Juantxo Zeberio izango ditu protagonista emanaldiak; antolatzaileen arabera, Oihenart euskal musika herrikoian entzun den ahotsik "liluragarri, aberats eta benetakoenetakoa" da, Zuberoako kantatzeko modu berezia ordezkatzen duena.

Bi emanaldietarako sarrerak salgai daude dagoeneko *Seminarixoa.eus* webgunean, zortzi eurotan.



AITOR AGIRIANO

## Merina Gris zuzenean gaur kartzela zaharrean, 22:30ean

Merina Gris taldearen zuzenekoarekin itzuliko da gaur Egubakoitzak Berreskuratzen ekimena kartzela zaharrean (22:30). Sarrerak kontzertu aurretik salduko dira, zortzi eurotan. Merina Grisen udazkeneko birako azken kontzertua izango da gaurkoa, denboraldi batez "hemen inguruan" kontzerturik ez dutela joko aurreratu dute-eta sare sozialetan. "Pozik" agertu dira antolatzaileak Merina Gris bezalako "talde handia" kartzela zaharrean egongo delako. Datozen kontzertuak zeintzuk izango diren zehaztu gabe badute ere, adierazi dute urtero bezala "askotariko proposamenak" ekarriko dituztela.

## Dantzaren historia bizia dira

Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo bergararrek irabazi dute 2023ko Euskal Herriko Dantza Txapelketa, 2019an eta 2022an egin bezala. Hala, Aitor Ruiz de Eginoren garaikurra ekarri dute, eta betirako geratuko da udaletxean -argazkian, dantzarien atzean-. Euskal dantzako sari preziatuena hiru aldiz irabazteagatik omenaldia egin zieten udaletxean, dantzari inguratuta.



# Babesgabe taldearen lehen kontzertua, gaur

Elgetako bost gaztek osatzen dute musika taldea, eta Ozkarbi elkartearen azaroko ekingintzen barruan egingo dute jendaurreko lehen kontzertua gaur 20:00etan. Aurretik, azken Gaztea Cover lehiaketan publikoaren saria irabazitako Uxue Kerejeta arituko da

## Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Aner Garcia-gango Valdivielsok (ahotsa), Iker Gonzalez Sanchezek (baxua), Ander Sarasua Zeberio (gitarra), Urko Lozano Etxanizek (gitarra) eta Arkaitz Errasti Astolak (bateria) osatzen dute Babesgabe taldea. Orain pare bat urte hasi ziren elkartzten. Lehenengo urratsak izan ziren; oraindik goiz zen kontzertuak ematen hasteko.

Orain sei bat hilabete, ordea, eta Ozkarbi elkartearen proposamena jaso ostean, jendaurreko lehen emanaldia prestatzeko motibazioa eta grina areagotu egin zitzaizkien. Hala, barikuan dute lehen kontzertua.

Gehienbat euskal rock estiloan jarduten du. "Taldekide bakoitzak bere gustuak ditu, baina denok partekatzen dugu rock, punk eta oi estiloekiko zaletasuna. Gehienbat euskal rock estiloan jarduten dugu, talde 'klasikoak' nahiz gaur egun modan dauden taldeak ditugu gustuko. Adibide moduan jartzeko, La Polla, Ostiada Oi, Berri Txarrak, Eskorbuto, Kaotiko eta horrelako taldeak ditugu erreferentetzat". Sorkuntza lanetan hasita badaude ere, oraindik bertsiokoak egiten dituzte eta taldekideetako baten garajeantseatu dute. "Inguruan ez da inor bizi, eta askatasun



Babesgabe taldeko kideak. UNAI FRAILE

## "AZKEN ASTEOTAN TOPERA GABILTZA; KONTZERTUA EMATEKO GOGOZ GAUDE DENAK"

guztia daukagu edozein ordutan zarata ateratzeko".

Lehenengo kontzerturako prestatuta lanak ondo doazela diote. "Azken asteotan topera gabiltza. Kontzertua emateko gogoz gaude denak". Urduri ote dauden

galdetuta, berriz: "Oraingoz ondo. Kontzertuan bertan ikusiko dugu nola gauden".

## Herritarren babesarekin

"Taldea zerotik hasi zen, hortik izena. Dirua biltzeko zozketa-txartelak atera genituen, eta Elgetako herriarengandik babes handia jaso dugu hasieratik. Ateratako diruarekin bateria, baxua, mahaia eta kableak erosi genituen. Herriaren laguntzarik, animorik eta ilusiorik gabe taldea aurrera ateratzea oso zaila izango zen".

## Pintxo bereziak izango dira domekan herriko tabernetan

Ostalariek eta Udalak elkarlanean antolatuta, Pintxo Eguna ospatuko da; argazki lehiaketa ere izango da

## L.Z.L. ELGETA

Bolatoki, Lola, Maialde eta Haizea taberneak pintxo bereziak eskainiko dituzte domeka eguerdian; izan ere, Pintxo Eguna izango da herrian. Elkarlanean aritu dira prestatuta lanetan Udala eta herriko ostalariak.

Pintxo eskaintza berezia 12:00etan hasiko da. Euro eta erdiko prezioan eskainiko dituzte, eta bezeroen artean sariak banatuko dituzte. Pintxoaren osagaiak asmatzen dituzten artean, herriko tabernetan erabiltzeko 50 euroko erosketa-bonuak banatuko dira. Domeka eguerdiko giroa alaitzeko, gainera, Jainaga eta Narbaiza trikitilariak ibiliko dira tabernaz taberna.

## Argazki lehiaketa

Argazki lehiaketa ere jokatu da. Udalak lau gai emango ditu 12:00etan, eta parte hartzaileek



Pintxoak. GOIENA

16:00ak arteko epea izango dute gai bakoitzarekin lotutako argazki bana aurkezteko. Argazki lehiaketan parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute 11:45etik 12:00ak artean. Irabazleak 50 euroko erosketa bonua jasoko du.

## Mendi irteera eta baba-jana antolatu ditu Kantsatzekek

Baba-janarena urteroko hitzordua da, eta, aurten, azaroren 26arekin egingo dute. Lehenengo, hiruzpalau orduko mendi irteera dago aurreikusita. Taldea 08:00etan abiatuko da Elgetatik eta Arrazolan ekingo dio ibilbideari. "Andastok (822 m) hainbat aukera eskaintzen ditu, eta eguraldiaren eta jendearen arabera erabakiko dugu nondik igo eta

nondik jaitsi, eta ibilbidea luzatu edo moztu". Ondotik, Elgetara itzuli eta baba-jana egingo dute. Izen-ematea egongo da, alde batetik, mendi irteerarako, eta, bestetik, baba-janerako. Bazkariaren prezioa egunean bertan kalkulatu da, gastuen arabera.

Izen-ematea zabalik da eguenera arte, hilak 23. Interesdunek [kantsatzeke@gmail.com](mailto:kantsatzeke@gmail.com) helbidea zein 690 74 00 56 Whatsapp zenbakia erabil ditzakete apuntatzeko.

## Aurretik, Uxue Kerejeta, gitarrarekin

Ozkarbiko kontzertu saioa 19:00etan hasiko da. Uxue Kerejetak zabalduko du. Gitarrarekin izango da Elgetan. Soinu txikiarekin hasi zuen musika ibilbidea. Panderojolea ere bada, eta hainbat txapel eskuratu ditu trikiti lehiaketetan. Pianoa ere jotzen du, eta azken Gaztea Cover lehiaketan finalera heldu, eta publikoaren saria irabazi zuen.



Uxue Kerejeta, Eitzako jaietan. EITZAKO JAIK

## Hamabi bikotek dihardute Gabonetako pilota txapelketan

Gizonezkoek osatutako zazpi bikote ari dira eskuz binakako 4 t'erdiko txapelketan, eta emakumezko bost bikote paleta txapelketan. Laugarren jardunaldia jokatu dute bariku honetan, eta asmoa da final-aurrekoak abenduaren 22an jokatzeko, eta finalak, aldiz, abenduaren 31n. Hogei urte betetzen ditu aurten txapelketak.

## OHARRAK

### Podologoia

Azaroko kontsulta astelehenean izango da. Txanda hartzeko deitu Maite Elkorori: 669 99 81 65.

### Suspertze-ikastaroa

Bihotz-biriken suspertzea zein desfibriladorea erabiltzen ikasteko tailerra hilaren 22an eta 23an, 18:30ean, udaletxean. Izena emateko: 943 76 80 22 edo [udala@elgeta.eus](mailto:udala@elgeta.eus).



Antzuolako Udal Liburutegian jarri duten Emakumeen Txokoa. A.U.L.

## Emakumeen Txokoa jarri dute liburutegian

60 liburu osatzen dute Emakumeen Txokoa, eta emakumeei eta feminismoari lotutako idazleen lanak, gaiak eta liburuak aurki daitezke bertan; puntu moreekin daude markatuta lanok, eta bilduma handitzen joango dira materiala jaso ahala

**Idoia Aranbarri Arzuaga** ANTZUOLA

Antzuolako Liburutegian Emakumeen Txokoa sortu berri dute. Joan den asteaz geroztik, liburutegiko apalategi batean daude kokatuta emakumeei eta feminismoari lotutako idazleen lanak. Gutxi gorabehera, irakurle helduei zuzendutako 60 liburu inguru daude "edonoren eskura", eta horiek puntu more batez daude markatuta.

Beste udal liburutegi batzuetan ere aurkitu daitezke emakumeen txokoak, eta ideia hori oinarri hartuta erabaki dute herrian ere halako bat jartzea. Modu horretan, orain arte "oharkabeen" pasatzen ziren liburu gehiagok ikusgarritasun handiagoa izango dutela diote udal liburutegitik: "Gaiari buruzko interesa duen edonork erraz identifikatzeko materiala, eta txoko propioa edukitzeak ikusgarritasuna ere ematen dio. Bestela, liburu horietako asko oharkabeen pasatzen ziren beste liburu guztien artean".

**Geratzeko etorri den txokoa**

Emakumeen Txokoa izanik, emakumeei nahiz feminismoari lotutako idazleen lanak, gaiak eta liburuak aukeratu dituzte. Azaldu dutenez, erreferentzia liburuak dira asko. Hala ere, genero guztietako liburuak aurki daitezke bertan; biografiak, eleberriak edota poesia liburuak, besteak beste.

Ez da behin-behineko txokoa izango, geratzeko etorri dena baizik, eta etorkizunera begira, orain arteko bilduma zabaltzeko asmoa ere badute liburutegian; izan ere, adierazi dutenez, gaierkin zerikusia duten "material interesgarria" atera ahala joango dira gehitzen apalategi horretan.

**EMAKUMEEN TXOKOAN BIOGRAFIAK, ELEBERRIAK EDOTA POESIA LIBURUAK AURKITU DAITEZKE**

**Datozen jarduerak**

Liburutegiak iragarri du abenduaren 17an, 18:00etan, Torresoan, 2 eta 12 urte bitarteko haur eta familientzako *Azken hostoa* Gabonetako ipuin musikatuak egongo direla Maider Alcelay eta Igor Salaren eskutik.

**Izapideak, liburutegian**

Horrez gain, Antzuolako Udala harrera eskaintzen hasiko da liburutegian ere. Izan ere, orain arte, goizez bakarrik eskaini izan da arreta Antzuolako Udaleko bulegoetan, baina, orain, liburutegian ere egongo da ohiko izapideak egiteko aukera; hala nola izen-emateak egin ahal izango dira, eta errolda ziurtagiriak eskatu; halaber, erantzuna behar duten beste beharretarako ere eskainiko du zerbitzua. Liburutegian arratsaldean egin ahal izango dira izapideak, eta ordutegia 16:45etik 19:30era izango da. Hala ere, eutsi egingo diote udaletxeko zerbitzuari ere, 08:00etatik 14:00etara.

## Gaztaina erre eguna ospatuko dute domeka arratsaldean

Urteetako tradizioari eutsiz, 100 kilo gaztaina erreko dituzte gaztaina janean, antzuolarren gozamerako

**I.A.A. ANTZUOLA**

30 urte baino gehiagoko ohiturari jarraituz, gaztaina erre eguna egingo dute domekan, arratsaldeko zazpietatik aurrera, herriko plazan. Gaztainekin batera, helduei sagardoa banatuko zaie eta haurrei, berriz, ura eta edari freskagarriak.

Urtez urte, boluntarioek erretzen dituzte gaztainak eta Antzuolako Udaleko kultura teknikari Jone Larrañagak adierazi du 100 kilo gaztaina erreko dituztela: "Erretzaileek borondatez egiten dute. Azken urtee-

tan dabiltzanak dira Imanol Garmendia, Basilio Ormazabal eta Jose Mari Iturbe". Halaber, gogoan izan ditu urte hauetan guztietan gaztainak erretzen ibili, baina zendu diren Enrique Losada, Anjel Jauregi, Salvador Peña edota Juan Ramon Aranguren, besteak beste. Larrañagak aurreratatu du ziurrenik egun hau zapatura aldatuko dutela datorren urtean.

Era berean, Anelkarrek adierazi du elkarteari laguntzeko herritarrek diru-ekarpena egin ahal izango dutela.

## GORA ETA BEHERA



### Berriro ere martxan dago Iraingo iturria


Urriaren 6ko GOIENA aldizkarian, 1.008.

zenbakian hain zuzen ere, herritar bat kexu agertu zen Iraingo iturria apurtu egin zutelako. Alabaina, hilabete geroago, ohartarazi dio hedabide honi dagoeneko konpondu dutela 1941eko iturri hau.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?**

[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

edo 688 69 00 07.



### Salgai dago Alberdi eta Legorbururen 'Memoria josten'

Ane Alberdi eta Onintza Legorburu ikertzaile antzuolarrek idatzitako *Memoria josten. Gatazka armatua Antzuolan 1958-2011* liburua salgai dago liburutegian eta Itzar liburu-dendan (6 euro). 2018an abiatu zuten ikerketa eta erregistro numerikoa jaso dute; gertatu zena el-karrizketa bidez eta orduko prentsa kontsultatuta bildu dute.

### Benjamin mailako eskolarteko pilota jaialdia bihar

Bihar 16:00etatik aurrera, Benjamin mailako neska-mutilek Gipuzkoako eskolarteko pilota jaialdia egingo dute herriko pilotalekuan. Gipuzkoako Pilota Federazioak eta pilota eskolek elkarrekin antolatzen duten jaialdia da, eta biharko partidak Antzuolako, Oñatiko, Aretxabaleto eta Elgoibarko 8-9 urteko haurrek jokatuko dituzte.

# Meaka-Irimo herri plataforma, pausoz pauso

Antzuolako Udalak Capital Energy enpresaren Trekutz parke eolikoaren berri eman ostean sortu dute parke eolikoari aurre egiteko herri plataforma; azaroaren 6an egin zuten lehen batzarra, eta Aitziber Sarobe biologoaren hitzaldia antolatu dute asteen



Aitziber Sarobek martitzenean Torresoroan eskainitako hitzaldiko une bat. I.A.A.

**Idoia Aranbarri Arzuaga** ANTZUOLA  
Trekutz parke eolikoari aurre egiteko asmoz, Meaka-Irimo herri plataforma sortu dute zenbait herritarrek Antzuolan. Urriaren 30ean Antzuolako Udalak Capital Energy enpresak dituen asmoen berri eman ondoren hartu zuten taldea sortzeko erabakia. Hilaren 6an, 15 herritar inguru elkartu ziren

Olaranen bakoitzak dituen asmoen berri emateko.

Gaiaz gehiago jakiteko, Aitziber Sarobe biologoa eta natura kontserbazionistaren hitzaldia antolatu zuten martitzenean, eta ekitaldiaren amaierako zatian plataformak euren asmoei buruz hitz egin zuen: "2002an dekretu bat egin zuten; izapidetze-prozesua egin zuten, eta orduan

udaletxetik jarduera-lizentzia bezala joan beharrean, industria-baimen bezala dator; eta horren barruan, ingurumen-eragina. Hori da guk gehien landu behar duguna".

**Mugak, erronkak, zailtasunak**  
40 herritar elkartu ziren Saroberen *Trantsizio energetikoaren mugak, erronkak eta zailtasunak*

## Sailkapeneko azken postuan jarraitzen du Antzuola KEk

Azken jardunaldian porrotarekin itzuli ziren etxera antzuolarrak; Billabona hartuko dute etxean bihar

**I.A.A.** ANTZUOLA

Zapatuan Zumaia koren aurka 4 eta 3 galdu zuen Antzuolako Gorengo Erregional Mailako gizonen taldeak. Antzuolarrak huts eta bi nahiz bi eta hiru aurretik joan ziren, baina,

hala ere, ezin izan zuten emaitza hori mantendu. Zumaia koren beste bi golekin irauli zuten markagailua, eta, azkenean, garaipena eskuratu zuten. Antzuolarren hiru goletatik bi Danel Kortabarriak eta Oier

Aranburuk egin zituzten, eta hirugarrena etxeko taldeak bere atean sartu zuen.

Antzuola sailkapeneko azken postuan da bost punturekin – Aretxabaletako UDA taldearekin puntuetan berdinduta–. Hurrengo jardunaldia bihar jokatuko dute etxean, zortzigarren postuan dagoen Billabona KE taldearen kontra. Norgehiagoka arratsaldeko lauretan hasiko da, eta etxeko taldeak beharrezkoak ditu hiru puntuak atzean ez geratzeko.



## Parke eolikoaren aurkako argazkia

Mendi astearren barruan, Trekutz-Irurutzeta-Trekutz ibilaldia eginda, baba-jana egin zuten, hilaren 11n, Gaztelugain elkartean. Jon Mata, Urko Arregi eta Mikel Iturriotz aritu ziren bertsoetan, eta ostean, *Irimon eolikorik ez* lelopean talde argazkia atera zuten.

hitzaldian. Administrazioak bere lurralde plan sektorialaren bidez eman nahi dion aterabideekiko hausnarketa egitea zuen helburu hitzaldiak: "Natur kontserbazioan gabiltzanon ustez, planteatzen zaigun ereduia –landa eremuan modu intentsiboan energia ekoizteko planteamendua– ez da egokia, besteak beste, krisi energetikoari biodibertsitatearen krisia gehituko zaiolako. Krisi batetik beste batekin ezin da atera. Hausnarketa merezi du, jatorrizko arazoari garrantzia kendu barik".

Gaineratu du badirela beste modu batzuk, "hain intentsiboak ez" direnak eta tokian toki planteatu daitezkeen ereduak. "Eredu horietatik eta artifizializatu-tako eremuetatik, lehendik zoru bihurtutakoak, hasi beharko genuke. Ez dela nahikoa izango? Ziurrenik ez, baina has gaitezen

hortik eta irabazi dezagun denbora, besteak beste, dugun arazoaz jabetzeko", dio.

### Hurrengo batzar irekia

Meaka-Irimo herri plataformak azaroaren 20an egingo du hurrengo batzar irekia, Olaranen, 18:30ean. Batzarrean parte hartzeko deia egin zieten herritarrei: "Alegazioen bidea lantzen eta proiektuari eman beharreko erantzunak pentsatzen joango gara". Bestalde, hilaren 29rako, EHUko Ingenieritza Energetiko Saileko irakasle Alvaro Camposen hitzaldia antolatu dute.

**HURRENGO BATZAR  
IREKIA AZAROAREN  
20AN 18:30EAN  
EGINGO DUTE  
OLARANEN**

MUJKA  
HARATEGIA



Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

# Zazpi gela berri izango ditu San Martin egoitzak

Mojak bizi ziren espazioa eraberritu eta bizikidetzaren unitate berria ari dira egiten, orain artekoarekin alderatuta desberdina izango dena. Zortzi egoiliar gehiagorendako tokia egongo da gero, 91rendako. Hirugarren igogailu bat ere ari dira jartzen

## Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Egoiliarrendako beste zazpi gela, erabilera komuneko espazioak eta igogailu berria egiteko obrak ari dira egiten San Martin egoitzan. 83 egoiliar hartzen ditu egun egoitzak, eta zortzi gehiago hartuko ditu lanak bukatutakoan; guztira, 91.

## Bizikidetzaren unitate berria

Garai batean karitateko mojak bizi ziren espazioa ari dira eraberritzen. Barrutik hustu egin dute gune hori, eta hortxe ari dira egiten zazpi gela berriak, horietako bat bikoitza. Komuna izango dute guztiek, sukalde txiki bat ere egongo da, eta baita egongela ere, denek erabiltzeko moduan. Gainera, sabaia garabiak erabili ahal izateko moduan prestatuko dute. "Oraindik ez dituzte lanak bukatu, eta ezin ikusi, baina badakigu espazio berri hori oraingorekin konparatuz gero zeharo ezberdina izango dela. Bizikidetzaren

unitate berri hori oso ezberdina izango da. Nolako egoiliarren egongo diren zehaztu barik dute oraindik, baina denendako prestatuta egongo da, bai autonomia maila bat dutenendako bai mepkoagoak direnendako", dio bertan diharduen Garazi Guridi gizarte laguntzaileak.

Egoitzak "etxe" bihurtu gura ditu Aldundiak, espazio txikiagoak eta goxoagoak sortuz, eta filosofia hori bete guran ari dira lan hauek egiten. COVID funtsetik jasotako hogeit hamar milioi euro bideratuko ditu Gipuzkoako zaharren egoitzak eredu berri horretara egokitzeko, eta Kabia fundazioak kudeatzen dituen sei egoitza egokitzen hasiko dira. Oñatiko San Martin da horietako bat.

## Leiho handiagoak

Abuztuan hasi zituzten obrak, eta udaberriaren bukatzea da aurreikuspena. Kanpotik ari dira egiten, eta horrek eguneroko

jarduna ahalik eta normalena izaten lagundu duela dio Guridik. "Egia esan, obrek ez dute eragin handirik izan eguneroko martxan. Lehen bezala ari gara lanean, eta egoiliarren ere ohiko zerbitzuak ari dira jasotzen; ez da aldaketarik egon. Zarata izan da, akaso, deigarriena. Logela berriak egiteko obra hauekin batera hirugarren igogailua jartzekoak ere ari dira egiten, eta igogailu horrendako zuloa egin zutenean, adibidez, entzun zen zarata. Baina oso momentu puntualetan izan da, orokorrean, eta aurrez jakinekoetan. Gainera, egoiliarren eguneroko martxa kontuan hartzen saiatu dira langileak lan bat edo beste egi-

## EGUNGO BI IGOGAILUAK GUTXI DIRA EGUNEROKO SARTU-IRTEN EDO MUGIMENDURAKO



San Martin egoitzaren aurreko aldeko obrak. O.E.G.

terakoan; siesta orduak, adibidez, errespetatu dituzte".

Eraikinaren kanpoko aldetik ari dira egiten obra handiena, aurreko aldetik zein atzekotik, eta langileek eurek egindako pasabideak eta eskailerak erabiltzen dituzte sartu-irtenetarako, eraikin barrura sartu barik. Egun hauetan, esaterako, lehenengo leiho txikien ordez handiak jartzeko lanak ari dira egiten, argitasuna sartzeko barrura.

## Hirugarren igogailua

Egiten ari diren igogailu berria ere oso erabilia izango dela baieztatu du Guridik. "San Martin egoitzak 83 egoiliarrendako tokia du egun, eta gero gehiago izango dira. Bestalde, 40 bat

langilek baino gehiagok egiten dute lana, eta mugimendu handia egoten da hemen. Gainera, kopuru horri gehitu behar zaio egoiliarren bisitatza etortzen diren senideena; handia hori ere, asko etortzen dira eta bisitan, goizetan zein arratsaldetan. Sartu-irten handia dago egoitzan, eta bi igogailuak okupatuta egoten dira sarri; une puntual batzuetan, batez ere, ezin zerbitzua bete egoten dira. Hirugarren igogailua ongi etorria izango da, bai, seguru".

Udan hasitako lanak martxa onean doazela ikusten dute San Martin egoitzako arduradunek, eta epe barruan egingo dituztela uste dute, hau da, udaberriaren bukatuko dituztela.

## GORA ETA BEHERA



## Elorregiko geltokian ezin bizikletak utzi

Elorregiko autobus geltokian bizikletak uzteko gunea orain ez dagoela aterpean dio irakurle batek, eta "kandadua luzatzen den horietakoa" izan behar dela koadroa lotu ahal izateko.



EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

## Argia kenduko dute Errekalden, Murgian eta Berezaon

Azaroan, hiru argi mozketak egingo dituzte herrian sare elektrikoaren mantentze lanak egiteko. Martitzenean, azaroak 21, zerbitzuan jarriko dute Errekaldeneko transformazio zentro bat. Lan hori egiteko, argia kenduko dute auzo horretako 20tik 30era eta 35etik 45era bitarteko atarrietan. Goizean zein arratsaldean kenduko dute argia, baina atari bakoitzean gehienez ere bi orduz, eta ez guztietan batera, txandaka baizik. Berezaon 46 atarian eguazten goizean kenduko dute, ordu erdiz, eta Murgian, egubakoitz eguerdian, 20tik 32ra bitarteko atarrietan eta argiteria publikoan, hango transformadorean alarma aldaketa egiteko.

## Emakumion Etxia lantzeko dinamika berrartuko dute bihar

Emakumion Etxia lantzeko egiten ari diren proiektuari berriz heldu, eta erabakitze fasearekin jarraituko dute, beste erabaki eta puntu batzuk jorratuz. Bihar, zapatua, egingo dute ikasturte honetako lehen saioa, eta Emakumion Etxiak egingo duen ekarpenaz edo proiektua nola zaindu behar den hausnartuko eta eztabaidatuko dute. Lan saioa Eltzian izango da, 10:00etatik 13:00etara. Eraikinaren barruko espazioak zehaztu, eta barne antolaketaren diseinua erakutsi zuten uda aurretik. Orduetgia, funtzionamendua eta baliabide pertsonalak zein materialak ere adostuko dituzte, besteak beste, datozen lan saioetan.

## Partzelak eta landa bideak bilatu ahal dira udal webgunean

Oñatiko Udalaren mapa interaktiboan jarritako aplikazio berriarekin, herriko lursailen partzelak bilatu, eta inguruko auzo-bide hormigoituak identifikatu ahal dira. Horretarako, *Oñati.eus* udal webgunean sartu behar da, "mapa interaktiboa" aukeratu, eta "udal bideak" sakatu. Partzelaren gainean klikatzea da azken pausoa. Auzo-bideen ordenantzan aipatzen da, baso ustiatetaren ondoren egurrer ataraten den aldiro, udalari esan behar zaiola zein udal-bide erabiliko diren. Horrela, bide bakoitzetik ateratzen den egur kubiko kopurua kontrolatu nahi dute, luzera bideetan duen eragina aztertzeko.

# "Aldaketarako pauso bat izango da 30eko greba"

LIZ QUINTANA CANTERO LEGELARIA

Zaintzaren ardura ez dela emakumearena eta gizarte osoarena dela esan gura du ozen Quintanak, eta greba horretan hausnartzen hasteko eguna ere badela

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Zaintzaileen eta etxeko langileen eskubideez egin du hitzaldia Liz Quintana Cantero legelariak (Barakaldo, 1966) astean Eltzian, zaintza gaitzat hartuta Udalak antolatu duen hitzaldi zikloaren barruan. Bilboko Trabadoras No Domesticadas taldearekin egiten du lana, formazioa eta informazioa eskaintzen, "eta, azkenaldian, zaintza sistema ezberdina, justuagoa, izan dadin gizartea berrantolatzen saiatzen, horretan laguntzen".

**Noiz hasi zinen zaintzaileen eta etxeko langileen eskubideen alde lanean, eta zer aldatu da ordutik?**

1990ean hasi nintzen gai honekin espazio feministetan lan egiten, eta pauso txikiak eman direla ikusi dugu, baina oso astiro doa. 2018an lehen greba feminista egin zenetik, baina, pisua, espazioa hartu du gai honek mugimenduan, eta hori aurrerapauso bat dela uste dut; orain, gaia ulertzeko beste modu bat dagoela uste dut. Administrazioek ere egiten dituzte saiakerak, baina askotan diskurtsoa hartzen dute; edukiz hustu eta fatxadekin gelditzen dira.

**Langile hori emakumea da oraindik ere?**

Bai, ehuneko handi batean. Historikoki emakumeei lotu zaizkie zaintzaren baitako lanak, eta horiek etxetik atera eta kanpoko beste espazioetan gauzatzen hasi zirenean, edo etxe barruan baina kontratatutako zerbitzu moduan, emakumeek jarraitu dute egiten. Naturalizatu egin da emakumeak zaintzaileak gara. Eta greba honekin zabaldu gura dugun mezueta bat da honek denoi eragiten digula. Hau ez dela emakumeen ardura bakarrik esan gura dugu, guztion, konpartitua baizik.

**Lan eskubideez gain, zer diote jasotzen duten tratuz?**

Lan horiek ikusezinak dira, eta hori ez da kasualitatea; apropos



Liz Quintana Cantero legelari bizkaitarra. I.O.

**"ZAINZAREN LANAK IKUSEZINAK DIRA ETA EZ DA KASUALITEA; APROPOS DAUDE HALA EGITURATUTA"**

daude horrela egituratuta. Lan baldintza prekarioetan egiten dute lana, eta baita bizi baldintza oso gogorretan ere. Asko dira 24 orduz etxe batean daudenak, lanean, deskantsurako aukera barik. Kontrola, boterearen gehiegikeria, arrazismoa, klasismoa... Ondorio larriak ditu horrek guztiak, fisikoki zein psikologikoki. Eraso sexualak ere gertatzen dira. Lan ikuskaritzak dio etxe barruko kontutan ezin direla sartu, eta horrela da, baina ez etxe hori lan eremua bada eta giza eskubideen aurkako egoerak gertatzen direnean; langilea babestu behar da.

**Zer aldatu behar da?**

Ulertu behar dugu zaintza gizarte osoari eragiten dion gaia dela, herritar guztioi eta instituzioei. Hori ulertzea aldaketa hastea da. Gizonak ere sartu behar dira honetan, eta baita

administrazioak ere. Administrazioek bermatu behar dituzte baliabideak eta zerbitzuak zaintza baldintza onetan egiteko, eta zaindua den herritarra ondo zaintzeko. Hortik aurrera norberak aukeratuko du nolako zaintza egin edo hartu, baina hori bermatuta egon behar da. Dena dela, pertsona ez ezik ingurua ere zaindu behar da. Hau da, gizakia ez da isolatuta bizi; eta hiriak, kaleak, landa eremuak, elikadura, osasuna... ere zaindu behar dira. Bestalde, zaintzaren gaia negozio ari da bihurtzen enpresa askorendako, eta horrekin amaitu beharra dago. Langileen baldintzak ez dira onak izaten, eta zainduaren egoera ere ez.

**Zergatik egin greba datorren azaroaren 30ean?**

Greba hori ez da greba hutsa; pauso bat da esateko nola egin gura dugun zaintza Euskal Herrian. Produzioa geldituko da eta zaintzako langileen eskubideen alde egingo da, baina ez hori bakarrik, baita hausnartu behar hori ikusarazi ere, kolektiboki. Hasita gaude lan horretan, eta jarraituko dugu grebaren ostean ere.



NIRE USTEZ

LOREA SUAREZ IBARGUREN

## Hilerrietara bisitan

Heriotzaren eta bizitzaren arteko tartea laburra dela gogorarazten digun festa pasa berri dugu. Egun hori, azaroak 1, hildako pertsonen eskaintako eguna da, eta gehienek lorez betetzen dituzte pertsona maitatuen hilobiak. Baina sarri galdetu diot neure buruari: egun bakarra behar da horretarako? Zein garrantzitsua den gai honekin lotuta, heriotzaz nabil noski, haurrak haurtzarotik hezte. Eta hezkuntzak ez ditu heriotzaren gaiari heltzeko behar beste baliabide eskaintzen. Nire ustez, familiek eta hezkuntzaren sektoreko profesionalak ez ditugu behar adina tresna eguneroko gertaera honi aurre egiteko, eta, oraindik, tabu handi bat da. Heriotza bizitza zikloaren parte da, eta argi utzi behar diegu haurrei familia guztietan gertatzen den zerbait dela. Ez al duzu uste? Haurrekin gai hau modu egokian lantzeko guztiok gaiaz naturaltasunez hitz egiten ikastea ezinbestekoa da. Beldurrak kendu eta errealtateari aurre egitea ezinbestekoa da; emozioak azaleratu eta ezjakintasunaren aurrean egia esatea, edo? Minaz gain, zein beste alderdi landu ditzakegula uste duzue?



Ugarkalde auzoa martitzen iluntzean. O.E.G.

## Led teknologiako 688 argi puntu berri jarriko dituzte herrian

Udalak egina duen energiaren planaren barruan sartzen da, energia-eraginkortasuna hobetzeko helburuarekin

O.E.G. OÑATI

Energia planaren barruan du jasota Udalak kaleko argiterian teknologia berriak eta iraunkorrak jarriko dituela argindar kontsumoa murriztu dadin, eta horren erantzuna da led teknologiako 688 argi puntu berri jartzeko proiektu hau.

Egungo kale argiteriaren gainean egindako diagnostia hartu dute oinarri horretarako. Dauden argi puntu guztiak identifikatu eta euren egoera zein den aztertu dute, ondorioztatuz 2.741 luminaria publikoetatik, 1.642 led teknologiarenak direla, %60,

baina gainerakoak oraindik ere kontsumo altukoak direla, 1.099.

Aldatu beharreko argi puntuak eta dauden eremuak edo kaleak aztertuta, argiteria-koadroa sailkatu dituzte. Horrela, hamalau argiteria-koadro hornitzen dituzten 688 argi-puntu berrituko dituzte, 701 ordezkatzuz. Horrek 71.000 euro aurrezteko ekarriko du, Udalaren esanetan, energia kontsumo fakturatan, eta zazpi 7 urtetan berreskuratuko litzaiteke orain egin beharreko inbertsioa, 498.484,11 euro. Lizitazioa martxan dago. Lanek lau hilabeteko epea dute.

# Gazteen ongizatea eta osasuna erdigunean

2019an abiatutako Nerabeak Astintzen programak, gazteen ongizatea eta osasuna erdigunean jarrita, ikasleen behar fisiko eta emozionaleri erantzutea du helburu. Horretarako, ikasturte honetan, interbentzio ordu gehiago sartu dituzte ikastetxeetan

**Iñigo Barrena Kortabarria** OÑATI Osasun Sareak 2019. urtean martxan jarritako ekimena da Nerabeak Astintzen, eta Oñatiko gazteen kezkei eta premiei erantzuteko eta gazteen osasuna eta ongizatea sustatzeko asmoarekin jarri zuten abian proiektua. Gazteei entzutea eta haien interesak ulertzea du ardatz, baita elikaduraren, atsedanaren, ariketa fisikoaren eta emozioen inguruko orientazioa ematea ere, betiere osasuna ikuspegi nagusitzat hartuta.

**Gazteen ongizatean inbertsioa** Anbizio handiko programa honen bitartez, ezagutzak ematen dizkiete gazteei, eguneroko bizitzan erabaki osasungarriak eta ondo oinarritutakoak hartzen laguntzeko. Ekimenetik uste dute saioetan lantzen dituzten gaien ikuspegi integral horrek laguntza emango diela gazteei bizimodu osasungarri bat izateko, eta nerabearoko erronkei konfiantzaz eta erresilientziaz aurre egin ahal izateko. Hala, gazteak ezagutzen transmititzailer izango dira, eta praktikan jarriko dute ikasitakoa.



Nerabeen eskuak proiektuaren pultserarekin. NERABEAK ASTINTZEN

## Aurten, saio gehiago

Programa honek herriko ikastetxeen laguntza du, eta horrek POZ Jarduera Fisikorako Orientazio-zerbitzua ikasgeletan sartzeari ahalbidetzen du. Azken urteetan, bilakaera handia izan du programak, eta, 2023-2024 ikasturteari begira, interbentzio-ordua gehiago egingo dituzte. Guztira, ordubeteko 28 saio izango ditu programak. Horietatik hamalau saio emozioak lantzeko izango dira; zazpi saio jarduera fisikorako, eta beste zazpi saio elikadura kontueta-

rako. Esku-hartzea egin baino lehen, esku-hartzea egin bitartean eta amaitutakoan, neurketak egingo dituzte interbentzioek gazteengan duten eragina ebaluatzeko, baita horien baliozotasuna egiaztatu eta, behar izanez gero, aldaketak egiteko ere. Saio hauek gidatzeko hezitzaileen taldea hiru profesionalen osatzen dute: Jone Galdosek emozioak landuko ditu, Amaia Diaz de Monasteriigurenek elikadura, eta Pello Uriartek ariketa fisiko osasungarria egiteko saioak zuzenduko ditu.

## Programako hezitzaileak



**PELLO URIARTE**  
JARDUERA FISIKOKO  
ORIENTATZAILEA

"Helburua gazteek bizimodu aktiboa izan dezaten baliabideak ematea da. Horretarako, modu praktikoan, herrian dituzten aukera ezberdinak ikusi eta aztertzen ditugu. Era berean, halako adinetan, taldekako kirol jarduerak alde batera uzteko joera dago; beraz, jarduera fisikoa egiteak duen garrantziaz ohartaraztea ere gura dugu, eta horretarako ere herrian dituzten baliabide ezberdinak erakusten dizkiegu. Mugimenduari lotutako jarduera guztiak onuragarriak dira; beraz, gazteekin lanketa hori egitea garrantzitsua da".



**AMAIA DIAZ DE  
MONASTERIIGUREN**  
DIETISTA

"Jaten dugun guztia ez da janaria, eta jure gorputza nola elikatu ikasten ari gara. Plater osasuntsuak osatzen eta osotzen erakusten diegu ikasleei, eta egunean zehar jaten dutenari garrantzia ematen ere bai. Hori guztiz lotuta doa ondoren egingo duten jarduera fisikoarekin; beraz, kontzientzia hori sortzea ere garrantzitsua da. Era berean, gazteei euren gorputzak entzuten eta zaintzen erakusten saiatzen gara, elikadura emozionala eta fisikoa izan daitekeelako. Dena tailer dinamikoaren bitartez".



**JONE GALDOS**  
OSASUN  
PSIKOLOGOA

"Osasuna ez doa soilik ongizate fisikoari lotuta, eta kasu honetan gazteak jakitun izan behar dira maila emozional, sozial eta psikologikoan ere ongizatea izan behar dutela. Horretarako, saio hauetan, emozioak identifikatzen eta ulertzen, eta horien inguruan hausnar dezaten saiatzen gara; horretarako baliabideak ematen dizkiet nik. Era berean, nerabeek euren nortasuna modu osasuntsuan eraikitzea ere bada beste helburuetako bat, eta hemen ere nortasun hori eraikitzeko baliabideak ematen saiatzen naiz".

## Saskibaloiko talde gorenak babesle eta kamiseta berriak ditu

Bihar, Askartzaren aurkako neurketan, Saskibaloiko Sailak babesle berriaren berri emango du: Biotz enpresa. Era berean, babeslearen izena daramaten kamiseta berriak ere erakutsiko dituzte. Gainera, arratsaldea girotzeko, hainbat ekintza egingo dituzte atsedanaldian: gimnasia erritmikoko ikuskizuna eta otarrearen zozketa.



ALÓNA MENDI SASKIBALOIA

## Xakezaleek hitzordua dute etzi, 09:00etan, Gaztelekuan

Gaztelekuko XXIX. Xake Txapelketa antolatu dute. Jokoa suitzar erara jokatuko da, 6 itzulitara, eta jokalarik bakoitzak 15 minutu izango ditu bandera jaitsi arte. Izen-ematea gaur itxiko da Gaztelekuan, [gazteinformazioa@onati.eus](mailto:gazteinformazioa@onati.eus)-en edo 658 725 679 / 943 71 82 57 telefonoetan. Oñatiarrak doan, gainontzekoek 5 euro ordaindu beharko dute.



Mikel Marco, Juan Valls eta Ander Etxaniz. RAMADA INN

## Ramada Inn formatua eta estiloa aldatuta dator

Juan Vallsek, Ander Etxanizek eta Mikel Marcok osatzen duen Ramada Inn taldeak 'Real tree' izeneko bigarren lana kaleratu berri du, eta, zapatuan (19:00), Gaztetxean kontzertua eskainiko dute, Burrunda Faktoriak antolatuta, Arima taldearekin batera

**Iñigo Barrena Kortabarria** OÑATI  
Ramada Inn taldeak *Real tree* izeneko lan berria kaleratu du duela gutxi, eta zapatu honetan entzungai egongo da Antixena Gaztetxean emango duten kontzertuan. Burrunda Faktoriak antolatuta, Arima taldearekin batera arituko dira, 19:00etan hasita. Orain arte laukotea izan dena hirukotea da orain; Juan Vallsek, Ander Etxanizek eta Mikel Marcok osatzen dute, hain zuzen; ez da, ordea, Ramada Inn-ek kaleratu duen bigarren lanaren berezitasun bakarria. "Taldekide aldetik aldaketa dago, egia da, baina, era berean, denbora generaman estilo ezberdina probatzen lokalean eta estilo aldetik ere ezberdina da lan berria", dio Juan Vallsek.

Bigarren lana "azkarragoa" dela esan du, eta, lehenengo diskoarekin alderatuz, oraingoan doinu "amerikarrez" gain, "punk-rock" doinuak ere badituela. Horretaz gain, lan berria, diskoan atera beharrean, biniloan kale-

ratzea erabaki dute; astean bertan iritsi zaizkie etxera, eta salgai egongo dira biharko Gaztetxeko kontzertuan, 15 euroren truke. Biniloko sei kantuez gain, ohiko errepertorioarekin osatu dute biharko emanaldia.

### Zuzenean grabatutako lana

Uztailean Berako Atala estudioan Iñigo Irazokiren eskutik grabatu zuten lana da *Real tree*, eta "modu analogikoan" grabatu zutela azpimarratu du Vallsek, hau da, zuzenean hirurek batera grabatutako diskoa dela azpimarratu du. "Hirurok batera grabatzean, akatsen bat eginez gero, berriz errepikatu beharra dago kantu guztia. Egia da gauzak moldatu daitezkeela, baina

**DISKOA ATERA BEHARREAN, BINILOAN ATERA DITUZTE SEI KANTU BERRIAK**

analogikoan grabatzeak naturaltasuna ematen dio lanari; zuzenekoaren antzeko sentsazioa ematen die kantuei", adierazi du Vallsek.

### Gogotsu, zapaturako

Zapatuko kontzertuari begira, azken hilabeteetan hainbat kontzertu eskaini dituzte "erritmoa" hartzeko; tartean, Donostiako Jazzaldian eskainitakoa, uztailean, diskoa grabatzen ari ziren bitartean. Juan Vallsek aitortu du "ilusioa" egin ziela horrelako jaialdi batean jotzeak, eurak "jarraitzaileak" zirelako.

Jazzaldiko oholtzatik Antixena Gaztetxera igarotzea aldaketa handia da, baina Burrunda Faktoriak antolatutako kontzertu sortaren barruan joko dutela jakitun, gogotsu dira biharko. "Ekimen polita da martxan jarri berri dutena. Uste dut, modu honetara, musikari, kontzertuei eta musika taldeei duintasun puntu bat ematen dietela", adierazi du Vallsek.

## Antzerki Talde Amateurren topaketa egingo dute bihar

Karoi antzerki jaialdiaren barruan, Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearekin batera antolatu dute

### I.B.K. OÑATI

Oñati antzerkiaren erdigune bilakatuko da biharko egunez, Karoi antzerki jaialdiaren barruan, Antzerki Talde Amateurren topaketa egingo dutelako. Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearekin bat antolatutako ekintza izanik, euskal herri oso-tik etorritako hainbat antzerki talde elkartzeko dira, bihar, Eltzian.

### Talde amateurrak

Antzerkia bultzatzeko orduan, normalean, bada laguntzera edo bistaratzera heltzen ez den kolektibo oso bat: antzerki talde amateurrak. Euskal Herrian eta Gipuzkoan bereziki, talde amateurren sekulako mugimendua, kalitatea eta aniztasuna dago.

Bada, euren lanak erakusteko aukera oso murriztua da, eta saio bat baino gehiago egiten



DAP Afizioz lehiaketa. MIREN ARREGI

bada, ondoko herrietan egiten da asko jota; beraz, zirkuitu falta sumatzen dute, baita taldeen arteko elkar ezagutza murrizta, baliabide ekonomiko urria eta abar ere. Behar horiei erantzuteko, egun osoko ekimena antolatuko dute biharko.

## Musika Bandaren kontzertu denboraldia domekan hasiko da

*Topagunea* kontzertu denboraldiko lehen emanaldia egingo du Musika Bandak, domekan, 13:00etan, kiroldegiko pilotalekuan. Lehen kontzertu hau *Nobela gunea* izendatu dute, eta *top* musikaz elkartzeko gunea izango da ikus-entzuleentzat. Kontzertuko programari dago-kionez, nobeletan oinarritutako musika izango da entzungai:

*Altxorraren uhartea, El Hombre de La Mancha, Erastunen jauna* edota *Moulin Rouge*.

Gainera, kontzertu honek bide emango du bandako hiru kide berriak ere emanaldian ikusi ahal izateko; Lier Esnaola (perkusioa), Julen Arrazola (klarinetea) eta Uxue Igartua (bambardinoa) dira horiek. Kontzertuaren aurretik kalejira egingo dute, eta ondoren joango dira pilotalekura. Kontzerturako sarrerak Txokolateixan hartu behar-ko da.

## Musikegunen azken saioa, Aequus Ensemblaren eskutik

Oñatiko Musikegunak egitasmoaren barruko azken kontzertua izango da Aequus Ensemble orkestrak etzi (19:00) San Migel parrokiaren emango duena. *Romantic sound, edertasunari buruzko bidaia* izenburupean, Beethovenen 1. sinfonia, Schuberten 7.a edota Mendelsshonen *Hebridak* entzuteko aukera paregabea izango dute ikus-entzu-

leek, normalean herrietan entzuten ez diren klasiko handiak zuzenean gozatzeko aukera, hain zuzen ere. Aequus Ensemble soka-orkestra gisa sortu zen, baina emanaldi berezi honetarako, perkusioa eta metal, haize nahiz egur-instrumentuak batuko zaizkio, programa sinfoniko eder hau eskaini ahal izateko. Domekako emanaldirako sarrerak dagoeneko salgai daude Txokolateixan edota *Oñati.eus* webgunean, sei euroren truke.



Ezkerretik hasita, Uxue Azkue, Nahia Irazola eta Maria Martiarena, Turkian. N.I.



Dragoiko eta Biribilduko zortzikoa, Turkian. N.I.

# "Urtebeteko lana minutu eta erdian erakutsi beharko dugu"

**UXUE AZKUE, NAHIA IRAZOLA ETA MARIA MARTIARENA** GIMNASTAK  
**AEROBIKA** Dragoi taldeko gimnastak Turkian daude bihar jokatu duten Europako Txapelketa prestatzen. Gasteizko beste bost gimnastarekin osatuko dute taldea

**Xabier Urzelai Atxa** ARRASATE  
Uxue Azkuek (Arrasate, 2003), Nahia Irazolak (Arrasate, 2002) eta Maria Martiarenak (Arrasate, 2004) urtebete baino gehiago daramate, Gasteizko Biribildu taldeko gimnastekin batera, Europako Txapelketa prestatzen. Martitzenean abiatu ziren Antalya (Turkia), eta aste barruan bi entrenamendu saio egiteko tartea izan dute zapatuko txapelketa (16:30) aurretik. Aerostep modalitatean lehiatuko dira Europako onenekin batera.

**Gimnasia aerobikoa alde batera utzeko puntuan egotetik, Europako Txapelketa lehiatzen...**  
Bai, halaxe da. 2022ko uda aurretik egin ziguten Espainiako Federaziotik proposamena. Espainiako Txapelketa batean egindako lanagatik hainbat gimnasta aukeratu eta elkarrekin taldea osatzeko proposatu ziguten. Arrasatekook jada bageneukan taldea, baina Turkiara etortzeko zortzikoa osatu behar genuen eta Gasteizko Biribilduko beste bost laguni ere egin

zieten proposamena. Senior mailan lehiatuko gara, eta adin tarte horretan askok gimnasia utzita izaten dute. Guri ere hortxe-hortxe harrapatu gaitu. Gu gara taldeko gazteenak; gasteiztarren artean badaude 25 urteren

**"MEMORIA MUSKULARREAN DANTZA ERABAT BARNERATUTA DAUKAGU"**

bueltan dabilzanak; ez da oso ohikoa, kirol jarduera zorrotza delako.

**Zer nolako urtea izan da?**

Normala den moduan, momentu onak eta ez horren onak izan ditugu, aukeratuak izaterakoan presioa sentitzen delako eta horrekin batera itxaronaldia ere luzea egin delako. Pentsa, iazko uda hasieran eman genuen baiezkua, eta behin konpromisoa hartuta... Udan, esaterako, gogor egin behar izan dugu lan, eta momentu batzuetan nekea ere sumatu dugu. Baina sekulako aukera eman digute, eta oso motibatuta gaude.

**Zelan moldatu zarete entrenatzeko?**

Taldeko entrenamenduak Gasteizen egin izan ditugu, egubakoitz iluntzeetan eta zapatuetan batu izan gara, eta azkenean apustu pertsonala izan da. As-teko dinamikari eutsi ahal izateko, hori izan da aukera onena, asteburuetan entrenatzea.

**Zer espero duzue txapelketatik?**

Lan ona egitera goaz. Baina egia da urte osoko lana minutu eta erdian erakutsi beharko dugula, eta halakoetan inoiz ez dagoela jakiterik zelan joango den txapelketa. Horrek urduritasuna ematen du. Izan ere, ariketa egiterakoan nahikoa da gutako batek estropezu egitea lan guztia pikutara joateko. Horregatik, saiatu behar gara da orain arte egindako lana erakusten, entrenatzaileek egindako zuzenketa guztiak kontuan hartzen, eta gozatzen.

**"GURE DANTZA TEKNIKOKI ZAILA DA; HORI ONA DA, BALDIN ETA AKATSIK EGITEN EZ BADUZU"**

**Non egon daiteke txapelketaren gakoa?**

Dantza mila aldiz egin dugu; memoria muskularrean erabat barneratuta daukagu zerbait da, eta oso garbi daukagu zer egin behar dugun. Baina kirolari batek, ondo lehiatzeko, ezinbestekoa du mentalki ondo egotea, eta hor egongo da gakoa: lasai eta kontzentratuta egoten asmatzean.

**Zer nolako dantza da zuena? Izan ere, batzuk arriskatzearan aldekoak izaten dira, eta beste batzuek koreografia errazagoa aukeratzeko dute.**

Gurea teknikoki dantza zaila da, eta aldi berean ikusgarria. Horrek esan nahi du dena ondo egiten badugu puntuazio handia lor genezakeela, baina, hain zuzen, zailtasun handia daukanez erraza da akatsen bat egitea. **Beste modu batean esanda, ausartak izan zaretela...**

Baietz esan genezake.

**Zer moduzkoak izan dira lehenengo 24 orduak Turkian? [Eguaztenean izan zen GOIENA eurekin]**

Oraindik ez dugu sinisten hemen gaudenik. Gaur goizean lehenengo entrenamendu saioa izan dugu, eta konturatu gara maila oso altuko jendea dagoela hemen. Gure ostean Britainia Handikoak sartu dira entrenatzera, eta gu ibili garen bitartean alde batean ukrainarrak ere entrenatzen ibili dira, eta segituan jabetu gara oso onak zirela. Arratsaldean, berriz, gure entrenatzaileak gainontzeko ordezkarien entrenamenduak ikustera doaz, baina gu ez gara joango. Ez du merzei gehiago urduritzea [Barreak].

**Behin Europako Txapelketa etorrita, zergatik amets ez egin?**

Argi eta garbi, daukaguna ematea da asmoa, eta gero gerokoak.



# "Xotaren kontrako kanporaketa saria da"

**ARETO FUTBOLA** Oier Azkunaga aretxabaletarrak jokatzeko duen Lauburuk lehen mailako kontrarioa izango du martitzenean. Ibarraokoak final-hamaseirenetan daude jada, eta Iruñeko CD Xota izango dute kontrario. "Fokua ez dugu hor, baina oparia da"

**Xabier Urzelai Atxa** ARETXABALETA "Aretxabaletatik gertuen daukagun lehenengo mailako areto futbol taldea Iruñeko C.D. Xota da, eta urtean lauzpabost aldiz joaten naiz euren partiduak ikustera. Bada, martitzenean euren kontra jokatu dugu kopa kanporaketa, horrenbestez, pentsa ze ilusio egiten didan norgehiagoka horrek", adierazi dio aste barruan Oier Azkunaga aretxabaletarrak GOIENARI.



Azkunaga, gola ospatzen. ATARIA.EUS

Lauburuk eta C.D. Xotak martitzenean (20:00, Ibarra) jokatu dute kanporaketa, eta aretxabaletarrak aitortu du oraindik ez daudela partidu horretara begira. "Ligan azken bi partiduak galdu egin ditugu, eta hor dugu jarrita fokua, ez gaudete-eta egon nahiko genukeen tokian. Zapatuan Zierbenara joan behar dugu liga partidua jokatzera. Hala, Xotaren kontrako kanporaketak sekulako ilusioa egiten digu, baina indarrak ligan jarrita dauzkagu".

## Lehiakorak izatera

Azkunagak pentsatzen du zapatuko partiduaren ostean hasiko direla aste barruko Kopako kanporaketa prestatzen. "Xotaren kontrako norgehiagokak telebistaz edo *Youtube*-z jarraitu

izan ditut, eta lehen esan moduan tarteka lagunekin joaten naiz etxeko partiduak ikustera, Iruñera. Ez dugu tarte handirik norgehiagoka hori prestatzeko, baina astelehenean azken detailak finduko ditugu, eta nahiz eta badakigun kanporaketa gainditzeko oso aukera gutxi daukagula, lehiakorak izan nahi dugu".

Lauburuk lehenago ere eman du Kopan ezustekorik. Izan ere, aurreko kanporaketan bigarren mailan jokatzeko duen Wanapix Sala 10 taldeari 5-3 irabazi zieten. Hirunako berdinketarekin amaitu zen luzapena -Azkunagak sartutako golari esker-, eta penaltietan 5 eta 3 irabazi zioten Zaragozako taldeari. Martitzenekoa, baina, beste kontu bat da. "Ligan ez dute partidurik galdu, eta lehenengo dagoen Bartzelonaren atzetik puntu bakarrera daude. Gure zaleendako ere sekulako oparia da halako talde bat gertu ikustea".

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

<p><b>FUTBOLA</b></p> <p>OHOR. ERREGIONALA</p> <p><b>Bergara-Urola</b> Zap. 16:30. Agorrosin.</p> <p><b>Aretxabalet.-Ordizia</b> Dom. 16:30. Ibarra.</p> <p>OHOR. ERREGIO. EMAK.</p> <p><b>Intxausti-Debagoiena</b> Zap. 15:30. Donostia.</p> <p>GAZTEAK, MAILA NAZ.</p> <p><b>Tolosa-Bergara</b> Zap. 12:00. Berazubi.</p> <p>GORENGO MAILA</p> <p><b>Antzuola-Billabona</b> Zap. 16:00. Eztala.</p> <p><b>Euskalduna-Mondra</b> Dom. 17:00. Andoain.</p> <p><b>Ilintxa-Aloña Mendi</b> Dom. 17:00. Legazpi.</p> <p><b>Aretxab. B-Soraluze</b> Dom. 18:30. Ibarra.</p> <p>GAZTEAK EUSKAL LIGA</p> <p><b>Aretxabaleta-Urdaneta</b> Zap. 16:00. Ibarra.</p> <p>OHOREZKO GAZTEAK</p> <p><b>Aloña Mendi-Tolosa</b> Zap. 15:30. Azkoagain.</p> <p><b>Mondra-Euskalduna</b> Zap. 16:30. Mojategi.</p> <p>GAZTEAK, GORENGO</p> <p><b>Urki-Aretxabaleta B</b> Zap. 18:00. Unbe.</p> <p><b>Bergara-Anaitasuna</b> Zap. 18:30. Agorrosin.</p>	<p>GIPUZKOAKO TXAP.</p> <p><b>Afantxo-Coinbroker Al.</b> Egub. 21:45. Pasai Don.</p> <p>GIPUZKOAKO 2. MAILA</p> <p><b>Getariako-Mondrate</b> Gaur. 20:30. Getaria.</p> <p><b>Zaldibi-Eskoriatza</b> Gaur. 21:30. Zaldibi.</p> <p>GAZTEAK</p> <p><b>Mondrate-Afantxo</b> Zap. 13:15. Iturripe.</p> <p>KADETEAK</p> <p><b>Eguzki-Coinbroker</b> Zap. 09:30. Lasarte.</p> <p><b>Lauburu-Eskoriatza</b> Zap. 12:15. Ibarra.</p> <p><b>Erain-Ingou Mondrate</b> Zap. 12:15. Tecnun.</p> <p><b>ESKUBALOAIA</b></p> <p>EUSKADIKO TXAP.</p> <p><b>Pulpo-Fagor Profes.</b> Zap. 18:00. Zumaia.</p> <p>GIZ. GIPUZ. SENIOR.</p> <p><b>Urola-Soraluze BKE</b> Dom. 11:15. Zumarraga.</p> <p><b>Aritzatalde-Mugarri I.</b> Dom. 12:45. Zarautz.</p> <p>EMAK. GIP. SENIOR.</p> <p><b>Aloña Mendi-Munttar.</b> Zap. 16:00. Zubikoa.</p> <p>GAZTEAK, GIZONEZK.</p> <p><b>Aloña Mendi-Hernani</b> Dom. 12:00. Zubikoa.</p> <p><b>Ordizia-Arrasate Ingou</b> (atzeratua).</p> <p><b>SASKIBALOAIA</b></p> <p>EBA</p> <p><b>MU-G.Basket Easo</b> Dom. 18:30. Iturripe.</p>	<p>EUSKAD. LEHEN EMAK.</p> <p><b>Deusto L.-MU</b> Zap. 20:15. Bilbo.</p> <p>EUSKAD. LEHEN GIZON.</p> <p><b>Leioa-MU</b> Zap. 19:00. Leioa.</p> <p>EUSKADI. BIG. GIZON</p> <p><b>Biotz Aloña-Askartza</b> Zap. 18:00. Zubikoa.</p> <p><b>Soraluze BKE-Hotel G.</b> Dom. 18:00. Labegarai.</p> <p>EUSKAD. GAZTEAK</p> <p><b>Getxo-MU</b> Zap. 20:00. Getxo.</p> <p>GIPUZ. GIZON. SENIOR.</p> <p><b>Astigarraga-MU</b> Zap. 18:00. Astigarrag.</p> <p>GIPUZ. EMAK. SENIOR.</p> <p><b>Oiarso-Aloña</b> Zap. 18:00. Don Bosco.</p> <p><b>MU-Artesanos</b> Zap. 18:00. Zehaztu gab.</p> <p><b>ERRUGBIA</b></p> <p>SENIOR GIZONEZKOAK</p> <p><b>Kanpanzar ART-Errioxa</b> Zap. 16:30. Mojategi.</p> <p>SENIOR EMAKUMEZK.</p> <p><b>Loritzen-AGT/ERT</b> Zapatua. 14:00. Getxo.</p> <p>18 URTEZ AZPIKOAK</p> <p><b>Txin./Bera-Elor/Ar.</b> Zap. 14:30. Donostia.</p> <p>16 URTEZ AZPIKOAK</p> <p><b>Txin./Bera-Elor/Ar.</b> Zapatua. 13:00. Getxo.</p>
--	--	--

## Realaren eta Sevillaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

**GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA**  
 Reala-Sevilla norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek:  
 Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.  
 Partida azaroaren 26an, 16:15ean, izango da.  
 Parte hartzeko azken eguna: azaroak 19.

Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzu!

goiena"  
kide

**Okm:**  
batzen gaituen distantzia

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!

1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!

**Aitziber Aranburuzabala Juldain**

ARAMAIO

Urtarrilaren 13an irabazi zuen Aramaioko The Clayton taldeak bosgarren Danbaka musika lehiaketa; ordurako hasita zeuden kantu berriak sortzen, eta sari nagusia irabaztea akuilua izan da *Over the red light*, boskotearen bigarren lana, laberatzeko. *Inertzia* da, orain arte, sare sozialetan aurkeztu duten abesti bakarra, eta taldekideak "gogotsu" daude bilduma osoa zaleekin partekatuzko. Hala dio taldeko abeslari Jokin Larrañagak: "Feedback positiboa ari gara jasotzen, jendeari gustatu zaio *Inertzia* abestia, bada, bilduma berriaren atzetik egon den lan guztia erakusteko gogotsu gaude. Rock-and-roll estiloan euskaraz abestutako kantuak falta direla ikusten dugu, eta, horregatik, euskarazko kantuen alde egin dugu, oraingoan. Zortzi abestitatik sei euskaraz dira, eta gainontzeko biak ingelesez daude, nahiz eta taldekideok asko entzuten dugun ingelesez egindako rock-and-rollera, baina hor dago gure kulturaren aldeko apustua".

Plataforma digitzaleaz gainera, formatu fisikoan argitaratzeko asmoa azaldu dute. "Durangoko Azokan Musikazuzenean *standean* egongo gara, eta espero dugu lana denboraz heltzea, eta bestela B planen bat izango dugu prest. Ondoren, tabernetan eta kontzertuetan ere izango da, bi formatutan, eskuragarri".

**Kolore gorriak batuta**

Aurreko diskoan moduan, oraingoan ere, taldeko abeslariak izan du kantuen hitzak idazteko ardura. "Diskoaren izenburuak barruan dagoenarekin koherentzia bat izan behar zuela argi




Aramaioko The Clayton musika taldea. IMANOL SORIANO

# Argi gorridun rock-and-rollera

Aramaioko The Clayton boskoteak irabazi zuen Danbaka musika lehiaketa eta haren laguntzarekin grabatu du 'Over the red light' diskoa; plataforma digitaletan dago 'Inertzia' kantua entzungai, eta Durangoko Azokan izango da CD eta binilo formatuan

ikusten nuen letra-egile moduan, eta kostatu zitzaidan kantuen arteko lotura zein zen asmatzea. Kantu bakoitzak arazo sozial bati buruz egiten du berba, modu baten esanda, alarma gorri bat pizten du bakoitzak; bada, gure gizartearen kolore gorriak dituen konnotazio negatibo edo debeku-adierazleak aintzat hartuta, *Over the red light* esaldiak kantuak egoki batzen zituela ikusi genuen".

Ikuspegi ezberdinetatik begiratuta gaur egungo gizartearen askotariko gaien inguruan kan-

**OVER THE RED LIGHT**

- **Taldea** The Clayton.
- **Norekin grabatua** Eñaut Gaztañaga (Gaztain estudioa).
- **Estiloa** Rock-and-rollera.

tatu dute sorta berrian. "Aurkeztu dugun *Inertzia* abestian gaueko kontuak ekarri ditugu, hau da, parranda-giroan ikusten diren egoerak eta gauzak. Bide antzerakotik doa *Gose dira* izena duen kantua ere, gauari buruzkoa da-eta hori ere".

Gauari ez ezik, besteak beste, despopulazioari eta azpi-egitura handien eraginei ere kantatu diete aramaioarrek. "Aste Santuko oporretan ezagutu nuen Jaka eta Girona batzen dituen N-260 errepidea, eta han sortu zitzaidan izen horrekin sinatu

dugun kantuaren ideia. Espainiako despopulazio mailarik altuena du errepide horrek zeharkatzen duen lur-eremuak, eta alarma gorria piztu zitzaidan. Nazioarteko enpresa handiek Euskal Herrian egiten ari diren azpiegitura handiek eragindako triskantzei buruzkoa da *Bufalo*. Urrunago joan barik, Aramaion, gertutik ezagutu ditugu AHT egiteko aitzakiarekin egindako astakeriak, lur-jabetzak direla, eta, orokorrean, ingurua nola utzi duten; kantu horrek esaten du zein beharrezkoa den jarra- estoiko bat erakustea kanpotik datozen proiektu handiei aurre egiteko; bada, jarrera hori pizteko sortutakoa da. Eta beste abesti bat aipatzearen, esaterako, *Aingurarik ez* izenekoan, lanarekiko edo ogibidearekiko askok duten ilusio faltari buruz jarduten dugu; izan ere, jende asko ikusten dugu gertukoan artean eta baita orokorrean ere gogoz kontrako lanetan ari dena, eta horrek eraginda, asteburuarri zain egoten dena, ezinegon hori erretzeko behar edo esperantzarekin".

**Punk-rocketik aldentuta**

Melodia edo doinuei dagokionez, aurreko lanarekin alderatuz, antzekotasun batzuk badaudela dio Larrañagak, nahiz eta beste estilo batzuen arteko nahasketara jo duten. "*Inertzia* kantuak beste diskoaren antza duela esan digute batzuek, baina nik esango nuke, musikari begira, egun helduagoak garela; talde moduan hobeto funtzionatzen dugu, azkarrago ekoitzen ditugu kantuak, eta sekula kantu-eskolarik jaso ez dudana arren, egindako ibilbidean zehar asko ikasi dut, erosoago nago orain eta beste erregistro batzuetara heltzen

**'EHUN URTE KANTUAN'**

GOIENA TELEBISTA, BERGARAKO ORFEOIAREN  
MENDEURRENEKO KONTZERTUA  
AZAROAREN 17AN, EGUBAKOITZEAN, 23.00ETAN



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

goiena  
Zu hemen zaude.






The Clayton taldeko abeslari Jokin Larrañaga, Gaztain estudioan grabatzen. GOIENA

naiz. Beraz, aurreko lanarekin alderatuz, esango nuke punk-rock estilotik urrundu garela eta beste rock genero batzuen nahasketara jo dugula. Esaterako, *Aingurarik ez* kantuari *Rolling* deitzen genion, instrumentalki, Rolling Stones taldeari keinutxo egin diogu eta. Era berean, hasieratik genuen taldekideak zale garen ZZ Top eta beste talde batzuen eraginez western-rock kutsua emateko gogoia, eta, esango nuke diskoan keinu batzuk badirela".

#### Gaztain estudioan grabatuta

Euren lagunak diren Rodeo taldekoek gomendatuta joan ziren Zestoako Gaztain estudioa grabatzera. "Ez genuen oso argi norekin grabatu, eta Eñaut Gaztañagaren lana goraiatu zigutenez, harengana jo genuen; eta egia esan, asmatu dugu; oso gustura ibili gara; oso gertuko pertsona eta sekulako profesionala da. Bost egunetan izan ginen estudioan, eta ondorengo nahasketak eta konponketak ere han egin ditugu, pozik".

Taldekide guztiek batera grabatu zuten lehenengo diskoa; oraingoan, baina, instrumentu eta ahots bakoitza bere aldetik grabatzearen aldeko apustua egin dute, eta abeslariak dio horretarako oso lagungarria izan zela Aretxabaletako Kuartelean Asel Errastirekin aurrez grabatu zuten maketa. "Aselekin konfiantza dugu, askotan etorri da gurekin kontzertuetara, txofer moduan eta tekniko laguntzaile moduan ere bai. Diskoa grabatu baino hilabete lehenago grabatu genuen *demo* hori. Nik apenas egin nuen han gauza askorik, kantuak oraindik guztiz bukatu gabe nituen-eta, eta beste taldekideak ibili ziren Aselekin buru-belarri. Lineaz



## "Gozamena da eurekin lan egitea"

JOKIN BEREZIARTUA  
DANBAKAKO  
KOORDINATZAILEA

Danbaka lehiaketako koordinatzailea "pozik" da The Clayton taldearekin egindako elkarlanarekin.

#### Entzun dituzu kantu berriak?

Entzunaldi asko ez dizkiet eman, baina entzun dudana asko gustatu zait; banekien rock-and-rolla egiten itzelak direla, eta, bereziki, idatzi dituzten hitzek harritu naute. Euskararen aldeko apustua garbia eta landua; bejondeiela!

#### Grabaketa prozesua jaso duzue kamara aurrean.

Erreportaje bereziari azken ukituak ematen ari gara; datozen asteetan argitaratuko dugu. Protagonista diskoa da. Taldekideak eta eurekin lan egin duten bi teknikari eta Danbakako epaimahaikide bat elkarrizketatu ditugu.

grabatzeko, hau da, instrumentu eta ahotsak bakoitza bere aldetik, oso garrantzitsua eta lagungarria da aurrez bildumaren oinarritzko egitura sortuta izatea".

#### Diseinua eta bideoklipak

Diskoaren diseinua eta, orokorrean, kantu berrien iruditegia ere ondo zaindu dute; etxean eta etxekoek egin dute dana. "Merchandising-ean diru asko gastatu dugu, eta biniloan ere ateratzeko gogoak aurrekontua murriztu digu; hortaz, diskoaren diseinua nik egin dut; gure argazkiekin osatutako muntaia bat da azalean ikusiko duzuen".

Ikus-entzunezkoak egiten ere abilak dira, eta hala erakutsi dute dagoeneko sarean ikusgai dagoen *Inertzia* kantua bideokliparekin. "Aurreko diskoaren aurkezpen kantua ikus-entzunezkoarekin batera aurkeztu genuen, eta ondo funtzionatu zuenez hala egin dugu orain ere. Pletina Films zigilupean ekoiztu dugu eta, dirudienez, gustukoa izan da, zoriondu egin gaituzte eta. Beste bideoklip bat egiteko asmoa ere badugu, eta abenduaren 22an dugu errodatzeko eguna jarrita".

#### Dozena bat kontzertu, lotuta

Erronka handia izaten da, musikari askorendako, lan argitaratu berriak aurkezteko aretoak aurkitzea; zorionez, baina, ez da hori The Claytonen kasua. "Danbaka lehiaketa bultzada handia izan da guretzako eta hainbat kontzertu egiteko deitu ziguten, nahiz eta gu sorkuntzan bete-betean sartuta geunden. Eta orain ere, gertuko musikari askok ez moduan, dei asko ari gara jasotzen; apirilera bitartean hamabi kontzertu ditugu dagoeneko lotuta, esaterako, abenduaren 15, egubakoitza, Oñatiko Letagin taldearekin izango gara Bermeoko kafe antzokian. Hainbat proposamen ezezkoa eman diegu, besteak beste, Peio gitarrak Zaragozan ari da-eta ikasten, eta ezin diogu astero hona etortzeko eskatu. Aurreko asteburuan, Arrasateko Gaztetxeko elkartean kontzertuan izan ginen, eta han erakutsi genituen lau kantu berri. Harrera ona izan zuten publikoaren partetik, nahiz eta teknikoki ez ginen guk gura besteko fin ibili, apenas izan dugu-eta entseatzeko astirik".

## Goienakideen txokoa

### AZAROKO SARIAK



### Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: errigora

ERRIGORA

#### Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ  
GRATIKO SARRERAK

#### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

www.harremandenda.org  
Bidezko Merkataritzako produktuak

#### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzearen artean egingo da zozketa. Inbentarioaren %10 (5/1000) lagunen arabera, jokatzen den zozketaren bidez. Zozketaren bidezko sariak, baina ez dira zozketaren bidezko sariak. Zozketaren bidezko sariak, baina ez dira zozketaren bidezko sariak. Zozketaren bidezko sariak, baina ez dira zozketaren bidezko sariak. Zozketaren bidezko sariak, baina ez dira zozketaren bidezko sariak.

### Irabazi bi lagunendako otordua

#### MAIULANDA JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: azaroak 21

☎ 043 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 📱 "Goiena app"-a / zozketa atalean.

📱 GOIENAKIDE Jabetzea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 15€  
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA  
APLIKAZIOA

goiena  
kide

Okm: batzen gaituen distantzia



## ASTEA GOIENA TELEBISTAN



### SAIO BEREZIA URKULUTIK

Prezipitazioa eta temperaturak izango dituzte aztergai, besteak beste, Goiatz Aranek aurkeztuko duen saioan.

*'Hemen Debagoiena'* Egubakoitza, 18:00, 20:00 eta 22:00



### 'EHUN URTE KANTUAN' KONZERTUA

Bergarako Orfeoiaren mendeurrenako kontzertua osorik ikusteko aukera.

*'Bereziak'* Egubakoitza, 23:00.



### ERRASTIKO BASERRIKO OGIA

Julen Muruak egingo die bisita Xabier eta Naiarari, hango ogiaren ezaugarriak ezagutzeko.

*'Landara'* Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00



### 'DEBAGOIENDARRAK MUNDUTIK'

Mexikon bizi den Xabi Ormaetxea arrasatearrarekin egingo du berba Eneko Azurmendik.

*'Debagoiendarrak mundutik'* Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00



### 'BIXI IBILI!' BERGARAN

Aitor Agiriano galdera mordo batekin joan da Bergarara, ea hango herritarrek nola moldatzen diren.

*'Bixi ibili!'* Martitzena, 19:30, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:  
[goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista)  
 Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

## HILDAKOAK

**Candida Nieto Nuñez.** Aretxabaletan, azaroaren 8an. 93 urte.

**Antonia Barrera Dopazo.** Arrasaten, azaroaren 8an. 82 urte.

**Javier Belastegi Arribas.** Bergaran, azaroaren 6an. 79 urte.

**Kontxi Aguiriano Saez de Zaitegui.** Eskoriatzan, azaroaren 6an. 78 urte.

**Petri Ugarte Mendizabal.** Oñatin, azaroaren 6an.

**Rafael Irizar Elorza.** Oñatin, azaroaren 10ean. 70 urte.

**Amadeo Viguri Ruiz.** Arrasaten, azaroaren 10ean. 90 urte.

**Palmira Nieto Sanchez.** Arrasaten, azaroaren 11n. 88 urte.

**Victor Aperribay Abasolo.** Bergaran, hilaren 13an. 100 urte.

**Anastasio Herran Izarra.** Bergaran, hilaren 15ean. 95 urte.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**  
 edo [eskelak@goiena.eus](mailto:eskelak@goiena.eus)

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 200 € / Goiena Klubeko bazkideendako 175 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 175 € / Goiena Klubeko bazkideendako 155 €

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

## GUARDIAKO FARMAZIAK

<b>ARRASATE EGUNEZ</b>
Egubakoitza, 17 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Zapatua, 18 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Domeka, 19 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30
Astelehena, 20 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15
Martitzena, 21 JUNCAY: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99
Eguaztena, 22 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Eguena, 23 IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39
<b>BERGARA EGUNEZ</b>
Egubakoitza, 17 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
Zapatua, 18 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Domeka, 19 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Astelehena, 20 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Martitzena, 21 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguaztena, 22 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Eguena, 23 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
<b>OÑATI EGUNEZ BAKARRIK</b>
Egubakoitza, 17 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Zapatua, 18 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Domeka, 19 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Astelehena, 20 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Martitzena, 21 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguaztena, 22 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguena, 23 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
<b>ARRASATE GAUEZ EGUNERO</b> (22:00etatik 09:00etara)
Urtea bukatu arte: SANCHEZ ALVAREZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
<b>BERGARA GAUEZ EGUNERO</b> (22:00etatik 09:00etara)
Urtea bukatu arte: MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
<b>Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:</b> COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

## URTEURRENA

### Florentina Martinez Trapote

'Tini'

2022ko azaroaren 13an hil zen, 76 urte zituela.



Urteurrenako meza zapatuan izango da, azaroaren 18an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

Elizkizunerata joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2023ko azaroaren 10ean.

**Oroilore**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Gari ditu zuzenean edo, nahingo baduzu, jalarazti zuzen azaguru-konpainari gurekin nahi duzela agurtu naitu dizazuna.*

*Marioren, Ibanen, Mariboren eta Cristianen partetik, besarkada magikoak zuzentzeko, bihotza sendatzeko baloak dituz horietakoak. Guk baditugu gorleku zuzentzeko, gure beharra dizazenerako.*

**Marlo, Iban, Maribi eta Cristian**

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANZUOLA  
 Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

## BERRI-ZAKUA



### Elkarrekin

Arrasate, Eskoriatza, Bergara eta Elgetako hainbat mintzlagun Espaloia kafe antzokian elkartu ziren aurreko zapatuan. Bidelariak, bidelagunak zein koordinatzaileak izan, bingo saio dibertigarria egin zuten.



### Erakusleihorik onena

Ibai-artek antolatuta, Gaba Baltzeko erakusleihorik onena egin dute aurten, bigarrenen, eta Intersport Loramendik irabazi du lehen saria (300 euro) eta Altuna lurrindegiak bigarrena (200 euro).

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 17

**BERGARA 'Zaintza eta bizitza duinak Bergaran' irratsaioa**  
Gazteak eta helduak kontu kontari arituko dira.  
*San Joxepe elkartean, 17:00etan.*

**BERGARA Mizpirualde Egoitzaren Astea**  
*Oroitzapeneko kantuak emanaldia* egingo dute.  
*Mizpirualde egoitzan, 17:15ean.*

**ARETXABALETA A30: asanblada**  
Bilera ireki mistoa egingo dute.  
*Udaletxe zaharrea, 18:00etan.*

**OÑATI 'Ayer y hoy en El Salvador. Atzo eta gaur' hitzaldia**  
Lorena Peñak egingo du berba hango hainbat gaii buruz.  
*Gaztetxean, 18:00etan.*

**BERGARA A30: gazteei bideratutako batzarra**  
Irekia.  
*Irizar jauregian, 18:30ean.*

**ARAMAIO IV. Kopia txapelketa**  
Hamar bertsolari ariko dira kantuan: 18:30ean, Goiko tabernaren parean, eta 21:00etan, eskolako jangelan.  
*Aramaion, 18:30ean.*

**ARRASATE Pintura erakusketaren inaugurazioa**  
Arrasate Margo Taldekoen lanak ikusgai egongo dira abenduaren 15era arte.  
*Kulturaten, 19:00etan.*

**BERGARA UNED-Bergararen ikasturte hasiera**  
Ekitaldi akademikoa eta diploma banaketa.  
*Osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.*

**ELGETA Babesgabe taldea**  
Herriko bost gaztek osatzen dute taldea. Aurretik, azken Gaztea Cover lehiaketan ikus-entzuleen saria irabazitako Uxue Kerejeta arituko da.  
*Ozkarbi elkartean, 19:00etan.*

**BERGARA Spinning-rock saioa**  
Movembergara elkartearen eskutik.  
*Agorrosinen, 19:00etan.*

**OÑATI 'Zuloan zu?' filma**  
Arantzazuko leize batean izandako azken esplorazioak eta ustekabeak Aloña Mendi Espeleologia Taldearen eskutik.  
*Zinema aretoan, 19:30ean.*

**ARRASATE 'Punkaren beste aldea' dokumentalaren estreinaldia**  
Jesusi Etzebarria musika irakaslearen gainean Perlata taldeak egindako lana.  
*Amaia antzokian, 19:30ean.*

**ARRASATE Aba Taano taldea**  
Gospel kontzertua, *a capella*.  
*Parrokian, 20:00etan.*

**ESKORIATZA Beheko Errota musika eskolako bandaren kontzertua**  
Santa Zeziliaren omenezkoa.  
Debalde.  
*Zaldibar antzokian, 20:00etan.*

**BERGARA 'Mira hadi' helduendako antzezlana**  
Loraldia Produksioaren eskutik, Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira.  
*Seminarixoan, 20:00etan.*

**ARETXABALETA 'Kanpora sartzan' antzezlana**  
Xabin Fernandez eta Intza Alkain izango dira oholtza gainean Aitziber Garmendiak zuzendutako obran.  
*Arkupen, 20:00etan.*

**BERGARA Merina Gris taldea**  
Egubakoitzak Berreskuratzen ekimenaren baitan. Sarrerak, zortzi euro.  
*Kartzela zaharrea, 22:30ean.*

## ZAPATUA 18

**ARRASATE Baserritarren azoka**  
Babarrunak izango dira protagonista. Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleek prestatuko dituzte.  
*Seber Altube plazan.*

**ARRASATE Euskaltzaleen Topagunearen III. kongresua**  
Topaguneari abiatu duen hausnarketa prozesuaren berri emango da, eta etorkizuneko lan

ildoak zehaztuko dituen ponentzia nagusia aurkeztu.  
*Juan Arzamendi Musika Etxean, 10:00etan.*

**ARRASATE Mondravember**  
10:00etan, poltsen banaketa Seber Altuben; 11:30ean, pintxoak eta edariak; 12:00etan, Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsarekin eta gaiteroekin kalejira; 16:00etan, mus txapelketa; eta 20:00etan, rock kontzertua.  
*Arrasaten.*

**OÑATI Antzerki talde amateurren topaketa**  
KAROI antzerki jaialdiaren baitan  
*Eltzian, 10:00etan.*

**BERGARA Bisita gidatua eta tailerra**  
*Emakumeak botanikan* erakusketaren baitan.  
*Laboratoriumen, 11:00etan.*

**ARRASATE Korrikaren arropa salmenta**  
Besteak beste izango dituzte jertseak, kamisetak, biserak eta petoak.  
*Seber Altube plazan, 11:00etan.*

**ARETXABALETA Gazte Koordinadora Sozialistaren ekitaldiak**  
12:00etan, *Errepresioaren aurpegi*-k hitzaldia; 17:00etan, bola-txapelketa; eta 19:30ean, Berandu Baina Lehen eta K-Tarsia taldeak.  
*Aretxabaletan.*

**BERGARA Mizpirualde Egoitzaren Astea**  
12:30ean, bazkaria; 13:45ean, Mariatxi Dominguezen emanaldia; eta 15:00etan, Musikal Arabako akordeoilarien saioa.  
*Mizpirualde egoitzan.*

**BERGARA 'Rote Zora' liburuaren eta dokumentalaren aurkezpena**  
Irekia.  
*Kartzela zaharrea, 17:30ean.*

**ARETXABALETA 'Euskelelea' ikuskizuna**  
Juan Kruz Igerabide idazlearen ipuin batean oinarritutakoa. Maika



MERINA GRIS

**BERGARA Merina Gris taldea**  
Hirukote donostiarrak (Sara, Julen eta Paskal) pop bortitzarekin beteko du kartzela zaharra, Egubakoitzak Berreskuratzen egitasmoaren baitan.  
Sarrerak, zortzi euro.  
*Gaur, egubakoitza, kartzela zaharrea, 22:30ean.*

Etxekoparrekin, Euskal Barrokensemlerekin eta Irimarra ilustratzailearekin.  
*Arkupen, 18:00etan.*

**ARRASATE Muralgintzaren hastapenak**  
Gaztetxoendako.  
*Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

**BERGARA Orkestra Sinfonikoaren kontzertua**  
Santa Zeziliaren omenezkoa.  
*Mariaren Lagundian, 19:00etan.*

**OÑATI Ramada Inn eta Arima taldeak**  
Burrunda Faktoriaren eskutik. Sarrerak: zortzi euro soldatadunendako, eta hiru.  
*Gaztetxean, 19:00etan.*

**ESKORIATZA Duo Imperial taldearen emanaldia**  
Adin guztietarako, pasodoble, rantxera eta kantu dantzagarrien errepertorio zabalarekin. Debalde.  
*Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

**ARAMAIO 'Digame' antzezlana**  
Itur-Zuri emakume taldeak antolatuta, Isabel Aisa eta Rakel Imaz aktoreekin. Gazteleraz.  
*Kultura etxean, 19:00etan.*

**BERGARA 'Euskal musika mundura begira' emanaldia**  
Udazken Musikalaren baitan, Pavel Gomziakov biolontxelo-jolea eta Josu Okiñena pianoa-jolea.  
*Seminarixoan, 20:00etan.*

## DOMEKA 19

**OÑATI Azaroko mendi irteera**  
Galdames aldera joango dira. Zailtasun bako ibilaldia.  
*Postetxean, 07:00etan.*

**OÑATI Xake txapelketa**  
Suitzar erara jokatu dute, sei itzulera, eta jokalaririk bakoitzak 15 minutu izango ditu bandera jaisteko.  
*Gaztelekuan, 09:00etan.*

**OÑATI Aitzulora irteera**  
Familiendako. Izena emateko: 943-78 28 94 edo *arantzazu@gipuzkoanatura.eus*.  
*Araotzen, 10:00etan.*

**ARETXABALETA Merkatarien iragarki-grabaketa**  
Gabonetako iragarkia grabatuko dute, Urkulun.  
*Parrokiaren aurrealdean, 11:00etan.*

**BERGARA Txistulari Bandaren kalejira**  
Santa Zeziliaren omenez.  
*Bergaran, 11:00etan.*

**ELGETA Pintxo-domeka**  
Pintxo bereziak tabernetan, trikitilariak kalez kale... Udalaren eskutik.  
*Elgetan, 11:45ean.*

**ARRASATE Arrasate Musikaleko Bandaren kontzertua**  
Santa Zeziliaren omenezkoa.  
*San Frantzisko elizan, 12:00etan.*





AZKEN BERBA

MIKEL BIAIN

## A-30

Emakumeen eskubide berdintasunaren aldeko ekitaldi, egitasmo edo dena delakoetan, azken urteotan gizonetzko ere naturaltasunez batu izan gara; funtsean aldarrikapenekin ados egon izan garelako, bai, baina agian, zergatik ez, baita gizonetzko izanik matxismoaren itzal-susmo luzetik ere. Eta, atxikimendurako naturaltasun horretan, nago, sarritan ez ote ditugun okupatu emakumei zegozkien denborak eta espazioak ere; "borondate onez", hori bai. Nolanahi ere, bekatu arina litzateke hori, baldin eta benetan gure presentzia eskatzen denerako prest egonez gero.

Azaroaren 30a da eguna. Euskal Herriko Mugimendu Feministak greba orokorrerako deia egin du, eta, iragan urteetako mobilizazio deiekin alderatuta, datorren honetan bada jauzi esanguratsu bat: gizartearen luze-zabalari egiten baitzaio mobilizaziorako deia. Zaintzaren garrantzia erdigunera ekarri, zaintzaren aitortza soziala, politikoa eta ekonomikoa helburu; ez baita bizitzarik zaintzarik gabe. Hori horrela, garaia da agenda politikoetan duen tokia egin eta behingoz politika publiko ausartak aurrera eramateko.

## BUKATZEKO

# Egutegirik osatuena, Goienakideei opari

Azaroaren 23an, Goienakide guztiei iritsiko zaie etxera Goienakide egutegia: "bailarako egutegirik osatuena". Goienak komunitatearekin sortutako egutegi tematikoak 'Lanbideak' izango ditu ardatz, baina urtez urte aldatuko da gaia

Miren Arana Pagaldai DEBAGOIENA

Azaroaren 23an, lehenengoz oparituko du Goienak, Goienakide egutegia: "2024ko bailarako egutegi osatuena". Etxez etxe banatuta, Goienakide bakoitzak berdinak diren bi egutegi jasoko ditu, eta horren zergatia azaltzen duen eskuorri bat. "Gabonen bueltan opari praktikoa bat egin nahian, bailarako egutegi osatuena banatuko du Goienak", azaldu du *Puntua* aldizkariako erredaktore buru den Monika Belastegik; aste horretan, beraz, *Puntua* aldizkaria ez dela banatuko ere azpimarratu du.

2024. urteko paretako egutegia izango da *Puntua* aldizkariaren formatuko 40 orriko egutegi tematikoa. "Komunitatearekin egindakoa da, hilabete bakoitzak debagoiendar argazkizale baten argazkia izango du. Guk esandako irizpideak errespetatu dituzte, eta oso eskertuta gaude; izan ere, besoak zabalik jaso gaituzte herri guztietako ordezkariak", esan du jasotako laguntza Monika Belastegik.

### Lanbideak ardatz

Lanbideak izango da egutegiaren aurtengo gaia, baina aldatzen joango da urtez urte. Belastegik



Goienakide egutegiaren alea barrutik; apirila. GOIENA



Berdinak diren bi ale jasoko ditu Goienakide bakoitzak. GOIENA

azaldu duenez, bi atal nagusitan banatuta dago: "Lehenik, egutegia bera egongo da; hilabete bakoitzak argazki bat izango du, eta, gainera, herri eta auzoetako hitzordu garrantzitsuak, egun seinatuak, efemerideak, Euskal Herriko jaiegunak, lanbideei loturiko esaera zaharrak, tenporak eta ilargi aldaketak ere jasoko ditu, besteak beste".

Bestetik, lanbideei eskainitako argazki erreportajea ere edukiko duela aurreratu du *Puntua* aldizkariako arduradunak: "Arrazoi desberdinengatik, etxean transmititzeagatik edo espezializazio maila altua eskatzeagatik adibidez, langile gutxiago dituzten lanbideei tokia eskaini nahi izan diegu". Egutegiari amaiera emateko, orri beteko 2025eko egutegia eta editoriala ere egongo dira.

"Osatua bai, baina osatzen jarraitzeko" eginiko egutegia dela azpimarratu du Monika Belastegik: "Urtero aterako denez, norbaitek zerbait faltan botaz gero, idatzi baino ez du egin behar, hala, komunitatean egutegia hobetzeko eta osatzeko aukera izango dugu".

### Zergatik bi?

Goienakide bakoitzak bi egutegi jasotzeko badu bere arrazoiak; izan ere, Goienak oparia egin bezala, Goienakide bakoitzari opari bat egiteko aukera eskaintzea da helburua: "Goienakideak nahi duenari opari bat egiteko aukera ematez gain Goienakide berri bat ekartzea lortzen badu, upategi batera joateko zozketa batean sartuko da". Goienakide izateko, nahikoa da [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)-era idatzi edo 943 25 05 05 telefonora deitzea.

## PREZIPITAZIOA ETA TENPERATURA AZTERGAI

GOIENA TELEBISTA, 'HEMEN DEBAGOIENA' SAIOA  
AZAROAREN 17AN, EGUBAKOITZEAN, 18:00, 20:00 ETA 22:00



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

**goiena**  
Zu hemen zaude.

